

HIZNET

Hizkuntza Plangintza Graduondokoa

2012-2013 ikasturtea

***PROFEZIA AUTOBETEA
EUSKARAREN I(RA)KASKUNTZAN
ETA
ERABILERAN***

Pá

Egileak: Miguel Galicia Lambarri eta Sergio Foruria Amunategi

Tutorea: Patxi Juaristi Larrinaga

AURKIBIDEA

1- LABURPENA.....	4
2- SARRERA.....	5
2.1. AURKEZPENA	
2.2. ABIAPUNTUA:KEZKAK ETA ARAZOAK	
2.3. IKASTEAREN ETA ERABILTZEAREN INGURUKO HIPOTESIAK	
2.4. HELBURUAK	
3- METODOLOGIA.....	17
3.1. PARTE-HARTZAILEAK	
3.2. PROZEDURA	
4- ENKARTERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA.....	24
4.1. ESKUALDEARI BURUZKO DATU OROKORRAK	
4.2. EUSKARA ENKARTERRIN	
5- ENKARTERRIKO UDAL EUSKALTEGIA.....	38
6- KEZKAK ETA ARAZOAK.....	42
6.1. FAKTORE OBJEKTIBOAK	
7- IZENA DUEN ORO BADA (PROFEZIA AUTOBETEAK)....	59
7.1. FAKTORE SUBJEKTIBOAK	

8- USTE USTELAK.....78

8.1. HELDUOK, BESTE HIZKUNTZA BAT IKASTEN DUTENEAN,
HUTSETIK ABIATZEN DIRA

8.2. UMEEK ERRAZ IKASTEN DUTE, HELDUEK NEKEZ

8.3. EUSKARA OSO ZAILA DA

8.4. EUSKALDUN OSOAREN MITOA

8.5 ENKARTERRIN EZIN OMEN DA EUSKARA ERABILI

9- KONKLUSIOAK ETA EMAITZAK.....135

10- AMAIERA.....140

11- BIBLIOGRAFIA.....143

12- ERANSKINAK.....147

1. LABURPENA

Proiektu honetan euskararen i(ra)kaskuntza eta erabileraren inguruan gizartean errotuta dauden zenbait mito eta sinesmen aztertu nahi izan ditugu (euskara zaila da, helduek nekez ikas dezakete...). Eta ikusi ere ikusi dugu mito horiek osatzen dutela oso diskurtso potentea sekulako eragina duena hizkuntzaren normalizazioan; areago, oztopo ikaragarria da euskara ikasi eta erabiltzeko orduan; nahiz eta, uste dugun bezala, ideia faltsuak dituen oinarri.

Denok dakigu badaudela faktore asko euskararen normalizaziorako traba "objektiboak" direnak: minorizatua da, garestia... Baina badira bestelako faktoreak, "subjektiboak" izan arren, benetako ondorio erreal eta kaltegarriak sortarazten dituztenak.

Gure ustez, ideia etxekalte horiek gizartean eragiteko duten mekanismoa hauxe da: "autobetetzen den profezia" (Thomasen teorema), eta funtsean honetan datza: nahikoa da pentsatzea (edo pentsaraztea) zerbait erreal dela, erreal balitz bezalako ondorioak izateko. Beraz, gure asmoa hirukoitza izan da:

- 1- Uste ustel edo mito horiek gizartean zabalduta daudela egiaztatzea.
- 2- Berorien faltsukeria azaleratu eta indargabetzea.
- 3- Bestelako ideia edo pentsamendu "positiboagoak" aktibatu euskararen

ezagutza eta erabilera sustatzeko.

Saio txiki eta apala izanda ere, espero dugu iradokitzailea suertatzea.

2. SARRERA

2.1. AURKEZPENA

Lantxo honen egitura eta edukiak antolatzen hasi ginenean, konturatu ginen eduki asko eta asko "sarreran" sartu behar genituela. Elementu eta gai guztiek zeukaten, norgehiagoka zoro batean bezala, hasieran kokatuak izateko eskubidea. Tarrapataka eta elkarri bultza eginez, zein baino zein aurrerago kokatu behar genuen, ideia guztiak kolpean eta aldi berean kontatu behar bagenitu bezala.

Zinetan eta benetan panorama harrigarria bezain beldurgarria aurkeztu zitzaigun: sarrerak, azken batean, proiektuaren erdia baino gehiago hartuko zuen! Sarrera bainoago, ia lan osoa izango zen hasiera moduko hori!

Zergatik hori guztia? Bada, seguraski haurren moduan jokatzeko dugulako: kontatu beharreko zerbait ahal den azkarren botatzeko irriki bizia sentitzen dugulako. Ez, noski, buruan dugunak berebiziko garrantzia duela uste izateagatik (nahiz eta hori ere bai, barka!); baizik eta, batez ere, hasiberriak garelako kontu hauetan (teorizazio eta esperimentazioetan) eta, horrenbestez, trakets samarrak.

Beraz, hasteko arnasa hartu, geure burua aurkeztu eta gero, labur-labur, proiektu honen zer-nolako nagusiak (ikerketa objektuaren planteamendua, estrategia, helburuak...) laburbiltzen saiatuko gara.

Esan dezagun aurkezpentxo moduan, bi irakasle xume garela. Eta ez nahastu, gero! "Xume" esaten badugu, ez da halamoduzko apaltasun faltsua (edo egiazkoa) erakustearren. Ez horixe! Gizarteak hala izendatzen eta ikusten gaituelako baizik.

Jakina da Medikuntzan lizentziadunari, oro har, "doktorea" esan ohi zaiola. Psikologiakoari, berriz, "psikologoa". Baina, gure kasuan bezala, Euskal Filologian lizentziatura duen horri, goian jota, euskara irakaslea (beste bat!) deritzote; izan ere, benetako filologoak banaka batzuk baino ez dira munduan!

Argi dago, beraz, gizarteak berak ezartzen gaituela geure "tokian"; alegia, lizentziadunen artean beheko mailan. Hortik, bada, geure buruaren agertze umila.

2.2. ABIAPUNTUA: KEZKAK ETA ARAZOAK

Badago arazo bat aspalditik biziki kezkatzen gaituena: Enkarterrin nabarmen egin du gora ezagutzak, baina erabilera eskasa denez, eta erabiltzen ez dena atrofiatzen denez (gogoan izan harako hura: eginez ikasten da egiten), ikusten ari gara euskaldundutako askok eta askok galdu dutela euskara erabiltzeko gaitasuna; hau da, ezagutzak behera egiten duela euskaltegia utzi eta gutxira (eskola utzi eta gutxira).

Bestalde, nahiz eta eskualde honetan gaztetxo gehienak D ereduan matrikulatuta egon, eta sentimendu edo ideia nazionalistak nagusi izan (euskararekiko jarrera oso positiboa da), euskaldundu gabe dagoen biztanleria kopurua oso altua da oraindik ere.

Hortaz, batetik, gorpil zoro batean murgilduta gabiltza: "ez dut erabiltzen, besteak beste, nahiko ez dakidalako; eta, horrenbestez, gero eta gutxiago dakit erabiltzen ez dudalako." Bestetik, aldeko jarrera eduki arren, gero eta gutxiago animatzen dira ikastera.

2.3. IKASTEAREN ETA ERABILTZEAREN INGURUKO HIPOTESIAK

Jakin badakigu arrazoi asko daudela ez ikasteko: garestia da (batez ere, azkeneko urteetan non babes ofiziala gero eta eskasagoa den); denbora falta; hizkuntzak ikastea, antza, oso nekeza da... Baina badira bestelako arrazoi asko subjektiboak direnak (geroago ikusiko dugu objektibo eta subjektiboaren arteko mugak uste baino lausoagoak direla) hizkuntzak ikastearen eta erabiltzearen inguruan, oso zabaldu eta errotuak gure gizartean nolabaiteko ikusmolde eta edo zentzu komun bat osatzen dutenak, eta oztopo galanta eraiki dutenak euskarak aurrera egiteko.

Horiek dira zenbait ideia, mito eta uste ustel geure buruan txertatu direnak (dizkigutenak?) ikasle, irakasle eta, oro har, gizarte osoan txertatu ere. Hona hemen uste horietako batzuk:

Sarritan ikasleek uste dute dena ulertu eta adierazteko gai izan behar dutela; batua jakinda, euskalki guztiak ere erraz ulertu behar lituzketela (bestela porrota!); heldu batek, bigarren edo ngarren hizkuntza bat estudiatzen hasterakoan, hutsetik abiatu behar duela (tabula rasa moduko bat omen gara kasu horietan helduok); euskaraz pentsatzea euskaraz amets egitea dela; alegia, ez direla pentsatzeko gauza izango harik eta amets egin arte hizkuntza horretan; umeek erraz eta ahaleginik gabe barneratzen dutela ama-hizkuntza, eta helduek, oster, nekez eta askotxo sufritu ondoren;

denbora luzea behar dela euskaldun (agian esan beharko genuke, Odriozolaren hitzetan, euskaradun) bihurtzeko; lexiko eta hitz guztiak jakin ezean, ez direla benetako hiztunak; eta abar, eta abar.

Era berean, konbentzituta daude porrot egitearen arrazoi nagusiak hiru hauek direla:

1. Nik ez dut balio.
2. Zaharra naiz ikasteko.
3. Zaila da.

Errealtzat jotzen dute "ideario" hori guztia eta, zentzuzko eta egiazkoa ote den ala ez planteatu gabe ere, praktikan erreala balitz bezalako ondorioak (penagarriak) dakartza. Gure iritziz,

"Gure eraginkortasun ezaren arrazoia (...) oztopo psikologikoak eraikitzean datza: beldur gara ez ote garen gai izango, ez ote dugun porrot egingo. Ondorioz, ez ditugu gure adimenaren ahalmen guztiak erabiltzen" (Perales, 2012: 61.)

Pá

Ustez, Otik abiatzen badira, aurretik dituzten ezagutza, trebezia, munduaren eta hizkuntzaren inguruko jakintza guztia indargabetzen dituzte psikologikoki: horiek hutsaren hurrengo dira "de facto", eta zertarako erabili, balio ez badute? Eta 40 urte baditut, eta zaila bada, zertarako hartu "lan" hori? Edo, Paco de Luciak bezala gitarra jotzerik ez badut, zertarako hasi gitarra jotzen?

Pentsatzen dugu arrazoi subjektibo hauek zerikusi zuzena dutela Thomasen teoremarekin, alegia, autobetetzen den profezia fenomenoarekin, eta horiek guztiek oso mekanismo garrantzitsu eta potentea osatzen dutela geure "errealitatea" eratzeke.

Hortaz, lantxo honen tesia da Profeziaren fenomeno uste baino indartsuagoa dela eta zabal eta sakonago ere bai; zerikusi zuzena duela "bortizkeria sinboliko", idatzi gabeko arau eta "zentzu komunak" gizartean duen eragin, guk uste, erabatekoarekin. Areago, zientzia ere ez dela neutrala sinesten dugu, eta, neurri batean, zorioneko "profezia" horren mende dagoela bera ere.

Hala ere, guk, temati, argi daukagu horri buelta ematea beharrezko, ezinbesteko, eta are bidezkoa ere badela.

2.4. HELBURUAK

Hasieran iradoki ziguten helburu nagusia zera izan beharko zela: ikastearen eta erabileraren inguruan dauden oztopoak aztertzea. Eta, hein handi batean, bat gatoz horrekin. Izan ere, horixe izango baita gure egitasmoaren lehen xedea. Baina badago gehiagorik, egon. Lehenengo aztergai hori deskripziora mugatzen da, eta guk (handiusteak gerol!) salto egin nahi dugu "preskipziora", zeren, M. Zalbidek dioen bezala,

"benetako zuloa, hutsarte handia nolanahi ere, preskripzio alorrean daukagu (...) Zer egin behar da, hemen eta orain, euskarak burua jaso dezan? (Zalbide, M. (2003). Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio? *Iritzi Muinetik*. www.erabili.com)

Horri erantzuna (edo hobeto: erantzun bat) eman nahi diogu. Uste dugu, neurri txiki batean bada ere, aurre egin ahal diegula arestian aitatutako uste ustel edo mito kaltegarriei. Horregatik, laburbilduz, helburua bikoitza da: batetik, euskara ikasteko eta erabiltzeko orduan dauden oztopo psikologikoak azaleratu; eta, bestetik, horiek guztiak gezurtatu ondoren, ezagutzari eta erabilerari eusteko baliabide didaktiko, intelektual eta emozionalak ematea; edo, gutxienez, zorioneko uste ustelei galga jartzea.

Asmoa da frogatzea eta ikusaraztea, erabilera eta ikaskuntza uste baino errazagoa izan daitekeela; are gehiago, ikastea eta erabiltzea ez dela askok eta askok buruan halakotzat dutena. Azken batean iritzi eta zentzu komuna eraldatzen saiatzea da gure helburu nagusia.

Konbentzituta gaude, jarreran, motibazioan eta, batez ere, jokabidean berebiziko inportantzia dutela uste, iritzi eta ikuspuntuek. Eta berauek sarritan ez dutela zerikusirik ideia arrazoizko, zentzuzko eta, are gutxiago, zientifikoekin.

Honetaz, hara zer dioten P.Berger eta T.Luckmann-ek:

"Es debilidad natural de los teorizadores exagerar la importancia del pensamiento teórico en la sociedad y en la historia. Por eso se hace más indispensable corregir esta equivocación intelectual. Las formulaciones teoricas de la realidad, ya sean científicas, o filosóficas, o aún mitológicas, no agotan lo que es "real" para los componentes de una sociedad. Puesto que así son las cosas, la sociología del conocimiento debe, ante todo, ocuparse de lo que la gente "conoce" como "realidad" en su vida cotidiana" (Berger eta Luckmann, 2001: 31)

Pá

Eta gorago:

"...tomar como tema el pensamiento teórico resulta no sólo indebidamente restrictivo (...) sino también insatisfactorio"

(Berger et alli, 2001: 30)

Horregatik lantxo honetan zientziatik haratago joan nahi dugu.

Seguraski arrazoi osoz aurpegiratu ahal zaigu, aldez aurretik jotzen dugula ikasi eta erabiltzea uste baino errazagoa izan daitekeela, eta, agian, ez dela horrela. Agian ikasleek ez dutela horrela ulertzen. Azken batean, aurre-iritzi argia dagoela gure aldetik.

Bai, halaxe da! Gure asmoa ez da egia bilatzea, baizik eta "egia bat" martxan ipintzea, nola eta mito eta ideia "kaltegarri" batzuei aurre eginez eta beste ideia batzuk (gure aburuz, zentzuzkoago eta, zalantzarik gabe, komenigarriagoak) plazaratuz. Hau da, nolabaiteko "kontraprofezia" zabaldu eta lanean jartzea dugu buruan.

Beraz, argi gera dadila! Ez gara mugatuko oztopoak aztertu eta ikasleen jarrera eta motibazioa (zuzenean, behintzat) areagotzera; bai baitakigu jarrera, motibazioa eta jokabidea askotan "kontrako bidean" doazela:

"gure ondorioa izan zen, munduan barrena egindako lanekin bat etorriz, jarreraren eta hizkuntz portaeren artean oso lotura ahula egoten dela, eta, askotan loturarik ez dela azaltzen nahiz eta euskararekiko jarrerak aldekoak izan. Euskalduntzeko ikasgeletan egindako azterlanak eta biztanleria osoaren hizkuntza jarrerak zehazteko lanak ere gogoan harturik, ez dirudi "ezina ekinaz egina" edota "querer es poder" direlakoak ematen duen bezain egiazkoak direnik" (Perales, 2004: 33)

Gure egitekoa ez da, horrenbestez, ikasle helduak motibatzea (hori geroago dator berez), dela baliabide adore-emaileak sustatuz, dela ohiko motibazio-estrategiak aplikatuz¹. Izan ere, horiek "sendabide paliatiboak" iruditzen zaizkigu, hain zuzen ere, arazo edo gaixotasunak daudenean.

"Kontua ez da euskararen inguruko lehengo diskurtso zaharrei itxura berri bat bilatzea, edo haiek paper polit eta distiratsuago batean bilduta eskaintzea. Sakoneko aldaketak behar dituzte euskararen mundutik sortzen eta zabaltzen diren mezuek" (Arrieta, A., Fernández, I. (2012). 1.6. Komunikazioa euskara sustatzeko: 59. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea).

Horregatik, gureak ikuspegi aldaketa izan nahi du: gaixotasunik ez dago; arazorik ere ez, ezpada aukera paregabeak euskaldun izateko. Eta euskaldun izateaz goatzeko geure egin nahi dugu Jose M^a Sanchez Carrionen, Txepetxen, harako hura:

Pá

"la normalización consiste en que los euskaldunes se pongan a funcionar ipso facto (...) como si psicológica y socialmente la comunidad lingüística ya estuviera articulada" (Sanchez Carrion, 1999: 284).

¹

Ikus. *Uztaro* 50, 2006: 36

Horixe diogu geuk ere: "creer es poder".

Badakigu zaila dela usteen jatorria zehaztea (nahiz eta susmoren bat edo beste badugun . Baina argi dago (eta horretan ados gaude Peralesekin) usteen izaera soziala dela. "Bestela esanda, besteekin elkarrekintzan sorturiko konstrukto soziala" (Perales, 2003: 36). Konbentzionalismo bat, azken batean. Horregatik, beharbada, norbanakoaren mailan soilik izan bide dezake egitasmo honek nola-holako eragina. Horixe da arriskua. Hala ere, gure esperantza da efektu hau pertsonarengandik komunitatera (hasieran euskaltegiko komunitatea) igarotzea.

Halaber, jakitun gaude pertsonarengan edo talde txiki batean eraginez ezer gutxi lortu ohi dela, "... hiztun gizabanakoaren egitura pertsonal honek ez du inoiz hizkuntza erabileraren jokaera eta ohitura determinatzen. Eragin bai, jakina". (Odriozola, 1998: 45)

"Eragin" horrekin bakarrik gu geu, behintzat, konforme. Eta konforme ere itxaropena pizten badugu gure ikasleen artean, bada,

Pá

"nekez ikasiko dugu hizkuntza guretzat baliorik ez badu edota ikasiko dugulako itxaropenik ez badugu (...) eta itxaropena edukitzeko autokontzeptuak eta norberaren efikaziaren gaineko juzguak (...) pisu handia dute." (Perales, 2004: 27)

Beraz, ez pentsatu ameskeriatan gabiltzanik ere. Jomuga ez da Enkarterri amen batean euskaldun bihurtzea. Bai, ordea, Txepetxen arestiko hitzen atzean dagoen filosofia ernatu eta indartzea. Zeren, azken buruan, berak dioskuna da, hain zuzen ere, gure proiektuaren ardatz nagusia: errealtzat jotzen duguna erreal da bere ondorioetan; Thomasen teorema, alegia.

3. METODOLOGIA

3.1. PARTE-HARTZAILEAK

Hasieran esan dugu bi irakasle xume baino ez garela, eta, horrela izanda, ez dugu ez alarde tekniko, ez teoriko, ez inkesta erraldoi, ez estatistika superprofesionalik egiterik, ezta denbora edo diru askorik xahutzerik ere!

Gure eragin eremutxoa hauxe da: Enkarterriko Udal Euskaltegiko bost ikastalde (1. urratseko talde bat eta 6. eta 8. urratsetako bina talde - guztira 50 ikasle -), 9 irakasle, zenbait ikasle ohi eta bertako lagun batzuk, besterik ez. Horiexek dira parte-hartzaileak; ez gehiago, ezta gutxiago ere!

3.2. PROZEDURA

Gaiaren muinari heldu aurretik funtsezkoa da, guk uste, Enkarterriko egoera soziolinguistikoa zertan den argitzea, eta, euskaltegiaren nondik norakoaren berri ere ematea egitasmoa behar bezala kokatzeko. Ziur aski, aztergaia eta ondorioak estrapolatu daitezke Euskal Herriko beste eskualde batzuetara (guztietara?) edota bestelako egoeretara; hala izango ahal da! Baina edozein modutan ere, ikerketa hau sortu den testuinguruaren berri edukitzeak bide eman diezaguke gaiari neurria hartzeko eta analisisia

zentratzeko.

3.2.1. KEZKA ETA ARAZOEN DIAGNOSTIKOA

Gogoan izan kezka nagusiak hauexek direla:

- a) Gero eta jende gutxiago dator euskaltegira.
- b) Dakienak galdu egiten du erabiltzen ez duelako.

Guretzat begibistakoa izan arren, merezi du arazo horiek analizatu eta egiaztatzea. Eta horretarako bi teknika kuantitatibo erabiliko ditugu. Batetik, urteroko memorietan ikasle eta matrikulen estatistikak eguneratzen ditugu, eta bertan kopuruaren jaitsiera nabarmen agertzen da. Bestetik, bigarren arazoari tamaina hartzeko pentsatu dugu inkesta egitea (seguraski telefonoz) EGA lortu zutenei duela 2 eta 3 urte, ikusteko gaitasunari eutsi dioten ala ez, eta nola.

3.2.2. KAUSA "OBJEKTIBOAK"

Pá

Esan bezala, ikastearen eta erabiltzearen inguruan badaude hainbat faktore objektibo eragina dutenak gure hizkuntzaren "ibilbidean".

Horietako batzuk,esan dezakegu, "intrinsekoak" edo, nahi bada, "mikroak" dira: diru-laguntzak gero eta murrizagoak dira; ratioak zentzugabeak;

eskola-moduluak, hein handi batean, zurrin-zurrinak; irakasleak kontratatzeko zailtasunak gero eta gehiago (aurten, adibidez, bost talde - BOGA barne- eratu eta martxan jarri eta gero, bertan behera geratzeko zorian egon dira administrazio arazoak tarteko); AISA aurrera ateratzeko aukera zapuztu digute...

Eta beste faktore batzuk ere ("estrinseko" edo "makro") hor daude. Eta zerikusia dute, gure ustez, euskararen estatusarekin. Adibidez, Autonomia Estatutuak gaztelania eta euskara koofizialak direla ebazten du, eta horrek pentsarazi diezaguke legearen aurrean berdinak direla, nahiz eta ideia hori okerra izan.

Gure lantxo honetan, hala ere, arrazoi edo kausa "objektibo" horiek bigarren maila batean geratuko dira. Ez dira izango gure aztergai nagusia, baina, azaletik bada ere, komenigarritzat jotzen dugu faktore horiek aipatzea.

3.2.3. MITO, USTE USTEL EDO SINESKERIAK AZALERATU ETA GEZURTATZEA

Pá

Lehen-lehenik frogatu behar dugu uste horiek existitzen direla, eta, bigarrenik frogatu ere hutsalak direla.

Hortaz, ikasleek adierazten dutena aztertu nahi dugu: motibazioak, ideiak, sinesmenak, helmugak, erreferente kultural eta ideologikoak... Eta,

horrenbestez, dimentsio sinbolikoan murgilduko gara ezinbestean:

"modu librean eta mugarik ezarri gabe eginez gero ez da kuantifikatzeko modukoa, diskurtsibitate horren azterketak konprentsioa eta interpretazioa bilatu behar ditu" (Martínez, Z., Berri-Otxoa, K., Altuna, O., Jausoro, N. (2012). 2.1. Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak: 14. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea).

Horregatik horretarako egokiena dirudi metodologia kualitatiboa praktikatzek; esaterako, "eztabaida taldea". Baina, argi ibili! Printzipioz, behintzat, "eztabaida taldea"-ren helburua da "analisirako lehengai izango diren diskurtsoen ekoizpena" (ibidem: 25). Baina ezin dugu ezkutatu taldearen eta taldekideen eraldaketa bilatzen dugula; nolabaiteko "bidaia inizatiko" bat hasi nahi dugula; horregatik ezin bazter utzi "autoritatearen eredu" ²; izan ere,

"...teorian, bederen, irakasleen usteak oinarri enpiriko sendoagoak, egiazkoagoak, izango dira ikasleenak baino, zeren eta irakasleen usteek, hein handi batean, emozioetan ez ezik, prestaketa saioetan jasotako formazioan ere, izango baitute oinarria" ((Perales, 2003: 36).

Pá

² Ikus. Arrieta-Urtizberea, 2010: 49 eta hurrengoak.

Hala ere, ezin gara konformatu gure "autoritatea"-rekin, eta, alde horretatik, aipatu behar da baditugula zenbait eskola berezi (batez ere, lehen urratseko ikasleek kurtso hasieran egitekoak) lagungarriak suertatzen direnak, ez bakarrik hausnarketa edo gogoeta egiteko, ezpada ikasleek eurek probatu eta frogatzeko, buruan iltzatuta dituzten zenbait ideia (hizkuntzak ikasi eta erabiltzeari buruz) faltsuak eta euren kalterako izan daitezkeela.

3.2.4. MITOAK DEUSEZTATU ETA ABIAN JARRI EZAGUTZARI EUTSI ETA ERABILERA AREAGOTZEKO PROGRAMA

Hemen ere buruan dugu zenbait proiektu eskolan bertan garatzekoak; besteak beste, plan pertsonala, non ikasleek praktikara eramango duten, aurretik ikasi eta barneratutako (?) guztia. Hori lortzeko, gure ustez, metodologia parte-hartzailea da bide bakarra, zeren, "es más probable que uno se desvíe de programas fijados por otros, que de los que uno mismo ha contribuido a establecer" (Berger eta Luckmann, 2001: 85).

3.2.5. EMAITZAK NEURTU

Pá

Helburuen betetze-maila neurtzeko analizatuko dugu hasierako egoeraren eta ikerketa-ekintzaren ondorengo egoeraren artean dagoen aldea. Eta, alde horretatik, ezinbestekoa izango da aztertzea ikasleen plangintza pertsonal berriaren nondik norakoa eta bai sinesmen aldaketaren zenbaterainokoa ere. Hartara proiektua hasi (zenbait ekitaldi ikastaro hasieran egin genituen) eta bizpahiru hilabetera, gehien jota, testatu nahi dugu. Eta bide horretan egokia deritzogu bai inkestak, bai elkarriketa pertsonalak egiteari; hain zuzen,

ikusi ahal izateko, behintzat, ea bide zuzenetik goazen ala ez.

Hau guztia guretzat lan eskerga izan arren, proiektu txiki eta xumea izango da. Beharbada, ez ditu asebeteko gure asmo handinahiak, ezta hurrik eman ere! Bai baitakigu euskararen egoera ez dela ezertxo ere (?) aldatuko. Zeren zenbait adituk dioten bezala,

"...hizkuntz auziok botere kontuak dira azken batean, hegemonia linguistikoaren gorabeherak (...) hizkuntz hautua ez dago hiztunaren esku azken buruan, erabilera erregulatzen duten faktoreak estrukturalak dira, egitura soziolinguistikoari darizkionak." (Odriozola, J. M., *Berria* 2013ko apirilaren 3a: 4)

Geu ere bat gatoz horrekin, eta horrek ere esplikatu luke nolabait ere, orain arte hizkuntza-plangintzetan gehien jorratu diren ikuspegiak soziologiko eta politikoak izan izana³.

Baina, hala ere, kontuan hartuta hizkuntzen desagerpena azaltzeko adituek diotela "jarrerak" omen direla kausa inportanteenetakoak, guk geuk, behintzat, ondorioztatu behar dugu ikuspegi psikosozilogikoa baztertuxe daukagula gure artean, eta badela garaia alderdi hori gehiago jorratzeko eta duen garrantzia aitortzeko. Zeren eta botere kontuak, gizartearen

³ Ikus. Olaso, O., (2012) .1.4. Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena: 35. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

estruktura objektiboetan badaude ere, norbanakoaren buruan ere sartuta daude barru-barruraino; halako eran, non elkar elikatzen duten. Eta, horrela izanda, dialektika zoro batean mugitzen gara halabeharrez: gauzak horrela dira, besteak beste, nik ere hala direla pentsatzen dudalako. Hau da, gure tesia da egoera bat, edo status quo bat aldatzeko berebiziko garrantzia duela nork bere buruko eskemak ere aldatzeak. Areago, askotan eta askotan oztopo objektiboak (legea, kasu) hobeto gainditu daitezke subjektiboak baino.

Askok pentsatuko dute (guk ere bai) saiotxo hau zerbait ñimiñoa besterik ez dela. Ados! Dena den, kontuan izan behar dugu, kaosaren teoriaz geroztik, ezein ekintza ere ez dela "xumea" Ilargipeko mundu honetan. Hala izan bedi!

4. ENKARTERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

4.1 ESKUALDEARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Enkarterri Bizkaiko mendebaldean dago eta hamar udalerrik osatzen dute eskualdea; honako hauek dira: Gordexola, Galdames, Artzentales, Sopuerta, Turtzios, Karrantza, Lanestosa, Gueñes, Zalla eta Balmaseda. Lur eremu zabala hartzen du; 429,59 km kuadro, hain zuzen ere. Azalera hau Bizkai osoaren %19,37 da. Besteak beste, Burgos eta Kantabria ditu mugakide eta probintzia horiekin izan duen harremana betidanik handia izan da. Esaterako, hor dugu Turtziosko Villaverderen kasua (ikus. 1. grafikoa zuriz dagoen mapa zatia), administratiboki Kantabria da, baina Enkarterriren bihotz-bihotzean dago kokatuta. Harreman hau dela eta, enkarterritar asko gehiago bizi dira Kantabriara edota Burgosera (Villasana, Quijano...) begira, Bizkaira baino. Beste horrenbeste gertatzen da Burgosekoak edo Kantabriakoak diren herri mugakideekin ere.

Pá

Biztanleriari begiratzen badiogu, berriz, 32.169 lagun bizi direla ikusiko dugu. Hala ere, nahiko banaketa desorekatua da; izan ere, 22.621 enkarterriar (%70,31) Balmasedan (7.737biz.), Gueñesen (6.442) eta Zallan (8.442) bizi dira. Hiru herri hauek eskualde buruak dira (batez ere

Balmaseda eta Zalla) eta horra mugitzen dira biztanle gehienak lanera, azokara, dibertitzera edota eskolara. Gainera, hiru herri horietan pilatzen dira eskualdeko industria, merkataritza eta ia zerbitzu guztiak. Gainontzeko herrietan; batez ere, nekazaritza eta abeltzantza dira nagusi. Enkarterriko biztanleak; bestalde, Bizkaiko biztanleria osoaren %2,77 baino ez dira.

Desoreka handia dago; hortaz, probintzia osoan hartzen duen lur eremuaren eta horko biztanleriak demografikoki duen pisuaren artean. Datu honek historikoki zein gaur egun garrantzi handia du; izan ere, Enkarterrik Bizkaiaren barruan duen pisua txikia da. Ezezaguna da batzuentzat eta ahaztua beste askorentzat. Bilbotik 20 kilometrora egon arren, bizkaitar askok ez dakite mapan kokatzen. Bestalde, ekonomikoki ere etorkizun iluna du. Hainbat eta hainbat lantegi eta enpresa txiki ixten dabiltza eta instituzioen aldetik ez dago aparteko mugimendurik ez politika berezirik eskualderako. Horren guztiaren ondorioz, gaur egun Bizkaiko langabezi tasarik altuenetariko du; batez ere, gazteriaren artean.

1. grafikoa:


Azalera	429,52 km ²
Biztanleria	32169
Dentsitatea	3732,1 bizt / km ²
Udalerrriak	Artzentales , Balmaseda , Galdames , Gordexola , Gueñes , rrantza , Lanestosa , Sopuerta , Turtzioz eta Zalla
Herririk handiena	Zalla (8442 biztanle)

4.2. EUSKARA ENKARTERRIN

Azken 20-25 urteetan euskararen ezagutzak ikaragarri egin du gora eskualdean. Ia erabat erdalduna izatetik erdiak baino gutxixeago elebidun (ondo hitz egiten dute euskaraz zein gaztelaniaz) edo elebidun hartzaile (gai dira euskara ondo ulertzeko; nahiz eta ondo ez hitz egin) izatera igaro gara. Beheko grafikoan ageri diren datuak duela 12 urtetakoak dira. Gaur egun zenbaki horiek dexente igo dira eta %19 inguru dira elebidun (Bizkaia.net) eta %20 eskas elebidun hartzaile. 1981ean Gune soziolinguistikoen lehenengo mapa egin zenean Enkarterri 1go gunean zegoen; hau da, euskaldunen kopurua %20tik beherakoan. 2006koan ere gune berean jarraitzen zuen, baina herri batzuek (Zalla, Gordexola, Gueñes...), ozta-ozta bada ere, gainditu dute muga hori eta besteak ere bide beretik doaz. Igoera honetan zeresan handia izan dute; batez ere, aurrerago aztertuko ditugun eskolaren eta euskaltegien lanak.

2. grafikoa: iturria, soziolinguistika klusterra

Hizkuntza gaitasuna. Enkartazioak, 2001 (%)



Hizkuntza gaitasuna. Enkartazioak, 2001 (%)

Eremua	Urtea	Guztira	Euskaldunak	Ia Euskaldunak	Erdaldunak
Enkarterri	2001	100,0	13,0	21,5	65,5

Hizkuntza gaitasuna. Enkartazioak, 2001

Eremua	Urtea	Guztira	Euskaldunak	Ia Euskaldunak	Erdaldunak
Enkarterri	2001	29.083	3.783	6.262	19.038

Bestelako datuak ditugu, zoritxarrez, erabilerari begiratzen badiogu. Azken Kale Neurketako datuek % 0,2ko erabilera ematen dute. Aurreko neurketetako daturik ez dago konparatzeko, baina horrela hotzean ikusita etsigarriak izan daitezke. Guk ez dugu, ordea, egoera horrela ikusten.



Jakin badakigu euskara kalean entzun dadin ehuneko altu samarrak jakin behar duela eta, ikusi dugunez, ez da hori Enkarterriko kasua. Bestalde, kontuan izan behar dugu entzuten den euskara gehiena kontestu formaletan izaten dela eta Kale Neurketaren esparrua bestelakoa da, bat-bateko egoera ez-formalak neurtzen baitituzte. Are gehiago, adin tarte guztietan mantendu behar da ezagutza hori eta Enkarterrin umeak eta gazteak dira, batik bat, euskaldun; beraz, desoreka dago ezagutzaren eta adin tarteen artean.

Euskarak Enkarterrin bizi duen egoera ilustratzeko grafiko batzuk jarri ditugu. Agertzen diren datuak *Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistematik* atera ditugu eta Zallari baino ez dagozkio. Herri hau egun eskualdeko populatuena den heinean, egokiak izan daitezke eskualde osora estrapolatzeko ere.

ELEBIDUNEN ETA ELEBIDUN HARTZAILEEN GARAPENA EHUNEKOTAN

<u>1986</u>		<u>2001</u>	
Elebidunak	1,67	Elebidunak	14,41
Elebidun hartzaileak	7,12	Elebidun hartzaileak	20
Euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak	0,72	Euskaldun zaharrak eta Jatorrizko elebidunak	1,39
Euskaldun berriak	0,94	Euskaldun berriak	13,01
Partzialki euskaldun berriak	6,61	Partzialki euskaldun berriak	19,7

LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA EDO EUSKARA ETA GAZTELANIA EHUNEKOTAN

<u>1986</u>	1,37	<u>2001</u>	1,90
-------------	------	-------------	------

EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

<u>1991</u>	1,61	<u>2001</u>	2,30
-------------	------	-------------	------

Azpimarragarria da 15 urtetan zenbateko hazkundera izan duen ezagutzak; elebidunak eta elebidun hartzaileak batera hartzen baditugu, %25,62 egin du gora. Erabilerarena eta etxeko transmisioarena, aldiz, beste upeleko sagardoa da. Transmisioak %0,53 gora egin duen bitartean, etxeko erabilerak (kasu honetan 10 urtetako tartean) %0,69. Zenbaki txikiak dira, ez doaz nahi genukeen abiaduran, baina gora doaz eta ez da gutxi. Kontuan izan behar dugu euskararen presentzia anekdotiko batetik abiatu garela (1986an esaterako lehen hizkuntza erdal hizkuntzaren bat zuena %0,60koa zen, euskara

bakarrik jasotzen zutenen portzentaia bera).

Halaber, beste bi ohar ere egin behar ditugu. Batetik, datuok 2001ekoak dira eta pentsatzekoa da azken 12 urteotan gora egingo zutela zalantza barik ezagutzen; baita, seguru asko ere transmisioan eta erabileran. Bestetik, adierazle hauek bost urtetik gorako biztanleria hartzen dute kontuan eta hortik beherakoa, bizpahiru urterekin eskolaratzen denetik behintzat, euskalduna da gehienbat.

Beraz, zenbaki hauek apur bat aztertzen baditugu, hobeto ulertu eta nolabait erlatibizatu egingo ditugu Kale Neurketak emandako emaitzak.

Bestalde, euskaldunen artean hiru tipologia argi aipatuko genituzke: umeak eta gaztetxoak, euskaldun berriak, eta euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak.

a) *Umeak eta gaztetxoak*: hauek dira euskaldunen artean talde nagusia. Euskara eskolarekin eta, nolabait, agintearekin lotzen dute. Eskolako eremutik kanpo ezer gutxi egiten dute euskaraz.

Pá

b) *Euskaldun berriak*: asko eta asko guraso dira eta ikasketa prozesua amaitzen ari dira. Kostatu egiten zaie euskaraz aritzea eta baliabide falta eta inguru arrotza direla medio sarritan gaztelaniara jotzen dute. Hemen sartuko genituzke goragoko grafikoetan partzialki euskaldun berriak izendatu ditugunak ere.

c) *Euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak*: batez ere, beste nonbaitetik etorriak dira eta bertako ohitura hartzen dute; hau da, gaztelania. Euskaldunen artean portzentaia baxuena da, baina apurka-apurka gorantz doa; izan ere, eskolan euskaldundutakoak adinean gora doaz.

Kalean gutxi erabili arren, euskara hor dago eta adibide moduan pasa den martxoaren 1ekoa. Zalla Antzokia lepo bete zen *Pirritx, Porrotx eta Mari Motots* ikusteko. Han zeuden ume guztiek badakite euskara, baita guraso gehienek ere neurri baten behintzat. Beraz, pailazoez dioten moduan "sentitu, pentsatu, ekin".

Esanak esan, argi izan behar dugu euskararen etorkizuna eskualde honetan eta antzeko eremuetan dagoela, ezagutza ikaragarri arin baitoa gorantz. Eremu euskaldunagoetan (Lea-Artibai, Busturialdea, Arratia...) bestelako kezkek dituzte; gaztelaniaren interferentziak direla, gazte hizkeraren fenomenoak dela, euskalkia dela... Euskarak bizi duen egoera erabat desberdina da han eta hemen, abiadura desberdineko trenak dira eta beharrian horiei guztiei erantzungo dien hizkuntza politikarekin asmatu egin behar dugu. Horretarako, leku bakoitzean, bertako faktore guztiak argi izanda, egitasmoak aurrera eraman eta behar diren neurriak indarrean jarri behar ditugu.

Pá

4.2.1. IKUSPEGI HISTORIKOA

Enkarterrin euskara aspaldi galdu zela entzun izan dugu sarritan. Ez dakigu

seguru noiz, Arejitak, Manterolak eta Oar-Artetak⁴ diotenez XIX. mendean oraindik Galdamesen eta Gordexolan euskara egiten zen ezaugarriak badira, nahiz eta beste toki batzuetan askoz lehenago desagertu zen eta beste batzuetan egiten zen ere ezin dugun jakin.

Bonaparteren euskalkien mapa hartzen badugu edo askoz beranduago Koldo Zuazok egindakoa argi eta garbi ikusiko dugu Enkarterri kanpoan geratzen dela, Araba gehiena edota Nafarroa Erdialdea eta Erribera bezala.

Siadecok 1979an egindako mapak ere datu argigarria ematen digu. Hor euskaldunen ehunekoa neurtu zuen eskualdeka portzentaia baxuenetik (%0-20) altuenera (%80-100). Enkarterri agertu ere ez da egiten. Beraz, horrek esan nahi du euskaldunik ez zegoela garai hartan gure eskualdean.

4.2.2. EUSKARAREN ALDEKO TALDE ERAGILEAK

Hemen lau esparru nagusi ditugu: Euskara Zerbitzuak, euskaltegiak, eskola, eta bestelako talde eragileak.

Pá

4.2.2.1 EUSKARA ZERBITZUAK

Enkarterrin hiru euskara zerbitzu daude: Enkarterriko Udalen Mankomunitatearen Euskara Zerbitzua, Gordexolako Euskara Zerbitzua eta

⁴ Arejita, A., Manterola, A., Oar-Arteta, S. (2007) *Euskararen geografia historikoa*. Vitoria-Gasteiz. Labayru Ikastegia:51)

Balmasedako Euskara Zerbitzua.

Enkarterriko Udalen Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuan eskualdeko udalerri guztiak daude sartuta (Gordexola barne), Balmaseda izan ezik. 1998tik ari da lanean eta atera berri du 2013-2016 Plan Estrategikoa. Gordexolako Euskara Zerbitzua 2000.urtean sortu zen eta Mankomunitatekoarekin batera onartu du duela gutxi EBPN. Azkenik, Balmasedako Euskara Zerbitzua dugu 2001ean sortua eta laster datozen urteetarako EBPN onartuko dute.

Euskara zerbitzuok lanean hasi zirenetik, euskararen inguruko lanak areagotu egin dira eta euren eragina nabaria da; batez ere, hainbat ekintza antolatzen dituztelako herrian, eskoletan, euskaltegietan...

Seguruenik dituzten proiektuen artean arrakastatsuena eta herriarengana gehien heltzen dena *Berbalaguna* da. Hemen nahiko maila altuetan ari diren euskara ikasleak eta euskaldun osoak (ahal denetan behintzat) elkartzen dira astean behin-edo euskaraz egiteko eta bizitzeko. Berezik euskalde ez-euskaldunetarako proiektu hau benetan interesgarria da; izan ere, Fishmanek aipatzen dituen indarguneen antzekoak sortzen ditu. Ingurune euskaldunetan berez daukate eta hainbat funtzio eta esparru euskararenak dira. Gurea bezalako zonaldeetan, ordea, sortu egin behar ditugu eta horrela, artifizialki bada ere, euskarari bere lekutxo egin eta bide batez euskaldunei ere euskaraz aritzeko aukera eman. Horrela bi helburu beteko ditugu. Batetik, praktikatu nahi duenari aukera emango diogu; bestetik, euskarak esparru berriak irabaziko ditu eta ez da hain arrotza izango askoren belarrietan.

Bestalde, hobetu beharrekoen artean honako puntu hauek dira aipagarrienak:

-Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren eraginpean udalerri gehiegi daude eta nahiko desberdinak. Bakoitzarentzako plan bereiztua egitea litzateke egokiena, baina horrek baliabideak ugaltzea dakar.

-Balmasedak eskualdean duen pisua ikusita, mankomunitate horren barruan egon behar luke, horrela herrien arteko elkarlana are handiagoa izango litzateke.

-Zerbitzuak sortu zirenetik, teknikari, trebatzaile, itzultzaile... mugimendu handiegia izan da eta horrek aurrera eramane beharreko lanean eragin nabarmena izan du. Beraz, lanpostu horiek normalizatzea ondo legoke, bete behar diren plazak behin betiko betez.

-Euskarak bizi duen egoera desberdina da han eta hemen. Hala ere, sarritan aurreikusten edo antolatzen diren egitasmoak berdinak dira Lekeition edo Balmasedan. Mikel Zalbide⁵ dioen moduan, gaixoa diagnostikatu behar dugu eta gero botika eman. Beraz, lekuan lekuko azterketak eta konponbideak, nahiz eta hau edo beste ia edonorako egokia izan daitekeen.

Pá

⁵ Ikus. Zalbide, M., Erize, X., (2012). 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskuperenerako hainbat hurbilpen teoriko. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea)

4.2.2.2 ESKOLA

Enkarterrin eskola nahikotxo daude; batez ere, hiru herri nagusienetan. Dena dela, herri batetik besterako distantziak nahiko handiak direnez, herri txiki askok oraindik mantentzen dituzte Haur Hezkuntza eta Lehenengo Hezkuntzako eskolak; esterako, Gordexolak, Karrantzak edo Sopuertak. Herri eskolak ez ezik, zenbait ikastetxe pribatu ere badaude eta Balmasedako Zubi Zaharra ikastola ere bai. Adibide moduan, Balmasedako matrikulazio datuak jarriko ditugu herriko web orritik aterata.


2001eko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren datuen arabera Balmasedako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleen %76,15ek aukeratu zuen D eredua. 2007-2008 ikasturteko herriko ikastetxe eta ikastolako datuak kontuan hartuta, HH eta LH-ko umeen artean %85,82k ikasi dute D ereduan eta 2009-2010ekoak kontuan hartuz gero % 93k. (www.balmaseda.net)

Datuok argi erakusten digute gorako joera hori. Ia ikasle guztiak ari dira gaur egun euskaraz ikasten. Beraz, eskolari ezin diogu gehiago eskatu. D ereduko lehenengo belaunaldia duela 20 bat urte hasi zen ikasten eta hor daude emaitzak, ezagutzari dagokionez behintzat.

Datozen urteetan euskararen mapak aldaketak izango ditu eta gaur egun euskaldunak diren zenbait gunetan atzerakada egingo du, Iparraldean adibidez. Enkarterrin, Bizkaiko Ezkerraldean edo Araban, berriz, goraka

joango da. Horretan zeresan handia du eskolak eta indarrean dagoen legeriak.

4. grafikoa: iturria, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



4.2.2.3 EUSKALTEGIAK

Bi euskaltegiak lan egiten dugu eskualdean, Zallako AEK-k eta Enkarterriko Udal Euskaltegiak. Hainbat urtetan elkarren ondoan ari gara (eraikin berean gaude) eta neurri baten elkarri "konpetentzia" egiten. Eskualdean dauden ikaslegaiak daude, ez gehiago, eta aurrerago azalduko ditugun ratio, talde kopuru eta horietara heltzeko premiak ez du inondik ere elkarlana bultzatu. Betidanik nabaritu izan dugu plangintza egoki baten falta; bai udalen aldetik, bai HABEren aldetik, ez baitauka inolako zentzurik indarren bikoizketa honek. Sarritan entzun dugu, esaterako, euskaltegien mapa egin behar dela, baina momentuz inork ez dio behar bezala aurre egiten egoera honi.

Esanak esan, AEK-k zein Udal Euskaltegiak lan eskerga egin dugu

Enkarterrin euskararen ezagutzak gora egin dezan. Are gehiago, hainbat urtetan kalean egin diren euskararen aldeko ia ekintza guztiak (antzerkiak, hitzaldiak, ikastaroak, jaiak...) geuk antolatu ditugu. Gerora, zorionez, Euskara Zerbitzua hasi zen martxan eta, neurri handi baten, berak hartu du ardura hori.

4.2.2.4. BESTELAKO TALDE ERAGILEAK

Badaude Enkarterrin zenbait talde euskararekin zuzenean lotuta ez badaude ere, bere alde egiten dutenak. Esaterako, Balmaseda, Sodupe eta Zallako dantza taldeak. Taldeotako partaide asko eta asko euskaldunak dira eta euren artean, neurri baten behintzat, euskaraz egiten dute. Antolatzen dituzten ekintzek ere bide naturala ematen diote euskarari; hor dugu, esate baterako apirilaren 27an Zallako *Ibai Lorak* dantza taldeak antolatutako Euskal Erromeria eta herri bazkaria.

Eskualdeko mendi elkarte batzuek ere betetzen dute funtzio hori. Kartelak-eta euskaraz jartzen dituzte; noizean behin hitzaldi, proiektzio edo antzekoak euskaraz ere egiten dituzte.

Pá

Aparteko aipamena merezi du sortu berria den Enkarterriko Bertso Eskolak. Euskara bera helburu zuzena ez bada ere, funtsezkoa da erreminta gisa eskolak funtziona dezan.

Elkarte hauen lana behar-beharrezkoa da. Hauek izan behar dute

euskararen indarguneak eskualdean, euskara helburu izan barik tresna bihurtzen den lekua; batez ere, gazte jendeak euskarak, eskolatik haratago, esparru naturalak ere badituela ikusi behar du.

5. ENKARTERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

Enkarterriko Udal Euskaltegiaren Mankomunitatea 1986.urtean sortu zen; beraz, 25 urte baino gehiago ari da lanean. Hasiera baten Gueñesek eta Zallak osatzen zuten Mankomunitatea, gerora Balmaseda ere sartu zen. Hiru herri hauetatik aparte, eskualdeko gainontzekoek ere parte hartzen dute ikasleko diru kopuru jakin bat jartzen baitute.

Hasierako urteetan, 1995era arte gutxi gorabehera, Mankomunitatetik kanpoko hainbat herritan sortzen genituen taldeak (Karrantzan, Sopuertan, Gordexolan...), baina gerora hiru herri nagusienetara mugatu behar izan dugu gure lana; izan ere, HABEk urte horietan politika aldaketa nabarmena egin zuen eta lanpostu batzuk amortizatzeaz gain, bakarrik neurriraketa barruko taldeak laguntzen zituen diruz. Hori dela eta, eskaria egonda ere, uko egin behar izan diegu sarritan talde berriei.

Euskaltegiak, sortu berritan, irakasle mugimendu handia izan zuen. Udal euskaltegien fenomeno berria zen eta ia udal guztiek sortzen zuten bat. Apurka-apurka, berriz, egoera finkatzen joan zen eta azken 18-20 urteetan irakasleriaren hezurdura berbera izan da. Horrek egonkortasuna eta nortasun propioa eman dio euskaltegiari.

27 urte ez dira ezer hizkuntza baten bizitzan, baina tarte horretan

Enkarterrin bizi izandako aldaketa oso nabarmena izan da. Hasiera batean gurera etortzen ziren ikasleek oso ezaugarri definituak zituzten. Beheko urratsetako ikasleak ziren gehien-gehienak. Asko hutsetik hasten ziren eta besteek eskolan ikasitako apurra zuten oinarri. Goiko urratsetan apenas zegoen talderik. Urteak joan ahala, goiko urratsak ere potolotzen joan ziren. Dena dela, bitxia da euskaltegiko irakasle guztiok gogoratzen ditugu EGA atera zuten lehenengo bi ikasleak Aide Amarikak 1995ean eta hurrengo urtean Asier Otxoak.

Orduan euskaltegira zetorren ikaslea hizkuntza ikasi nahi zuelako zetorren. Ez zegoen hizkuntza eskakizunik (1992 inguruan hasi ziren) edo antzekorik. Jakinminagatik eta euskaltzaletasunagatik etortzen ziren gehienak. Motibazio hori gerora aldatzen joan da eta gaur egun, hala adierazten digute kurtso hasierako galdetegiekin (ikus 1. eranskina) eta eguneroko lanak, hiru arrazoi nagusirengatik datoz euskaltegira: titulua ateratzeagatik, lanerako behar dutelako edo behar izango dutelako, eta seme-alabekin erabili ahal izateko. Sarritan arrazoi bat baino gehiago izango dituzte eta askotan prozesuan zehar motibazio horiek aldatzen joango dira, baina garrantziaren arabera hiru horiek dira; hurrenez hurren, nagusienak.

Pá

Beraz, gizartea bera aldatu den heinean ikasle tipologia ere bai. Hau ez dago txarto, baina zer pentsatua ere ematen digu. Duela 25 urteko ikasleen maila eskasagoa zen, eta hala ere, euskaraz aritzeko egiten zuten ahalegina ikaragarria izaten zen. Gaur egun, berriz, askoz gehiagotan entzuten ditugu gaztelaniaz euren artean, baita goiko urratsetan ere.

Hasieran EGAdunak tantaka ateratzen baziren ere, gaur egun askok lortzen dute B-2 maila (sarritan hau da lan askotarako eskatzen zaien gehiena) edo C-1 maila. 2011-2012 ikasturtean, esaterako, 37 ikaslek gainditu zuten HABEren B-1 maila, 32k B-2 eta 15k C-1. Hauei gurekin ikasi eta hizkuntza eskolako, IVAPeko edo Osakidetza azterketak gainditu dituztenak gehitu behar dizkiegu. Guztira, beraz, 100 lagunetik gora izango dira, eta hau asko da Enkarterrirako.

Baina, esan bezala, susmoa dugu akademia antzeko zerbait ez ote garen bihurtzen ari, eta hori baino zer edo zer gehiago izan behar dugulakoan gaude.

"Titulitis" hau nolabait sortu egin dugu. Adibide garbia HABEk deitzen dituen egiaztatze-mailetan daukagu. Azterketariak dagokion maila gaindituz gero, diruz saritzen dute aurreko ikasturteko matrikularen zenbatekoa edo parte bat bueltatuz. Jakina, horrek ikasleei azterketa eginarazten die. Horrela emaitza bakarrik neurtzen da eta ez prozesua.

Gure ustean euskaltegiek prestijioa berreskuratu behar dute. Egiten duten lana sarritan ez da gizartera heltzen. HABEko zuzendaria den Joseba Erkiziaren beraren hitzak dira: (www.gazteaukera.euskadi.net)

"...euskaltegietan egiten ari den lanaren errekonozimendu sozial handiagoa sustatu beharko genukeela uste dut, alde askotan gainera. Errekonoizimendu sozial orokorra eta baita ere ofiziala, egiaztagirien bitartez eta abar."

Tituluak ondo daude, baina hori baino gehiago eskaintzen dugu; euskal kultura, sentimenduak, hizkuntzarekiko konpromisoa... Hala izan da orain arte eta hala izaten jarraitu behar du. Horretarako behar-beharrezkoa da langileriaren prestakuntza eta balorazioa. Egun oraindik nahikoa da euskaltegi baten irakasle aritzeko edozein diplomaturaren jabe eta C-1duna izatea, eta horrek ez luke horrela izan behar. Euskararen aldeko militantismoak behera egiten duen neurrian, benetako profesionalak behar ditugu, gure herriko hizkuntza bere osotasunean irakas dezaten.

Jakina, lanak erakargarria izan behar du, eta ezin da bihurtu ikasketak amaitu eta irakaskuntzan sartu bitarteko urrats soila, esperientzia hartzen joatekoa, edota ikasketekin bateratzekoa. Ez horixe! Euskal Herrian euskara irakasle edonor izan daitekeela dirudi eta hori aldatu beharra dago.

6. KEZKAK ETA ARAZOAK

Aipatuak ditugu dagoeneko zeintzuk diren gure kezka eta arazo nagusiak; batetik, gero eta ikasle gutxiago etortzen zaizkigula; eta bestetik, euskara maila txukuna lortzen duen ikasleak, urte batzuen buruan atzeraka egiten duela.

Gero eta ikasle gutxiago datorrela euskaltegiara gauza jakina da. Euskal Autonomia Erkidegoan 1986-1987 ikasturtean 45.974 ikasle izatetik 2011-2012 ikasturtean 35.132 izatera igaro gara (beheranzko joera; batez ere, 1995-1996 ikasturtetik aurrera hasi zen). Tarte luze horretan izan dira unean uneko igoerak ere, gehienetan oposizioek edo EPE-ek (Osakidetza, IVAP...) eragindakoak batik bat.

Iñaki Unibasok, HABEko Bizkaiko ikuskatzaileak, joan den urrian igorritako datuak ere argigarriak dira esandakoa indartzeko. Datuok Bizkaiko euskaltegiei dagozkie eta azken hamar ikasturteetakoak dira:

Azken hamar urteetako urriko datuak

Ikasturteak	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13
Orduak	128.645	125.705	129.029	123.578	124.314	132.048	135.934	127.890	117.418	111.418
Ikasleak	4.469	4.846	4.934	4.790	4.856	5.594	5.575	5.163	4.830	4.418

Taldeak	350	365	362	347	341	354	365	345	343	335
Talde-ratioa	12,35	12,73	13,00	12,25	12,63	13,17	12,77	12,59	12,13	11,73

Urtez urteko bilakaera aurreko urteko datua oinarri hartuta

Ikasturteak	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13
Orduak	%0,0	%-2,3	%2,6	%-4,2	%0,6	%6,2	%2,9	%-5,9	%-8,2	%-1,7
Ikasleak	%0,0	%8,4	%1,8	%-2,9	%1,4	%15,2	%-0,3	%-7,4	%-6,4	%-9,1
Taldeak	%0,0	%4,3	%-0,8	%-4,1	%-1,7	%3,8	%3,1	%-5,5	%-0,6	%-2,3
Talde-ratioa	%0,0	%3,1	%2,1	%-5,8	%3,1	%4,3	%-3	%-1,4	%-3,7	%-3,3

Gurera etorrira hona hemen azken bost ikasturteetako uztailleko datuak:

Ikasturteak	2007-08	2008-09	2009-10	2010-11	2011-12
Irakasleak	12	8	10	9	9
Talde-orduak	4.269	4.500	5.167	4.689	4.730
Ikasle-orduak	57.469	67.578	66.590	63.382	58.760
Ikasleak	271	351	329	292	287
Talde-ratioa	16,9	19,5	15,6	17,1	15,07

Aipagarria da, gure datuetan zein Bizkai osokoetan, 2008-2009 ikasturtean dagoen ikasle gorakada nabarmena. Gorago esan bezala, horretan zerikusi zuzena izan zuen Osakidetzan egin zen oposizioak.

Beraz, goiko datuak ikusita, egin beharreko galdera argia da: Goia jo du helduen euskalduntze alfabetatzeak? Hona hemen erantzuna:

Larrun aldizkarian euskalduntze alfabetatzeko lau partaide eragilek (Pedro Lonbide, Santurtziko Udal Euskaltegiko zuzendaria; Joxerra Olano, IKAKo Sahats euskaltegiko irakaslea; Idoia Goñi, Ilazki euskaltegiko irakaslea; eta Mertxe Mujika, AEK-ko koordinatzaile nagusia) diotenaren arabera, goia jotzekotan sistemak jo du, ikaslegaiak ugari baitira (%50 EAEn eta %80 Nafarroan; Iparraldean?). Hizkuntza politika omen da aldatu beharrekoa; izan ere, duela 30 urteko parametro berberekin ari baikara. Horretarako, lehenik eta behin, Mertxe Mujikak dioen moduan: "HPSk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) legea markatzen du, baina gurekin aritu beharko luke gu garelako ikasleekin lanean ari garenak, kateko azkenekoak." (Larrun, 171).

Gure bigarren kezka nagusia ere, hizkuntzaren ezagutzan atzeraka egitea, ez da nolanahikoa. Ikasle askok euskaltegian ari direnean, euren sentipena adierazten digute. Ez dakite non, norekin erabili euskara gure lau hormetatik kanpo. Aukerak izan badituzte, baina Enkarterriko gizartea gaztelaniaz bizi da. Gainera, euskara hizkuntza markatua da, anormala; hau da, bere aldeko hautua eskatzen du eta sarritan erabiltzaileak nabarmendu egin beharra dauka, esaterako, talde batean bizpahiru euskaldun daudenean eta batek ez dakienenean, zer egin? Euskaldun "peto", "kontzientziatu" eta "militanteok" ere sarritan zalantzaz inguratuta bizi gara. Ba, zer esanik ez, "euskaldun berri", "lotsati" eta ingurune erdaldunean bizi diren hauek. Honi gaineratu behar diogu, aurreko atal baten azaldu dugun bezala, askok motibazio instrumentalez baino ez dutela ikasten; beraz, erabiltzeko aparteko interesik gabe.

Ikasleak gurekin dabiltzan bitartean, ez dago arazorik astean 10bat ordu euskaraz ematen dituzte-eta, baina ikasprozesua uztean, zer gertatzen zaie?

Orduan komeriak!

Gure susmoa baieztatzeko, maila altua lortutako (C-1) hainbat ikasle ohirekin kontaktatu dugu. Batzuekin telefonoz egin dugu berba, beste batzuekin e-maila erabili dugu, eta hirugarren multzo batekin aurrez aurreko elkarrizketa egin dugu. Zintzo jokatzeari nahi genuen eta horretarako ahalik eta modu lasai eta naturalenean planteatu dugu informazio batzea. Kontuan izan behar dugu gurekin duten konfiantza ere handia dela eta hori dela eta uste dut lortu dugula. Galdekatuen artean era guztietako errealitateak ikusi ditugu.

Badaude batzuk ezagutzari eutsi diotenak, lanean erabiltzen dutelako (irakasleak, herri euskaldunetako langileak, Gazte-Zentroko langilea...), edota lortu dutelako euren egunerokoan euskara integratzea (unibertsitatea, Berbalaguna, familia euskalduna...).

Baina gehienek aitortu digute euskaltegitik atera zirenean baino okerrago moldatzen direla euskaraz. Atzeraka egin omen dute, ez omen dakite non erabili, epaituak eta aztertutako sentitzen omen dira etengabe...

Pá

Azken baten, aldez aurretik uste genuena baieztatu digute; izan ere, urteetan zehar hauetako ikasle nahikotxo berriro matrikulatu da euskaltegian lehen zuen maila berreskuratu nahi zuelako.

Arazoa, beraz, larria da, zeren eta ezagutza galera hori oso lotua baitago

erabiltzeko zailtasunarekin edo konplexuekin. Hona hemen zer dioen Kike Amonarrizek: "Azken hamarkadetan euskarak Tolosaldean, eta bereziki erdaldunagoa zen Tolosan, aurrerapen nabarmena egin badu ere, erabilpenari begira lan handia dugu oraindik ere egiteko" (Amonarriz, K., *Berria* 2013ko martxoaren 15a). Hori non eta Tolosan gertatzen bada, zer esanik ez gurea bezalako eskualde erdaldunean.

Aipatutako kezka eta arazo hauek nolabait justifikatzen dituzten arrazoi desberdinak izan ditzakegu. Gure ustean garrantzitsuenak direnak bi multzotan banatu ditugu: batetik, arrazoi edo datu objektiboak; bestetik, subjektiboak.

6.1. FAKTORE OBJEKTIBOAK

Datuon bitartez, batez ere, azken urteotan zergatik urreratzen diren ikasle gutxiago euskaltegietara azaltzen saiatuko gara. Bi multzo nagusitan banatuko ditugu: batetik, kausa objektibo intrinsekoak edo mikroak; eta bestetik estrinsekoak edo makroak.

6.1.1. *ARRAZOI OBJEKTIBO MIKROAK*

1- **DIRUA**: euskara ikastea garestia da. Gurean, esaterako, 330 orduko moduluak (10 ordu astean) 480 euro balio du (euskalategi homologatuetan edo AEK-n are garestiagoa da). Kontuan izan behar dugu ikasle askok, batez beste, lauzpabost ikasturte egiten dutela euskaltegian; beraz, askorentzat bada dirua. Gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoa dela eta (Enkarterrin bereziki latza), nabaritu dugu ikaslegai asko galdu egiten ditugula. Matrikulazio garaian urreratzen dira, baina prezioa jakitean atzera egiten dute.

Adibide garbia duela hiru ikasturte gertatutakoa. Balmasedan Zubi Zaharra Ikastola eta Mendia Herri Eskolako 400-500 gurasok agertu zuten euskara

ikasteko gogoia. Euskaltegitik ahalegindu ginen eskaera horri erantzuten (eurek ahal zuten ordutegian eskolak eskaini, mailaketa probak egin...). Kontua da taldeak egiteko orduan hamar bat ikaslek baino ez zutela izena eman. Egoera hau azaltzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke; besteak beste, guk aztertuko ditugunak; baina haietariko askok esandakoaren arabera, diruarena ere garrantzitsua izan zen.

Mankomunitateak berak badu beka sistema bat, baina nahiko baldintza zorrotzak ditu. Batetik, ikasleak %90eko asistentzia izan behar du; bestetik, urratsa gainditu behar du. Baldintza biak betetzekotan, hurrengo ikasturteko matrikulan erdia baino ez du ordaindu beharko. Dena dela, ikasle fin asko aukera barik geratzen dira, eskatutako asistentzia benetan altua baita edota, lan gogor egin arren, ez baitute maila lortzen.

Bestalde, azken ikasturteetan BBK finantza-entitateak ikasleei matrikularen kostua hainbat hilabetetan ordaintzeko aukera ematen zien interes baxu bat ordainduta. Bada, hau ere aldatu da. Aurtengo baldintzak oso bestelakoak dira, ordaindu beharreko interesak oso altuak dira-eta. Hain altuak, ezen ia matrikula bikoizten zaien. Beraz, beste traba bat.

HABEren azterketa deialdietan ere orain arte, azterketa gaindituz gero, dirulaguntza izaten zuten. Neurri baten kritikatzeko modukoa zen, azterketara joaten ez zen ikaslea (oraindik egon badaude, beste barik ikasi nahi dutenak eta inongo egiaztatze titulurik nahi ez dutenak) dirulaguntzarik gabe geratzen zen-eta. Iazko ikasturtean (2011-2012) dirulaguntza hori bertan behera laga zuten, egoera are kaskarragoa bihurtuz. Aurten, aldiz, berriro jarri dituzte indarrean. Nahaste-borraste honek guztiak ziurtasun eza eta mesfidantza eragiten die ikasleei; izan ere, unean uneko agintariak

edo zuzendariak erabakitzen duenaren mende egon behar baitute.

Diruaren kontu hau are mingarriagoa da, hurrengo gogoratzen badugu. Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizial bi ditugu. Gaztelania ia doan ikas dezake ez dakienak; izan ere, matrikula sinbolikoa baino ez du ordaindu behar edozein CEPA-tan. Euskararekin, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Administrazio publikoko langileak (batzuk baino ez eta horiei ere gero eta baldintza gogorragoak jartzen dizkiete) eta enpresa pribatu gutxi batzuk kenduta, gainontzekoek ordaindu egin behar dute eskubidez euren den hizkuntza ikastearren.

2- **EUSKALTEGIAREN NEURRIRAKETA:** Euskaltegiak 27 urtetan aldaketak izan ditu bere neurriraketan. Hasiera baten zazpi irakasle izendun ginen, horietako bat zuzendaria zen eta beste bat idazkari akademikoa. Zuzendariak eta idazkari akademikoak ordu lektiboen erdia ematen zuten. Idazkari akademikoaren figura udal euskaltegi batzuek baino ez dute eta guri aitortu baziguten euskaltegiaren berezitasunak kontuan izan zituztelako izan zen; hainbat herritan aritu beharra, irakasleen arteko koordinazio zaila... Besteak beste, horiek ziren idazkari akademikoak erraztu behar zituen zailtasunak. Dena dela, 1996an, beste hainbat euskaltegitan bezalaxe, HABEk irakasle izendun baten plaza amortizatu eta idazkari akademikoaren figura kendu egin zuen. Hortik aurrera sei irakasle izendun gara eta eurentako bat zuzendaria.

Honek guztiak eragin nabarmena izan zuen; izan ere, ahulduta atera ginen. Talde gutxiago sor genitzakeen eta herri desberdinetan sortzen ziren taldeen arteko koordinazioa ere kaskarragoa zen.

Bestalde, sarritan neurriraketatik gorako taldeak sortu ditugu eta diruz lagundu ditu HABEk edo Mankomunitateak. Azken urteetan, berriz, arazoak izan ditugu talde horiei eusteko eta behin baino gehiagotan bertan behera utzi behar izan ditugu, dirulaguntzarik izan ez dutelako. Erraz esaten da, ikasleak ikastera etorri eta kanpoan utzi behar.

Adibide latza, ikasturte honetan (2012-2013) izan dugu. Urriaren hasieran iazko talde kopuru berbera sortu genuen, eta nahiz eta aurreko ikasturtean diruz lagundu zituzten, aurten ezin omen zen. Behin eskolak hasita, hiru talde galtzekotan izan ginen. Zorionez, azkenean konpondu ahal izan genuen arazoa. Baina ikasle horien ikasketa prozesua eta euskaltegiaren irudia eta prestijioa kolokan egon ziren.

3- EUSKALTEGIAREN RATIOA: ratioari dagokionez ere badugu zer esana. HABE-k, biztanleen arabera, gutxieneko bat eskatzen digu euskaltegioi taldeak sortzeko. Gurean, gutxienez, zazpi ikasle behar ditugu ikasturte hasieran taldea martxan jartzeko. Esperientziak erakusten digu hilabeteek aurrera egin ahala aldaketa ugari izaten dituztela taldeok; izan ere, ikasle nahikotxo etortzen dira azterketa deialdiren bat hurreratzen denean edota, besterik gabe, arrazoi desberdinak direla medio urtean zehar ematen dute izena. Kontua da zazpiko gutxieneko hori ikasturte hasieran bete behar dugula, eta heldu ezean taldea bertan behera geratzen da, balizko ikasleak aukera barik utziz.

Malguago jokatu beharko luke HABE-k datekin eta ikasle kopuruarekin. Hizkuntza ikastea ez da matematika eta unean uneko beharritzanez erantzuteko moduko eskaintza egin beharko luke, gutxiago begiratuta ordu edo ikasle kopuruari.

4- **MODULU ZURRUNAK**: ratioan esandakoaren haritik, modulugintza ere malgutu beharra dagoela uste dugu, ezer gutxi aldatu baita azken 30 urteetan. HABE-k euskaltegioi eskatzen dizkign ordu lektiboak bete ahal izateko nagusi den ikastaro mota astean 10 ordukoa da, eta gaur egun zaila egiten zaie ikasleei hainbeste ordu etortzea. Moduluek pertsonalizatuagoak izan beharko lukete, irakasleok gutxieneko eta gehienezko ordu tarte baten mugituz, horrela hobeto erantzungo genioke gizartearen eskaerari.

5- **47/2012 DEKRETUA**, *apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena*: 2012an aprobatutako dekretuak ere ez digu mesederik ekarri. Dekretu horrek dioenez, hezkuntzako B edo D ereduan ikasten duten ikasleak, euskaraz emandako ordu kopuruaren arabera, euskara egiaztagiria ateratzetik salbuetsita daude. DBH amaitzean B-1 izango lukete, Batxillergoa egitean B-2 eta unibertsitateko ikasketak amaitzean C-1.

Itxura baten zentzuzko neurria dirudi, baina eguneroko eskarmentuak kontrakoa erakusten digu. Institutuetako ikasleak etortzen zaizkigunean, era guztietako egoerak ikusten ditugu; baina, tamalez, asko dira gaitasun nahikoa erakusten ez dutenak. Hala ere, dekretuz denak euskaldundu dituzte.

Hemen eztabaida sakonagoa litzateke. Jakin badakigu eskolak azken 30 urteetan lan eskerga egin duela ikasleria euskalduntzeko, baina faktore gehiago ere badaude; esate baterako, eskola zein gune soziolinguistikotan dagoen kontuan hartzea, edota eskolan urteko egunen erdia baino gutxiago ematen dutela, eta denbora tarte horretako gehien-gehiena entzuten edo

irakurtzen aritzen direla; beraz, zaila da trebetasun guztiak modu orekatuan garatzea.

Beraz, gure uste apalean, horrelako neurriei populismo kutsua darie eta behar beste aztertu barik hartutakoak dira. Tokian tokiko egoerak aztertu beharko lirateke eta horren arabera neurriak hartu.

6- ESKUALDEKO EUSKALTEGIEN ETA HIZKUNTZA ESKOLAREN

ARTEKO PLANGINTZA FALTA: gure eskualdean une honetan hiru euskaltegi ari gara lanean: udal euskaltegia, Zallako AEK eta, sortu berria den eta Zallako AEKren menpe dagoen Gordexolako euskaltegia. Euskaltegiez gain, duela sei-zazpi urte martxan hasitako Zallako Hizkuntza Eskola ere hor daukagu.

Hizkuntza eskolarena adibide egokia da gertatzen dena islatzeko. Zallako udalak sortu zuen; beste hizkuntza batzuekin batera euskara ere irakasten dute; euskara zerbitzu hori beteta zuen ordura arte ere udal euskaltegiaren bitartez; hala ere, guk ezer jakin barik, eta inolako aurreikuspen edo merkatu ikerketa barik aurrera jarraitu zuten. Horren guztiaren ondorioa nabaria da. Irailean ikasle askok hizkuntza eskolaren aldeko hautua egiten dute (merkeagoa, ordu gutxiago...) horrek taldeak osatzeko dakarkigun kaltearekin. Hala ere, kurtsoak aurrera egin ahala, horietako askok gurean ere ematen dute izena "kaña" gehiago nahi dutelako edo hangoa ez dela nahikoa ikusten dutelako. Esanak esan, argi geratu da zentzugabekeria: nagusi bera duten bi zerbitzu elkarri mokoka.

Pá

Itxura baten eskaintza zabala izateak onura lekarkioke euskarari, baina benetan ez da horrela gertatzen; aitzitik, ikasle kopuru jakin batera heldu

behar izateak, elkarrekiko konpententzia baino ez dakar eta behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu, zatiketa horren ondorioz, ez bata ez besteak ezin lortu izatea taldea aurrera ateratzea. Beraz, ardura eta boterea duenak (HABE, udalak, Eusko Jaurlaritza, EUEDEL...) egoeraren azterketa egin beharko luke eta beharrezkoa den plangintza egin; hau da, hainbestetan predikatzen dutena: diagnosia, plana, egikaritza, ondorioak ateratzea.

7- AISA (ETORKINAK EUSKALDUNTZEKO PROGRAMA): etorkinak gero eta gehiago dira gure gizartean eta jakin badakigu horien lehentasuna hizkuntzari dagokionez, gaztelania dela. Hala ere, ahalegin berezia egin beharra dago horiek ere euskarara ekartzeko, beraiena ere badela ikusarazi behar diegu eta herri honen parte errazago izango direla euskararen jabe egiten badira. Balmasedan, esate baterako, seme-alabengatik ikasten dute gehien-gehienek.

Horretarako dago pentsatuta AISA programa. Baina, zoritxarrez, ez du espero zuten arrakasta izan. Arrazoietakoa bat, oraingoan ere, dirua da; izan ere, 120 ordu baino ez zaie ordaintzen. Denbora hau nahikoa izan daiteke euskarara arrimatzeko eta nolabait gustua hartzeko, baina hori hasiera baino ez da. Hortik aurrera bidea urratzen jarraitu beharra dago, eta eurek ordaindu behar badute, jai daukagu. Ezerezean geratuko dira, kasurik gehien-gehienetan, hor sartutako dirua, denbora eta ahaleginak. Gaur egun, gainera, on-line ikasteko aukera baino ez zaie eskaintzen eta jakin badakigu irakaslea aurrean ez izateak prozesua are gehiago luzatu eta zaildu egiten duela. Hortaz, ez dirudi gurera erakartzeko biderik egokiena.

8- AZKEN BOLADAKO EGOERA; EZIN LANGILERIK KONTRATATU:
Azken urtean bizi dugun egoera ere benetan kaltegarria da guretzat eta,

batez ere, ikasleentzat. RAJOIren dekretuaren ondorioz, langileren bat gaixotzen denean, zuzendariak bileraren bat duenean, HABEko azterketa deialdietako aztertartzaileek bateratze-saioren bat edo birzuzenketa saioen bat dutenean, euskaltegiak ezin du ordezeko inor hartu. Geure artean "konpondu" behar dugu. Erraza da esaten, baina zailagoa egiten. Esaterako, administraria egon ezean, irakasleok egin behar ditugu bere lanak (asko eta asko berriak dira guretzat eta denbora dezente behar dugu horretarako). Irakasleren bat falta izanez gero, lankide batek hartu behar ditu horren ikasleak (sarritan maila desberdinekoak dira, ikasle larregi dira gela batean sartzeko...).

Eginahalak egiten ditugu egoera honek eskolen kalitatean eta jasotzen duten zerbitzuan ahalik eta eragin txikiena izan dezan, baina ez da erraza eta ezinbestean, neurri baten edo bestean, kaltea hor dago.

6.1.2. ARRAZOI OBJEKTIBO MAKROAK

Atal honetan egunerokotik urrunago geratzen zaizkigun faktoreak aztertuko ditugu; baina, zalantza barik, zuzen-zuzen eragiten diotenak gure jardunari.

Pá

1-ABIAPUNTU ENGAINAGARRIA: Ierroburu hau aukeratu dugu Euskal Herrian legeak euskarari jartzen dizkion trabak irudikatzeko. Jakin badakigu Ipar Euskal Herrian euskarak ez duela inolako babes juridikorik, eta Nafarroan hiru errealitate islatzen dituela "La ley del vascuence" famatuak, beste horrenbeste eremutarako (eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu

erdalduna). EAEan, berriz, egoera juridikoa ez da hain larria; are gehiago, askok ona ere badela esango dute, baina kontuz! Hori ez da egia eta. EAEan hizkuntza ofizial bi ditugu, baina ez daude parean; batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua hau dio: Euskarak hizkuntza ofizialaren maila izango du gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Bestetik, Espainiako Konstituzioaren 3.1 artikulua gaztelania Estatuko hizkuntza ofiziala dela ezarri zuen, eta herritar guztiek hura ezagutu **beharra** eta erabiltzeko eskubidea dutela dio.

Faltsua da, beraz, bi hizkuntzen arteko berdintasuna eta, horrenbestez, herritarrena. Bi herritar mota bereizten ditu legediak: batzuk elebakar gaztelaniadunak izateko eskubidea dutenak, eta besteak legez elebidunak izatera behartuta daudenak.

Aditu askok aipatzen dute norberaren legeak izatearen garrantzia hizkuntzaren biziraupenerako, bestela esanda, estatu propioa izatea. Hona hemen batzuek esandakoak:

Pá

"(...) irauteko, hizkuntza eta kultura guztiek behar dute babestuko dituen estatu bat. Katalanaren, galizieraren eta euskararen kasuan, izan zitekeen Espainiako Estatua. Baina aspalditik erakutsi du ez duela horretarako borondaterik." (Villatoro, V., Ramon Llull institutuko zuzendaria, *Berria* 2013ko urtarrilaren 8.a: 10)

"(...) Gure herria euskalduntzeko bi zutabe dira oinarritzeko: batetik, banakoak euskalduntzea eta, bestetik, espazioak euskalduntzeari begira, eremu sozioekonomikoan eta aisialdian zentratu beharko liratekeelakoan nago, eta horretarako corpus juridiko egokia -egun ez dugu-, plangintza zehatzak eta baliabide egokiak, eta zuzen kudeatuak." (Bilbao, P., Kontseiluko idazkari nagusia, *Berria* 2012ko azaroaren: 18)

"(...) Estatuak eskaintzen ditu kultur tresna batzuk (...) gizarte bat sortzeko eta birsortzeko. (...) Estatua ez da botere politiko hutsa, gizarte eredu bat sortzeko ahalmena dauka." (Larrinaga, A., Soziologiako irakaslea, *Berria* 2013ko apirilaren 13a: 31)

"(...) Baina katalanek eta euskaldunek argi izan behar dugu estatu propio bat edo estatu aproposa izan beharko dugula gure hizkuntzek iraun dezaten." (Vila, X., Hizkuntzalaritzako doktorea, *Berria* 2013ko otsailaren 1a: 9)

2- EUSKARAREN PRESTIJIO FALTA EDO BERE BEHARRIK EZ IZATEA:

euskarak prestijioa galdu du euskal gizartean eta horren errua, neurri handi batean, agintariek dute. Adibideak asko dira. Hona hemen batzuk argi-argiak:

- Administrazioak ez du bermatzen herritarrok euskaraz aritzeko dugun eskubidea. Badakigu ez dela erraza, baina urteak aurrera doaz, gazte jendea askoz euskaldunagoa da eta, hala ere, egoera salagarriak sarri ikusten ditugu.

Hona hemen esaterako, UEMako Zuzendaritza batzordeko Jon Bollarrek idatzitakoa:

"Eusko Jaurlaritzak beste traba bat jarri du euskaraz bizi nahi dugunontzat. (...) administrazioarako azken lan eskaintza publikoan euskaraz jakiteko betekizuna murriztu du berriro ere (...) lehen baino zailagoa izango da (...) guri euskaraz egitea edo/eta agiriak euskaraz idaztea." (Bollar, J., *Gara*, 2010eko maiatzaren 2a)

Bestalde, Osakidetza azken oposizioetan euskarari nabarmen jaitsi zioten balioa meritu puntuazioetan. Profesional onak behar omen dira; hau da, mediku edo erizain abilak euskaraz jakin edo ez jakin. Agintarien euren ahotan entzun genituen honelakoak: "Zer nahiago duzu, euskaraz ondo hitz egiten duen medikua ala ebakuntzak ondo egiten dituen?" Badirudi ondo sendatu eta euskaraz egitea bateraezinak direla. Tamalgarria eta lotsagarria!

-EHUn ere, antza, ez dute balio bera euskarak, gaztelaniak eta ingelesak. Euskaraz argitaratzeak ez omen du inongo punturik ematen; bai, ordea, beste bi hizkuntzetan ⁶.

Honelako eta antzeko jarrera eta erabakiekin zabaltzen ari garen mezua da herritarrak ez duela euskara behar. Paul Bilbaok dioen moduan,

⁶ Ikus. *Argia*, 2013/III/17, *Aukeratu: euskara edo ospea*: 40-41.

"(...) ez dago euskara ikasteko beharrik . Zein motibazio izan dezake pertsona batek euskara ikasteko? (...) ingelesa ikasi behar duzu, zeren hemendik gutxira alde egin beharko duzu herri honetatik. (...) Guk kontrako diskurtsoa egin beharko genuke: zure semeak edo alabak euskara ikasten badu eta euskalduna bada, aukera gehiago izango ditu Euskal Herrian geratzeko." (Bilbao, P., *Argia*, 2012ko abenduaren 30a: 45)

7. IZENA DUEN ORO BADA (PROFEZIA AUTOBETEAK):

Soziologian badago arau edo lege bat honako hau dioena: zerbait errealtzat jotzen badugu, hori erreala izaten da bere ondorioetan.

Soziologoek Thomasen teorema izena eman diote fenomeno horri, eta funtsean honelaxe esplikatzen dute:

"Si los individuos definen las situaciones como reales, son reales en sus consecuencias (...) los hombres responden no sólo a los rasgos objetivos de una situación, sino también, y a veces primordialmente, al sentido que la situación tiene para ellos. Y así (...) su conducta consiguiente, y algunas de las consecuencias de esa conducta son determinadas por el sentido atribuido."
(Merton, 1964:61).

Hau da, ideia batek, nahiz eta gezurra izan, egia balitz bezala "funtzionatzen" duela, hala dela planteatzen dugunean.

Teorema hori argitzeko aipatu ohi den adibidea da harako banketxe harena: likidotasunik ez zeukalako zurrumurrua zabaldu, eta jendeak beldurrez bere dirua atera zuen bertatik. Horrela, bada, egia ez zena (diru faltarena, hain zuzen) egia bihurtu zen bakar-bakarrik jendeak hala sinetsi zuelako. Mertonek dioenez:

"... esto es peculiar a los negocios humanos. No se encuentra en el mundo de la naturaleza, ni tocado por las manos humanas. Las predicciones del regreso del cometa Halley no influyen en su órbita (...) la profecía que se cumple a sí misma es, en el origen una definición falsa de la situación que suscita una conducta nueva, la cual convierte en verdadero el concepto originalmente falso." (Ibidem:62)

Horren ostean zenbait adibide gehiago ematen ditu eta ondorioztatzen du zein izan daitekeen gurpil zoro horretatik irteteko gakoa:

"La aplicación del Teorema de Thomas sugiere también cómo puede romperse el trágico, y con frecuencia vicioso, círculo de las profecías que se cumplen a sí mismas. La definición inicial que puso el círculo en marcha debe ser abandonada (...) Sólo entonces la creencia deja de engendrar a la realidad. " (Ibidem: 62)

Azkenik ere adierazten du profezia horrek: "...funciona sólo en ausencia de controles institucionales deliberados" (Ibidem: 69)

Gure ustez, berriz, teorema hori ez dogokio bakarrik soziologiari. Ez horixe! Bizitzaren arlo askotan eta askotan du eragina: ia unibertsala dela esan daiteke. Eta ez da mugatzen "egia vs gezurra" parametrora. Mertonek esaten duenean naturan ez dagoela halakorik ahazten du ezen,

"...si bien es posible afirmar que el hombre posee una naturaleza, es más significativo decir que el hombre construye su propia naturaleza o, más sencillamente, que el hombre se produce a sí mismo." (Berger eta Luckmann, 2001: 69)

Beraz, soziologo horiek eta beste zenbait adituk diotenaz bestera, profezia autobeteak ez dira mugatzen "...a los ámbitos donde intervienen las emociones o las espérctativas" (Romera, J.M., *El Correo*, 2007ko azaroaren 16a: 96). Ez, bada! Zientzia ere (batez ere, gizarte-zientzietan eta bai, neurri txikiagoan (?), "zehatzetan") ikaragarritzko eragina dauka Thomasen Teoremak, hainbestekoa non zientifikoki ezagutzen duguna eta etorkizunean aurkituko duguna, horren araberrakoa izango den.

Pá

Azken batean zientzia ere ez da neutrala. Gizakiok sortutako konstruktoak dira, eta, horregatik ez dago emozio, itxaropen eta uste edo sinesmenetatik kanpo. Baina, gatozen harira eta eman ditzagun zenbait adibide non profeziaren fenomeno argi ikusten den, soziologiaz gaindiko zenbait arlotan.

Esaterako, Medikuntzan oso ezaguna da "Plazebo" efektua: nahikoa da gaixoak sinestea botika irensten ari dela, egiazko eragina izateko. Hau da,

dena delako gaixo horrek, nahiz eta hartu duen sendagaia faltsua izan, benetakotzat ematen duenez gero, ondorio positiboak izango ditu sineste hutsagatik. Batzuek diote "Plazeboa" dela frogatu daitekeen fenomeno paranormal bakarra. Baina, hala izanda ere, argi dago oso ohikoa eta zabaldua dagoela mundu osoan, halako moldez, non gaur egun ezinezkoa den sendagai bat merkaturatzea, plazeboaren inguruko frogak egin gabe.

Profeziaren fenomenoak ere alderantzizko norabidea har dezake. Alegia, errealtzat jotzen ez dena, ez da erreala izango bere ondorioetan. Edo, beste era batera esateko, esaten edo planteatzen ez dena ez da existitzen, nonbait.

Medikuntzaren eremutik irten gabe aipatuko dugu, adibide gisa, Berriak⁷ argitaratutako zenbait artikulua horren ingurukoak. Bertan, laburbilduz, zera adierazten da: gizonen gaixotasunak aztertuz eratu dela Medikuntza. Eta, ondorioz, zientziak ikusiezin egin duela emakumeen osasuna, ez baititu ikertu haren sintomak, arrisku faktoreak eta eritasunaren bilakaera.

Bide beretik jotzen du Maria Jesús Balbás adituak Argia aldizkarian dioenean, emakume askok deskribaturiko sintomak ez direla aintzat hartzen:

Pá

'Ez dira gaixotasun serioak, ez du ardura gaizki sentitzen badira. Berez, bai, generoak, beste edozein jardueratan bezala, dena baldintzatzen du Medikuntzan ere: gaixotzeko modua, sendatzeko modua, gaixoak artatzeko modua...' (*Argia*, 2010eko

⁷ Berria egunkariak erreportaia sorta bat plazaratu zuen honen guztiaren harian: "Osasuna eta generoa, medikuntza-gizonak gizonentzat", 2012ko abuztuaren 28a eta hurrengo egunak

azaroaren 14a: 14)

Psikologia eta Hezkuntza arloan ere ezaguna da "profeziaren" indarra, nahiz eta beste izen bat ematen zaion: "Pigmalion efektua".

Hainbat psikologok eta pedagogok egin dituzte ikerketa asko, eta ondorioa garbia da: nahikoa da esatea (edo konbentzitzea edo, agian hobeto, engainatzea) ikasle batzuek gaitasun berezi eta apartekoak dituztela, euren errendimendu didaktikoa areagotzeko⁸.

Eta hemen ere, alderantziz gerta daitezke kontuak, baldin eta behin eta berriz errepikatzen bazaio ikasle bati ezgauza hutsa dela. Zeren, "badirudi aski bidezkoa dela pentsatzea hizkuntza ikastean pot egingo duela uste duenak aukera dextente izango dituela pot egiteko" (Perales, 2003:34) Baina hor arazoa ez da soilik ikasle gaixo horrek sinestea eta, horren ondorioz, pentsatzea alferrikakoa dela egin dezakeen ahalegin guztia, eta, horrenbestez, ez egitea. Arazoa ere irakaslearen jokaeratik dator:

Pá

"Hainbat azterlanetan azaldu denez, irakasleen jokabidea ikasgelan ikasleengandik espero dutenaren arabera izaten da (...) Esaterako, zenbait irakaslek denbora gehiago eskaintzen diete, beren ustez, besteak baino ikasle hobeak direnei."
(Ibidem: 34)

⁸

ikus www.educarueca.org

Hau da, harako hark zioen bezala, "llegamos a ser lo que otros nos consideran".

Ekonomian, zer esanik ez, iragarpenek sekulako indar autoprofetikoa dute. Bestela begira zer pasatu zen duela gutxi Europako krisi ekonomikoaren harian: "Europako Banku Zentraleko presidenteak zehaztu gabeko ekintzak prometitzeak 50 puntu jaitsi ditu arrisku sariak" (*Berria*, 2012ko uztailaren 27a: 12)

Baina hori, baten batek pentsa dezakeenaren kontrara, ez da kasualitate hutsa, baizik eta ekonomiaren "legeetan" dagoen aldagai nagusietako bat. Adibidez, Milton Friedman-ek, merkatu librearen kapitalismoaren "guru"-ak argi eta garbi adierazi omen zuen: bakar-bakarrik krisi bat, erreal edo pertzibitua, izan daiteke sakoneko aldaketa baten motorra⁹.

Berdin dio, hortaz, zein den errealitatea. Nahikoa da gizarteak edo dena delako giza-talde batek zerbait sinestea erreal bihurtzeko. Areago, susmoa dugu ez ote den errealiterik existitzen gure pertzepzioetik kanpo. Eta pertzepzioa diogunean ez gara ari zentzumenen bidezko sentrazioen hautemate soilaz, ezpada horiek guztiak antolatzen eta interpretatzen dituen planteamendu eta, azken batean, hizkuntzaren hegemonia eta botere erabatekoaz. Bada, "pentsakera kontrolpean dago hizkeraren bitartekotza dela kausa (...) giza-errealitatea parte ukaezin batean "esandako" errealitatea

9

Honetaz

zerbait gehiago jakiteko ikus. KLEIN, Naomi (2007). *La doctrina del shock: El auge del capitalismo del desastre*. Editorial Paidós.

da" (Odriozola, 1998: 80-81)

Ez dago errealitaterik: "Errealitatea eraikuntza bat da, gizakiak bere interesen eta premien arabera eraikitzen duen zerbait" (Arrieta-Urtizberea, 2010: 126). Eta horretarako hizkuntza da ardatza; hizkuntza da mundua antolatzen duena: dagoena eta ez dagoena.

Honetaz guztiaz euskarak badauka esaera zahar bat ezin hobeto adierazten duena errealitatearen auzi hau, eta zenbateko garrantzia duen profezia autobetearen fenomenoak: *izena duen oro bada, edo izena duen orok izana du*. Berdin dio, beraz, (eta adibide moduan diogu hau) Jainkorik ba ote den ala ez; izan ere, badagoela edo ez dagoela pentsatze hutsak bere eragin eta ondorioak dakartza, eta ez nolanahikoak, alajainkoa! (Gogoratu behar ote da 100 birjina dituen paradisua zain duten suizida haien kasua?) Edo, beste adibide bat ipintzearen, ikus dezagun zer gertatzen den Mendebaldeko hizkuntza gehienetan azaltzen den "belar gaiztoak" kontzeptuarekin. Zeren inork gutxik jarriko luke zalantzan (kultura tribal eta "basatiak", eta, azken urteetan, enpresa farmazeutiko handiak alde batera utzita) belar horiek, izan, badirela. Baina hona hemen paradoxa: ikuspuntu biologikotik¹⁰ ez dago inolako arrazoi enpirikorik adierazteko belar gaiztoek ezaugarri bat edo beste daukatenik, hain zuzen, gaiztoak direla frogatzeko:

"... este concepto, al igual que la mayoría de los que empleamos

10

Geroago

ikusiko dugu, gaingiroki bada ere, zertan gauzatzen den profeziaren auzi hau natur zientzietan.

en el lenguaje ordinario, se define de hecho no en función de unas propiedades físicas, sino en términos del uso a que la sociedad destina un grupo de plantas" (Ellis, 1988: 45)¹¹.

Beste hitzetan esateko, kontzeptu hori ez dagokio "errealitate materialari", zeren, berez konbentzionalismo hutsa besterik ez baita; konstruktukultural bat baino ez.

Usteek eta hitzek errealitatea sortzen dute. Hartara, hizkuntzak ez dira mugatzen munduan dagoena deskribatzera, izendatzera, etiketatzen: mundua(k) eraikitzen d(it)u(z)te, nahiz eta mundu horiek guztiak honetan egon:

"...el lenguaje abjetiviza el mundo, transformando el panta rhei de la experiencia en un orden coherente. Al establecer este orden el lenguaje **realiza** un mundo, en el doble sentido de aprehenderlo y producirlo" (Berger eta Luckmann, 2001: 193).

Ikusitakoa ikusita, baten batek pentsa lezake nolabaiteko "Matrix" batean bizi garela, eta fikziozko mundu horretatik irteteko giltza zientziak daukala; zientzia neutrala dela, eta bera dela egia absolutuaren jabe bakarra.

Pá

11

Oso azalpen

polita ematen du John M. Ellis-ek honi buruz liuburu honetan: Teoría de la crítica literaria", Analisis lógico (ikus bibliografía)

Baina, zoritxarrez (?), ez du ematen hala denik, ezta gutxiago ere!¹². Hara zer dioten honetaz Bergerrek eta Luckmannek: "...que no hay pensamiento humano (con las excepciones ya mencionadas) que esté inmune a las influencias ideologizantes de su contenido social" (Berger eta Luckmann, 2001: 24) Eta salbuespen horiek dira matematika eta "... algunas partes al menos, de las ciencias naturales" (Ibidem: 23)

Guk geuk, ordea, uste dugu zientzia modu guztiak ere ez direla neutralak; aurkikuntza zientifiko guztien atzean beti dagoela arrazoi bat, helburu bat zeinak baldintzatzen duen zientziaren izenean urratzen diren bide guztiak. Nolabait esateko, bere norabidea ez dela autonomia. Izan ere, "Azken buruan zientziaren ikerketa-bidea zentzu komunaren ikerketa-bidearen jarraipena edo luzapena edo hobekuntza da." (Arrieta-Urtizberea, 2010: 58) Eta, alde horretatik, zentzu komuna da:

"...lo que en la sociedad se da por establecido como conocimiento (...) y llega a ser simultaneo con lo cognoscible, o en todo caso proporciona la armazón dentro de la cual todo lo que aún no se conoce llegará a conocerse en el futuro" (Berger eta Luckmann, 2001: 89)

Pá

Gainera, zientziaren zeregina beti egiteko zerbait da. Esan nahi baita, berak ezarritako egiak beti behin-behinekoak dira, aldiro osatu edo zuzendu

¹² Mundua ulertzeko bide zientifiko-materialista eta bide poetiko-imaginatiboaz oso hitzaldi argigarriak (Reacciones ante una piedra rayada) eman ditu Bernardo Atxagak azken aldi honetan. Berriak (2011ko urriaren 19a, 38.or.) horren gainera artikulua bat argitaratu zuen.

beharrekoak; ez dira sekula egia absolutuak, unean unekoak baizik¹³; eta "...bere emaitzak zientzilariek adostutako gauzak dira, besterik ez" (Arrieta-Urtizberea, 2010: 125). Horixe da bere patua! Hortaz, egia zein den galdetzeak ez du jadanik zentzurik; horren ordez, zer den erabilgarria galdetu behar da.

Baina hori ez da okerrrena. Txarrena ez da hizkuntzak berak baldintzatzen duela dakiguna eta zentzu komunak jakiteko duguna. Ez. Okerrrena da zientziaren bidea ideologikoa dela; dantza egiten duela boterearen hotsera:

"...ikerlariak behatzen duena eta antzematen duena, bizi den gizartearen (kapitalista eta burgesa) eraginpean dago" (Martínez, Z., Berri-Otxoa, K., Altuna, O., Jausoro, N. (2012). 2.1. Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak: 11. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea). Izan ere, "...zientziaren zerbitzuak ordaintzen eta kontrolatzen dituztenen esku daude" (Ibidem: 12)

Hori horrela izanda ere, beti izaten dira ahalegin pertsonalak, morrontza horretatik libreago edo, ibiltzen diren zientzialariak. Baina hauek ere euren eskema (eurenak ote dira?) eta "profezien esklabo" dira.

Horren harira hara zer dioen Joseba Rios arkeologoak bere lana egiteko moduz:

¹³ "Ningun científico riguroso se atrevería a proclamar siquiera que dos y dos suman cinco sin añadir *a la luz de los conocimientos actuales*." (Luis Algorri, *Tiempo* aldizkaria 2010eko irailaren 10a: 19)

"Orain arte, indusketak sakonera txikian egiten ziren (...) eta ez bazen ezer topatzen, ez zen industen jarraitzen. Izan ere, haientzat aztarna garrantzitsuenak Goi Paleolitikokoak ziren, orduko gizakien eta gaurko euskaldunen artean omen zegoen erlazioa frogatu nahi zutelako. Hori zen Barandiaranen asmoa (...) Baina, gero, beste helburu batzuekin beheko mailak industu ditugunean, ikusi dugu badagoela antzinagoko arrastorik" (*Elhuyar* 293.zenb.: 31)

Ondorioz, esan behar dugu ez dagoela zientziarik atzean mota bateko edo besteko arrazoi, uste, sinesmen, nahi edo helburu zintzoagorik edo zitalagorik ez duenik.

Gurera etorrita, hau da, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, zer esanik ez, asko eta asko dira euskarak aurrera edo atzera egiteko eragiten duten faktore "subjektiboak", zuzen-zuzenean erlasionatuta daudenak zorioneko profeziaren fenomenoarekin; eta horiek aletzen saiatuko gara hurrengo atalean. Baina oraingoz esan dezagun ezin dugula etsia hartu. "La realidad objetiva puede "traducirse" fácilmente en realidad subjetiva, y viceversa" (Berger eta Luckmann, 2001: 170).

Pá

Pentsamendu utopikoak (eta ez hain utopikoak) errealtatea aldatzeko boterea du. Gauzak alda daitezke. Areago, hain errotuta dagoen zentzu komuna ere zeharo eraldatu daiteke; gaur egun inoiz baino azkarrago eta sakonago aldatu ere. Bada, batetik, ondotxo ezagutzen dugu zentzu komun

hori eraldatzeko teknikak¹⁴ zeintzuk diren: zurrumurruetatik hasi eta zientziarainoko bidean (ez ahaztu ezagutza zientifiko eta teorikoa zati bat baizik ez dela, gizarteak, oro har, ezaguntzat hartzen duen "jakituria orokorrean"), mota guztietako lege, manipulazio mediatiko¹⁵, usadio, iritzi, mito... eta, azken batean, era guztietako diskurtso sozialak. Eta, bestetik, argi dugu gure xedea ezin dela izan, inondik inora, egia absolutua topatzea, baizik eta beste "profezia" bat martxan jartzea; alegia, euskara ikasteko eta erabiltzeko dauden zenbait oztopo gainditu eta bide hori, neurri batean, erraztea.

Gure artean, maila diskurtsibo eta subjektibo batean, batez ere, motibazioa landu nahi izan da. Askotan aipatu da hor dagoela koxka: Borondaterik gabe ez dagoela euskara aurrera ateratzerik. Eta egia biribila da. Baina, hala ere, arreta jarri da batik bat motibazio instrumental, identitario,adore-emaile eta metodologikoetan. Inoiz gutxitan, ikastearen edo erabiltzearen inguruan osatu diren diskurtso errepikatu eta etxekalteetan; hau da, uste usteletan.

Halaber, inoiz gutxitan igaro gara mito horiek azaleraztetik deuseztatzerara. Eta are gutxiagotan, gure txarrerako besterik ez diren sinesmen horiek ordezkatzera eta abian jartzera bestelako ideia batzuk beraien lekuan, errealitatea eraldatzeko.

Hori da gure helburua, "kontzeptuak herritarren burmuinean biziko badira

¹⁴ Gai honetan sakontzeko ikus Arrieta eta Hartsuaga bibliografian.

¹⁵ Ikus. Chomsky, 10 maneras de manipulación mediática (www.educacionmediatica.es)

esan egin behar direlako. Esaten ez dena ez da existitzen. Baina esaten dena praktikan jartzen ez bada, arazoak bere horretan jarraituko du" (Aristi, P., *Berria* 2013ko apirilaren 7a: 4)

Motibazio klasikoaren indarra epelduz doa. Bestelako bideak jorratu behar dira ikasle eta, oro har, euskal gizartean itxaropena berpizteko. Tresna berriak (eta ideiak) behar ditugu euskara ikasten edo ikasi duten herrikideek ezagutzari eusteko eta erabilera sustatzeko. Baina gauza guztien gainetik behar dugu diskurtso berri bat eta praktika berri bat, zeinaren bidez suntsituko dugun barne-muinetan sartuta daukagun eta gizartean (euskararen kontrako eta aldekoen artean ere) jaun eta jabe den zoritxarreko profezia: gure herrian, eta heldua naizela gainera, nekez eta asko sufritu ondoren, euskara halamoduz ikasita, ezin izango dut erabili, eta alferlana izango da ahalegin guztia, hitz egin ezean galdu egingo dudalako dakidantxo.

7.1 FAKTORE SUBJEKTIBOAK

Argi dago euskararen normalizazioa oztopatzen duten faktore objektiboak asko eta munta handikoak direla. Eta, ikusiko dugun bezala, askotxo ere badira oztopo subjektiboak. Hain zuzen, berauen inguruan hainbat ikerketa, saiakera, artikulua eta mota guztietako lanak plazaratu dira ¹⁶ eta guzti-guztietan aitortzen zaie elementu subjektibo horiei berebiziko garrantzia.

Dena dela, aztertu ditugun guztietan azpimarratu da uste ustelak, izan,

16

Arrieta-Urtizberea, Agustin (2010) *Sinesmenak eta usteak*. Irun: Alberdania; Hartsuaga, Juan Inazio (2010) *Euskararen egoerari irizten*. Hiria; Perales, Josu (2004). Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta, *Uztaro* 50; Etxaburu, Urrate (2010) *Motibazioaren garrantzia hizkuntza ohituren aldaketan*. Hiznet 09-10eko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe); López, Janire (2007). *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak*. Euskara ikasleen autoirudia eta motibazioa, Hiznet 06-07ko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe); Zumalde, Elias (2007) *Erdaldunak eta euskara planak*, Hiznet 06-07ko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).

badirela; kaltegarriak direla eta, nola edo hala, baztertu behar genituzkeela. Alabaina, adituek aipatu dutenean, esaterako, gure buruan iltzatuta daukagula elebakarra izatea situazio normala dela¹⁷, edo "A nosotros nos han metido la idea de que es muy difícil aprender lenguas, y no nos atrevemos a abrir la boca por si lo decimos mal" (Díaz, B., *El Correo*, 2005eko otsailaren 10a: 7), ez dute esplikatzen nork sartu dizkigun ideia horiek; zergatik; zein mekanismo erabili duten hori pentsarazteko; zertarako eta, are gutxiago, nola egin aurre sinesmen horiei guztiei.

Izan ere, euskararen kontrako lege edo arau bat indarrean jartzen bada, logikoa dirudi lege edo dena delako hori baliogabetzea dela aurre egiteko modua. Era berean, euskara ikastea garestia bada, zentzuzkoa izan daiteke diruz laguntzea edo doan izatea. Baina zer gertatzen da uste, sinesmen, mito, eta abarrekin?

Hainbat eta hainbat ideia etxekalte zabaldu dira gure artean eta erreproduzitzen dira etengabe, batzuetan jakinaren gainean edo inertziaz edo zabarkeriaz edo ezjakintasunez; baina beti ere gure kalterako: erabiltzea hitz egitea da soil-soilik; ikasle helduentzat helburua da euskaldun OSOA izatea (Txomin Agirreren *Joannes* mitiko haren modura); helduek prozesu luze eta nekeza egin behar dute; ikastea berdin sufritzea, eta abar eta abar. Eta, gainera gehienetan, gure ustez, mugatu gara motibazioan eragitera; hau da, ikasleak animatzera: kanpainak egiten dira goraipatzeko euskararen ontasunak, aukerak, balioak... Eta, zer esanik ez, gure ikasleak (gero eta gutxiago, zoritxarrez) "oso motibatuta" daude; batez ere, lana

¹⁷ Ikus. (Zalbide, M. (2003). Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio? *Iritzi Muinetik*: 9, erabili.com)

topatu, titulua lortu eta seme-alabei laguntzeko matrikulatzen dira. Motibazioa ez da nolanahikoa, alajaina! ¹⁸

Baina jarrera eta motibazioa gero eta urrutiago daude euren balizko portaera logikoarengandik; alegia, ikasten eta erabiltzen hastetik.

Eta arestian esan bezala, motibazio hori handia izanda ere, ez dator bat emaitzekin.

Zein izan daiteke irtenbidea? Bada, gure ustez, irtenbidea da, lehenik eta behin, kontzientzia hartzea ezin garela geratu ezer egin barik; ezin dugula jarraitu esaten arazoak badaudela, eta kitto!

Desegin egin behar ditugu mito guztiak, deuseztatu; gure erraietatik erauzi ideia faltsu eta negatiboak; atsegingarri egin ikastea; "tortura" jolas bihurtu; autokonfiantza handitu; helburuak birplanteatu; ikasleei tresnak eman autoirudia eraldatzeko; azken batean, beste errealitate bat eraikitzea da kontua.

Pá

Eta horretarako badakigu zein den estrategia nagusia: diskurtso berriak eraikitzea; hain potenteak ezen errealitatea eraldatzeko gaitasuna izango duten (gurea saiotxo bat besterik ez da). Zeren gure nahia ezartzeko,

"Erromatarren garaian edo Erdi Aroan ezpataren indarrez

¹⁸

Ikus 1. eranskina.

egiten zen hori, geroago pistolen indarrez izan da, baina gaur egun ez, gaur egun beste arma bat erabiltzen da(...): diskurtsoa". (Etxaniz,2007: 9)

Bide honetan funtsezkoa da jakitea, pentsatzen duguna, hein handi batean, ez dela zerbait indibiduala: "usteen izaera soziala da" (Perales, 2003: 36). Errealitatea sozialki eraikitzen da. Horrenbestez, "diskurtsoak" geure egiten ditugunean, ez gara gu berorien sortzaileak, ezpada jasole eta erreproduzitzailerak.

Horregatik, arestian esan dugu komenigarria dela jakitea nork barreiatzen, kontrolatzen eta manipulatzeko dituen pentsamenduak, zergatik, zertarako eta nola sozializatzen diren. Hain zuzen, behin ulertuta zein diren mekanismoak, gerora ideia horiek irauli ahal izateko.

Hartara, laburki bada ere, esan dezagun behingoz zein diren labirinto horretan ertze nagusiak:

Boterearen ideologia hegemonikoa da ("pentsamendu bakarrera" gero eta bizkorrago eramaten gaituena) protagonista. Berak ditu baliabide guztiak (legea, mass-media, hezkuntza, zurrumurruak...) bere diskurtsoak inposatzeko. Eta biziki interesatzen zaio hizkuntza kontrolatzea, zeren, "El lenguaje marca las coordenadas de nuestra vida en la sociedad y llena esa vida de objetos significativos" (Berger eta Luckmann, 2001: 39)

Bere xedea ere argi dago: sistemari eustea. Eta nahikoa du gizarteak egiazat hartzea pentsamendu hegemonikoa: Thomasen Teoremari esker, egia gorabehera, ondorioak errealak izaten dira eta¹⁹. Trebeak dira mekanismo hori erabiltzen, eta ezin hobeto ezagutzen dute "el doble caracter de la sociedad como facticidad objetiva y como complejo de significados subjetivos". (Berger eta Luckmann, 2001: 2).

Horregatik guztiagatik, zurrumbilo honetan esku hartu nahi duenak jakin dezala lehenbailehen zientzia bere soilean motz geratzen dela. Errealitatea aldatu nahi duenak argi izan dezala, ezen, "el conocimiento teórico es una pequeña parte de lo que se toma por conocido." (Ibidem: 88)

Benetan eraginkorrak izan eta adostasun berriak finkatu nahi baditugu mota guztietako tresnak beharko ditugu: jakintza teorikoa eta nolabaiteko autoritatea, bai noski! Baina, neurri berean, ezagutu behar ditugu subjektibotasunaren zirrikituak; pertsuasioaren mekanismoak; zurrumurruen funtzionamendua²⁰, zeinaren bidez gehiengoa kontrolatzea lortzen den. Eta, gure eremura itzultzeko, jakin behar dugu ikasleen arrakasta ez dela izaten "beraien ahalmenaren araberakoa, baizik eta duten ahalmenari buruz uste dutenaren araberakoa." (López, 2007: 23). Edo, beste era batera esateko, "usteez, zuzenek zein okerre, eragin egiten diete ikas-prozesuari eta horren emaitzei." (Perales, 2003: 36)

¹⁹ Hizkuntzen irakaskuntzaren arloan, ikusi besterik ez dago, zer gertatu den estatu espainiarrean ingelesarekin azken urteotan: komenigarria izatetik, gero beharrezkoagoa eta, azkenean, lege bihurtu da. Ona zena, nahitaezkoa bilakatu da, nahiz eta ideia hori kolokan jarri duten hainbat adituk. Ikus Ikus ["El saldo de la lengua"](#).

²⁰ Ikusi "Rafael Crespo, zurrumurruen aurkako ekintzailea", Berria, 2012ko urriaren 2a.

J. Peralesi jarraituz²¹, lagungarria izan daiteke kurtso hasieran galdera-sorta baten bidez (ikus 2. eranskina Perales, 2003: 37) hizkuntzak ikasteari buruz ikasleek dituzten usteak eta beldurrak komentatu eta eztabaidatzea, eta arrazoi bideak ematea.

Eta horrelaxe egin dugu egiaztatzeko (berriro ere) zertan diren gure inguruan dabiltzan ideiak, ikastearen, irakastearen eta erabileraren gainekoak.

Hona hemen, bada, ikastaro hasieran eta ondorengo hilabeteetan honi buruz egindako lana, lehen urratseko talde batean eta 1. eta 2. mailako lau taldetan.

Pá

²¹ *Hizpide* 54: 36.

8. USTE USTELAK

8.1. HELDUAK, BESTE HIZKUNTZA BAT IKASTEN DUTENEAN, HUTSETIK ABIATZEN DIRA

Hori da oso ideia ohikoa gure artean. Eta ez bakarrik ikasleen artean, ezpada irakasle eta bai hizkuntza-politika kudeatzen dutenen artean ere.

Funtsean honelaxe formulatu ohi da kontu hau: ikasle heldu bat (gurean 16 urtetik aurrerakoa) lehenbiziko aldiz hurreratzen bada euskara ikastera, "zero"tik abiatu behar da. Guretzat nolabaiteko "tabula rasa" da. Ez daki ezer. Ezjakina da eta, horrenbestez, ezgauza. Irakatsi egin behar zaio guztia (askotan umeak balira bezala tratatzen ditugu), zeren, euskara "oso desberdina" da.

Esan bezala, ikasleen artean ez ezik, komunitate didaktiko osoan ere badabil mito hori. Hara zer esaten duen HABE-k etorkinentzako AISA

ikastaroaren aurkezpenean: *"¿Cómo es el curso? Empezarás de cero y poco a poco aprenderás cosas nuevas"* (www.ikasten.ikasbil.net)

Hala ere, HABE-k berak zera aitortzen du Oinarrizko Kurrikuluan:

"Hizkuntz ikaslea bere ama-hizkuntzan gaitasun estratejiko baten jabe da, munduarekiko ikuspegi bat dauka eta ezagutzamultzo baten jabe ere bada." (HEOK, 1999: 25)

Zertan geratzen gara? Dena delako heldu horrek badaki ala ez daki ezer?

Ikasleei esatea zerotik hasi behar dutela, gezurretan aritzea da, desmotibagarria eta, gainera, denon kalterakoa. Alabaina, helduen euskalduntze mundu honetan lehen urrats guzti-guztietan errepikatzen den lelo madarikatua bihurtu zaigu zorigaitzeko hori. Eta, zer esanik ez, ondorioak negar egiteko modukoak izaten dira: ikaslegaiak uxatzen ez ditugunean, gurera datozenak "umetu" egiten dira; dituzten gaitasun eta trebeziak "sorgortu" egiten dituzte eta uko egiten diote erabiltzeari; eta, askotan, trebetasun horiek gutxiesteraino ere heltzen dira.

Pá

Baina hori guztiori zuzentze aldera ez da nahikoa esatea uste duten baino gehiago dakitela eta gauza asko egitea dutela helduak izateagatik beragatik. "Mitin" bat ematea ez da nahikoa, ez horixe!

Frogatu behar da eta begibistan jarri, dagoeneko, nahiz eta sekula ez ikasi,

gauza asko jakin badakitela.

Hona hemen estrategia bat:

- a) Lehen urratseko ikastaro hasieran (guk bigarren egunean egin genuen) ikasgelan sartu eta esan egiten diegu ikasleei ariketatxo bat egingo dugula frogatzeko eurek pentsatzen dutena baino gehiago dakitela (ikus. 3. eranskina).

Ariketa oso sinplea da. Bertan hainbat euskal hitz (*demokrazia, ekonomia, tigrea, limoia, laranja...*) dituzte, eta, besterik gabe, identifikatu beharrekoak dira.

Gero ere, beste zenbait sintagma eskaintzen zaizkie, hala nola, "*atentatuaren biktim*" edo "*erreabilitatzeko tratamendua*". Eta eginkizun bera dute: identifikatu eta itzultzen saiatzea.

Azkenik, esaldi batzuk ere ematen dizkiegu; adibidez, "*Indurainek 5 Tour irabazi zituen*"; "*limoia eta laranja zitrikoak dira*" edo "*Hitler diktadore kriminala izan zen*". Eta, berriro ere, horien gutxi gorabeherako itzulpena eskatzen diegu.

Ariketa egindakoan emaitzak benetan ikusgarriak dira; batez ere, arrazoi bategatik: ez denek ondo burutzen dutelako ariketa, baizik eta erakusten duten erreakzioagatik:

"Ya pero es que esas palabras y las frases son iguales que el español."
Diote. Edo *"¡Hombre! Pero saber eso es una chorrada."* Edo *"Pero esas palabras no son euskera puro, son copia del castellano."*

Era berean, galdetzen diegunean zergatik itzuli duten ondo *"izan zen"* aditza *"Hitler diktadorea izan zen"* esaldian, euren erantzuna antzekoa izaten da:

"¡Joder! Porque es lógico pensar eso en esa frase."

Eta, bat-batean "argia" egiten da ikasgelan, irakasleak hauxe erantzuten dienean:

"Pues, ¡Mirad! Lo que habeis hecho ha sido usar el conocimiento que teneis del mundo para saber quién y qué era Hitler. Y además, habeis aprovechado el contexto de la frase para traducir "izan zen", a pesar de ser una forma verbal totalmente nueva para vosotros. Y además, habeis usado el conocimiento de vuestra lengua materna para deducir que "demokrazia" es "democracia" en castellano; palabra que, como sabeis, viene del griego, tanto al euskera como al español como a otras muchas lenguas.

Es decir, habeis usado como mínimo tres capacidades o estrategias que ya teneis, practicamente sólo por el hecho de ser adultos; cosa de la

que, por otra parte, los niños todavía carecen, o sea: un poco de cultura general.

Primera: usar el conocimiento previo que teneis del mundo. Segunda: valerse del contexto, y tercera: usar lo que conocemos de otras lenguas.

Pues, ¡bien! Eso es lo que hacen los estudiantes competentes cuando aprenden otra lengua, y lo que debeis aprovechar siempre."

Diskurtso txiki hori oso eraginkorra da, hain zuzen, ikusarazteko ez direla "zero" huts bat. Gai direla ulertzeko hainbat gauza. Dagoeneko gaitasun garrantzitsuen jabe direla. Eta, noski, hori guztia oso motibagarria suertatzen zaie.

b) Hurrengo egunetan ere beste pauso bat egin eta hitz edo esaldi solteak ez, benetako notiziak eramaten ditugu klasera (ikus 4. eranskina)

Bertan *Berria* egunkarian argitaratutako zenbait berri labur daude: bitxi-bitxiak eta argazkidunak. Eta zera eskatzen diegu: notiziaren nondik norako garrantzitsuenak (nork, non, noiz...) atzemateko, eta bertako zenbait hitz itzultzeko.

Pá

Emitza ere harrigarria (!) izaten da: berriaren zenbait datu asmatu izana argazkiari berari egozten diote:

"Si, pero lo he acertado porque conozco el pescado que hay en la foto".
Diote.

Eta guk geureari eutsi eta:

"Pues eso es precisamente lo que hacen los buenos aprendices de lenguas: aprovechar todas las pistas que hay al alcance; ya sean estas lingüísticas o, como en este caso, gráficas".

- c) Hirugarren pausoa da proposatzea, noizean behin ikus dezatela ETB1eko albistegia helburu bakar honekin: zenbait hitz hauteman eta informazioa irudikatzeko. Esan ere esan dakieke, egun berean gaztelaniazko albistegiak ikus ditzatela, zertarako eta bi bertsioak (gogoan izan antzerakoak edo berberak izaten direla berriak egun berean) erkatzeko. Ariketaren ostean ikasleen iruzkinak orain arteko bide beretik doaz:

" La verdad es que me he enterado bastante de varias noticias por las imágenes, porque conocía de antemano la información y porque he supuesto o me he imaginado de qué iba, y al final he acertado. Pero ha sido casualidad."

Pá

Eta guk:

"Pues, como hemos visto hasta ahora, no sólo habeis aprovechado vuestro conocimiento previo y las imágenes, sino también la capacidad de hacer hipótesis; la imaginación. Y ésta es también una cualidad del buen estudiante de lenguas."

Lehenengo urratseko lehen asteetan hiru ariketa xume hauek eginez, ikasleak kontzientziazten dira (batzuk kostata ere) eduki badaukatela hainbat gaitasun eta estrategia oso baliagarriak euskara ikasteko. Alegia, ez direla "zerotik" hasi. Eta horrek sekulako garrantzia du motibatzeke eta dituzten trebeziak nolabait aktibatzeke. Zeren, bestela, beste alternatiba da sinesten jarraitzea ez dakitela ezer, eta, ondorioz, ezer jakingo ez balute bezala jokatzeko segitzea.

- d) Hortik aurrera komenigarria da ikasleei azaltzea (goragoko mailetakoa ikasleei ere bai, noski) nolakoak diren euskal hitzak. Bada, sekulako "zorabioa" sentitzen dute euskal lexikoaren aurrean. Behin eta berririo adierazten dute euren ezinegona:

"Ez dakit nola ikasi hitzak", "Zerrendak ikastea ondo dago?", "Nire lexikoa oso eskasa da", "Hiztegia da nire problema".

Horrelakoak entzuten ohituta gaude irakasleok, eta ezin ditugu ikasleak utzi "estres" horretan. Horregatik, esan bezala, funtsezkoa da lehen urratsetik beretik azaltzea nolakoak diren euskal hitzak. Ariketa sinple eta oso onuragarria suertatzen da:

Pá

EUSKAL HITZAK

1- Bakunak:

- Jatorrizkoak: *aita, egin, mahaia...*

- Latin, erromantze, gaztelania eta abarretik hartuak: *eliza, gaztelu, aingeru...*
- Nazioartekoak: *telefonoa, ekonomia...*

2- Eratorriak: *euritsu, langile...*

3- Elkartuak: *hilerri, kale-garbitzaile...*

Behin esplikatuta zein hitz mota den bakoitza, "tranpa" txiki bat egin ohi dugu. Eta da esatea jatorrizko hitzak direla "arraroenak". Horiekin memoria "gastatu" egin behar dugula. Baina, zorionez, hitz horiek behin eta berriro errepikatzen direla (gainerakoen osagai ere izaten direla), eta hitz guztiak kontuan hartuta, jatorrizkoak ehuneko txiki bat baino ez dela gainontzekoen aldean. Eta besteak, hau da, maileguak, elkartuak eta eratorriak deduzitu beharrekoak direla. Ez dugula horiekin memoria erabili behar, logika baizik. Areago, euskaraz pentsatzea, batez ere, hauxe dela: inoiz entzun edo irakurri ez dugun hitz bat entzun edo irakurtzea, eta jakitea zer esan nahi duen.

Ikasleen erreakzioa oso positiboa da. Izan ere, badago nolabaiteko madarikazio bat euren artean iltzatua: topatzen badute hitz ezezagun bat, edo hiztegira jotzen dute modu konpultsibo batean (horrek dakarren neke eta energia ahitzearekin) edo frustrazioa sortu eta "mea culpa"-ka hasten dira; edo, besterik gabe, paso egiten dute.

Baina argi eta garbi esaten bazaie hitzak analizatzea dela bide ezin eraginkorragoa esanahia ondorioztatzeko, bat-batean, tortura zena jolas intelektuala bilakatzen da. Hor ibiliko dira hitzen esanahia asmatu nahian eta

askotan asmatzen. Eta aurrerantzean, egundoko poza hartuko dute ikustean eurak ere kapaz direla hainbat eta hainbat hitz ezezagunen esangura deduzitzeko (hitz berriak asmatzeko ere bai, gero!). Eta hori da lexikoari beldurra kentzeko tresna garrantzitsuenetako bat.

Laburbilduz esan dezagun, egun gutxitan ikasleak jakitun direla hainbat gaitasunen jabe direla:

- 1- Munduaren ezagutza erabiltzea.
- 2- Dakizkiten beste hizkuntza batzuk erabiltzea.
- 3- Testuinguruaz baliatzea.
- 4- Hipotesiak formulatzea.
- 5- Analizatzeko trebezia.
- 6- Baliabide ez-linguistikoak probetxatzea.

Eta inportanteagoa dena: euren gaitasun horiek erabili behar dituztela konplexurik gabe, eta gutxietsi gabe, noski. Zeren, umeak (zentzu guztietan hain "azkarrek" (?) omen diren horiek) nekez baliatu ahal dira trebetasun eta estrategia horietaz guztietaz, hain zuzen, helduak ez direlako.

8.2. UMEEK ERRAZ IKASTEN DUTE; HELDUEK NEKEZ

Uste hori da errotuenetarikoa. Esan dezakegu ia mundu guztia bat datorrela baieztapen horrekin: aditu, agintari, ikasle, irakasle...

Urrutira jo barik, duela gutxi egokitu zitzaigun Balmasedako Euskara Zerbitzuak antolatutako hitzaldi batera joatea. Mintzagaia hauxe: *Nola lagundu guraso erdaldunek seme-alaba elebidunei*. Eta hizlaria ETBko aurkezle famatu euskaldun berria. Bertan, hainbat aholku onuragarriren artean, berriro ere harako lelo hura errepikatu zuen: "Umeez erraz ikasten dute nahi beste hizkuntza ahaleginik egin barik. Esponja bezalakoak dira. Helduei, berriz, ezin zailagoa egiten zaigu euskara behar bezala ikastea." (Eskerrak euskara sustatzeko etorria zela, bestela, akabo!)

Pá

Baina benetan hala da?

Itzal handiko jakintsuek hala dela esaten dute, behintzat:

"En cierto modo, el aprendizaje primario o natural del idioma es una escalera mecánica de subida, por la que el niño puede deslizarse cómodamente (...) El aprendizaje secundario es, por el contrario, una lenta y ardua ascensión que uno debe lograr a contrapelo." (Sanchez Carrion, 1991: 36)

Berdin dio, antza, zein den dena delako ume horrek ikasi behar duen ama-hizkuntzaren egoera zein den. Egia absolututzat daukate umeek jasotzen dutela hizkuntza, Bibliako haiek "mana" jasotzen zuten bezala: zerutik emana. Honen inguruko baieztapenak asko baino gehiago dira, eta automatikoki errepikatzen dute gure ikasleek ere letania baten moduan. Eta oinarri "zientifikorik" ez omen zaie falta:

"Jakintsu askoren ustez ume eta helduen hizkuntza jabekuntzen artean ezberdintasun nabarmena dago; umeek hizkuntzaz jabetzen diren bitartean, helduek hizkuntza ikasi egiten dute. Jabekuntza prozesu naturala da; ikaskuntza, aldiz, bideratutako prozesua, kontzientea. Umeek jabekuntza hori ingurune komunikatibo natural batean egiten duten bitartean, helduen ikaskuntza materialetan eta estrategietan oinarritutako ingurune formalago batean gertatzen da." (López, 2007: 3)

Pá

Baina "teoria" guztiak, definizioz, ezin dira absolutuak izan. Men egin behar diote egoera edo baldintza zehatzei. Ezin dira eraiki testuingurutik aldenduak. Eta, alde horretatik, horixe azpimarratu dute beste hainbatek. Alegia, ezin dela esan biribil-biribil bigarren hizkuntza ikastea beti suertatu

dela oso zaila eta "nekagarria" guztiontzat. Hau da, hizkuntza guztiak ez daudela egoera berean, eta, horrenbestez, ezin esan daitekeela denontzat berdin gertatzen dela.

" Hala, euskaldun berriaren ibilbidea oztopoz beterik ikusi dugu, balizko euskaldun berria euskararen etxean eroso sentitzeko. Ibilbidearen abiapuntuan hizkuntza hegemonikoa dago kasu horretan, eta minorizatua du xede. Erdaldun berrien kasuan, ordea, hizkuntza minorizatua -euskara- zegoen jabetza linguistikoaren hasieran, eta hizkuntza hegemonikoa -erdara- , amaieran. Euskararen herrian erdalduntzea nahiko erraza izan da ordezkapenaren hainbat alditan, baina erdararen herrian euskalduntzea biziki gaitza." (Odriozola, J. M., *Berria* 2013ko apirilaren 3a: 4)

Ez da egia, beraz, bigarren hizkuntzaz jabetzerakoan traba eta oztopo unibertsal berberak daudenik hizkuntza guztietarako. Egia hori erlatiboa da erabat, eta hala den neurrian, alda daiteke. Hala ere, su eta gar, eta behin eta berriro defendatu dute doktrina berbera, nork eta, ustez, euskararen defendatzaile sutusenek ere.

Pá

Hara, zer zioen duela gutxi Iñaki Uribe Burgoak, garai hartako HABEren zuzendari nagusiak:

"Problema da orain adin batetik aurrera oso zaila dela hizkuntza ikastea. Ondo aztertu behar da. Batzuetan

pentsatzen dugu alferrikakoa dela irakaskuntza mota hori."
(*Argia*, 2317 alea)

Eta Josu Lezameta irakasleak erantzun zion bezala, iritzi hori nork eta helduen euskalduntzeaz arduratzen den zuzendari nagusiak esan behar! Hamaika ikusteko jaioak gara!

Baina hori ez da ahots inportante bakarra. Badirudi beste hainbat euskaltzale porrokatu eta jakintsu ados daudela ideia horrekin. Eta ez dute inolako lotsarik sentitzen aipatzean, adibidez,

"Argi dago ezingo ditugula euskaldundu gune soziolinguistiko horretako -bigarren gune soziolinguistikoan- helduen %30 edo %40; ez dute askoz euskaldun gehiago izango inguruan helduen artean." (Azkarate, M. *Berría*, 2012ko abenduaren 5a, Nola lortu euskara frikia ez izatea).

Edo, beste adibide bat:

Pá

"Datu bat eman du Baztarrikak: 35 urte baino gehiagoko herritarrak hartuta, hamarretik sei erdaldun elebakarrak dira. Askorentzat ezinezkoa da B-2 edo C-1 mailak lortzea." (*Berría* 2013eko martxoaren 7a: 20)

Bai , halaxe da: "ezin da, ez da posible". Horrelaxe hasten dira profezia

autobeteak: gure jakintsu, aditu eta agintariek, lasai-lasai eta horrela delako, esaten badute zerbait ezinezkoa dela, argi ibili! Hala izan ala ez izan, horrek ondorio erreal-errealak izango ditu. Zeren, euskararen normalizazioa bultzatu behar duten agintariek argi badute ezin direla heldu asko eta asko euskaldundu, zer-nolako helburuak izango dituzte plan horiek? Eta zenbateko ahalegina eta zenbat baliabide jarriko dira xede erdipurdikoak (?) lortzeko orduan?

Eskerrak han-hemenka gero eta jende gehiago ari dela mitologia hori guztia gezurtatzen.

"Guztiz zabal dabilen uste orokortu hau, umeez hizkuntzak erraz, inolako ahalegin barik, ikasten dutela, arinkeria dela azpimarratu behar da. Izan ere, hizkuntzak bizitza osoan zehar ikasten dira eta txikitan hainbat gauza ezin direla ikasi (batetik, umeez gaitasun kognitibo nahikorik ez dutelako eta, bestetik, dena ikasteko aukerarik eta beharrik ez dutelako." (Amorrortu, 2009: 169)

Pá

Bai, halaxe da. Umeek ez dute helduek duten komunikatzeko gaitasun bera. Ezta hainbat estrategia ere (ikus 86. orrialdea). Eta helduek ere ez dute hizkuntzak ikasteko inolako ezintasun "genetikorik", nahiz eta hori sinetsi nahi duten hainbatek, eta sinestarazi nahi diguten beste hainbatek.

Gure eskolan merezi du honen inguruko lan didaktiko sakona egitea. Eta horretarako argudio-andana zabaldu behar da, gure ikasleak aurreiritzi

horren biktima bikur ez daitezen eta, ahal den neurrian, eurak ere izan daitezen mito hori hankaz gora jarriko duten protagonista, lekuko, eta "militanteak".

Lehenik eta behin, arestian esan bezala, frogatu behar dugu helduok, geure izatez, baditugula hainbat gaitasun funtsezkoak direnak hizkuntzak ikasteko: esperientzia, gaitasun kognitibo garatuak, munduaren ezagutza, beste hizkuntza baten edo batzuen ezagupenak (gramatika, lexikoa...).

Bigarrenik, azaldu egin behar da, azken urteotan milaka eta milaka pertsona helduk ikasi dutela euskara. Euskara irakasle asko eta asko helduaroan ikasi dugula eta ez garela "Einstein". Gure ikas-prozesuaren testigantza ematea ere mesedegarria izan daiteke.

Hirugarrenik, argi ikusi behar dute hizkuntza guztietan (ama-hizkuntza barne) beti dagoela zerihasi gehiago; zer hobetu gehiago. Baina horrek ez duela esan nahi euskalduntze prozesua oso luze eta zaila dela.

Laugarrenik, jakin behar dute euskaldun zahar ia guztiek ikasi dutela gaztelania, eta ez direla berez besteok baino adimentsuagoak.

Pá

Eta, azkenik, ulertu behar dute hizkuntza bat ikastea zailagoa egiten bada, ez dela ikaslea heldua delako edo hizkuntza gaitzagoa delako, baizik eta egoera soziolinguistikoaatik.

Baina, beharbada, eraginkorragoa izan daiteke datu zehatz eta

behagarriagoak ematea.

Aipatzen denean umeek erraz eta ahaleginik egin gabe ikasten dutela hizkuntza, jo dezagun errealitatera. Eta guk ikusten dugun errealitatea ez da mitoak dioena, oso bestelakoa baizik. Eta ikusten dugu (eskualde erdaldun honetan, behintzat) haurrak, jaiotzen denetik eguneko 24 orduz, baduela inguruan hainbat eta hainbat pertsona (familia, lagunak, auzokoak...) etengabe hitz egiten eta hitz eragiten (Ai zer-nolako ahaleginak egiten dituen umeak errepikatzeko, ahozkatzeko, gogoratzeko). Eta gero, eskolan irakasle eta ikaskide multzo handi bat mota guztietako gaiak azaltzen eta kontatzen. Eta telebista, eta kalea... eta, azken batean, ikusten dugu umea erabat murgilduta gaztelaniaren uretan.

Baina, gauzak horrela izanda ere, adibidez, duela zenbait urtetako selektibitate azterketan aurkeztu ziren ikasleen erdiek (17-18 urtekoak beraiek) ez zuten ulertu Perez Reverteren artikulu bat.

Nola izan daiteke, bada? Ez al genuen esaten erraz asko ikasten zutela edozein hizkuntza? Ikasle horiek ez al dute izan aukera eta denbora nahikorik euren ama-hizkuntza ikasteko? Nolatan 17 urterekin ezin ulertu artikulu xume bat? 17 urte denbora luzea ala laburra de hizkuntza ikasteko?

Helduen kasuan ere, behin eta berriro errepikatzen denaz bestera, guk geuk beste errealitate bat ikusten dugu: zenbat pertsona heldu joan dira euskaltegira, bertan, bi, hiru edo lau urte pasa eta euskara ikasi? Askotxo ezagutzen ditugu guk: egunero bi ordu eskolan, zertxobait praktikatu etxean

eta kalean, udan trinko bat edo barnetegia... eta, gero erdalduna nagusi dela ere, euskaldun berri bihurtu.

Beraz, nondik nora atera dute mito hori? Helduek ez eta umeei bai ote? Berririo diogu: guk errealitatean kontrakoa ikusten dugu.

Beste alde batetik ere, planteatu beharko genuke zer den hizkuntza bat ikastea. Izan ere, argi eta garbi baldin badago umeei erraz ikasten dutela hizkuntza, zergatik batxilergoa amaitutakoan (17-18 urterekin) aitortu zaie B-2 maila bakarrik? Agintariek eurek onartzen dute C-1 edo EGA azterketarik egin gabe eskuratzeko behar dituztela gure gazteek, gutxienez, unibertsitateko kredituen erdiak euskaraz egin. Hortaz, zenbat erdaldun petok gaingaituko luke balizko gaztelaniazko "EGA" bat? Ikasleek senez beti dute erantzuna: oso gutxi.

Amaitzeko, ur handitan sartu gabe, adierazi beharko genieke ikasleei, zorionekoak direla umeei bezala ikasi behar ez izateagatik: Haurren moduan ikastea bai dela luze, nekez, aspergarri eta tortura hutsa; nahiz eta helduok gogoratzen ez garen. Haiek lehenengo urte luzeetan modu konduktista batean ikasi behar: entzun-imitatu formula "nazkatu" arte errepikatu behar dute; guk, oster, hasieratik modu konstruktibista darabilgu ikasteko: askoz ere sortzaile eta dibertigarriagoa.

Egia, beraz, zera da: umeei ez dute helduei bezala ikasten. Batak eta besteak diferente ikasten dugu, Jainkoari esker!

Hortaz, arren! Ez dezagun berriz esan: "umeek bai; helduek ez". Porrot eginez gero, ez da zaharregiak garelako ikasteko. Ezin gara horregatik kikildu. Eta, azkenean, ahalegin guztiak gorabehera, amore emateko zorian bagaude, ez kezkatu eta kontsola gaitezen: gizarte honetan maila gorenera iristeko, eta are presidentea izateko ere (areago lehendakaria izateko) berdin dio nola hitz egiten dugun. Garrantzitsuena da behin Jose Maria Aznarrek esan zuena: "Hay que ir adelante y no adetrás".

8.3. EUSKARA OSO ZAILA DA

Errosario errezoan bezala, euskara oso zaila dela guztion ahotan dabilen "Tantra" moduko bat da egia absolutua. Eta, gure tesiari jarraikiz, kontua ez da, harako Goebbels hark esaten omen zuen moduan, gezur bat mila aldiz errepikatuta egia bihurtzen dela; baizik eta gezurra egiaztat hartzen bada, benetakoa balitz bezalako ondorioak dituela. Zenbat eta zenbat pertsonak egin diote uko ikasteari oso zaila delakoan? Enpirikoki ez dakigun arren, senak diosku askotxo direla; batez ere heldu eta adinekoak.

Baina hain zaila ote da? Eta hala bada, bakarrik euskaldun berrientzat, ala euskaldun zaharrak ere zaku berean sartu behar ditugu?

Pá

Gure irudiko, adituek eta sen onak mito hori gezurtatzen dute behin eta berriro. Hizkuntzalaritzatik argi eta garbi esan eta esan ari dira hizkuntzak ikastearen zailtasuna erabat erlatiboa dela: segun eta zein diren ama-hizkuntza eta xede-hizkuntza, izango da zailagoa edo errazagoa ikastea; hau da, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak gaztelaniatik katalanera edo frantsesera dagoen aldea txikiagoa dela, esaterako, gaztelaniaren eta ingelesaren artekoa

baino. Eta alde honetatik euskara, Latinetik ez datorren neurrian, zailagoa izan daiteke, bai. Baina bestelako ñabardurak behar ditu auzi honek, eta aurki emango ditugu.

Momentuz ikasleek jakitun izan behar dute ezen euskaldun guztiek ikasi badute gaztelania erdaldunek ere ikas dezaketela euskara. Zeren beste alternatiba zera litzateke: onartzea euskaldunok buru argiagoak direla erdaldunok baino; eta hori zentzugabekeria galanta litzateke. Egia da egoera soziolinguistikoa ez dela berdina: gaztelania eta frantsesa hegemonikoak dira, eta euskara, ostera, egoera diglosikoan dago. Eta arrazoi horregatik beragatik suertatzen da gaitzagoa euskara ikastea; baina ez euskararen beraren zailtasun intrinsekoagatik, ez horixe! Izan ere, nahiz eta hizkuntza erromanikoa ez izan, ibilbide luzea egin du historian beroriekin kontaktuan, eta, gehienetan gertatzen den bezala, hizkuntza "potenteek" utzi dute euren marka euskararen maila guztietan: fonetiko, morfosintaktiko, semantiko, lexikoan eta are prosan eta maila estilistikoan ere. Beraz, jatorri ezberdinekoak izan arren, eta lehen batean oso urrun egon arren euskara eta, adibidez, gaztelania, beronen eragina (batez ere, adstrato eta superestratoan) oso nabarmena da, halako eran non, "de facto" hurbilago dauden elkarrengandik, eta, horrenbestez, eskuragarriagoak bata eta bestea.

Pá

Era berean, ikasleek eta ikaslegaiak honako hau jakin behar dute:

"Guztiok ikasi dugu hizkuntza bat oharkabea eta arazorik gabe eta gainera modu berean eta denbora tarte beretsuan. Guztiok daukagu, berez, hizkuntzetarako trebetasun berbera,

(hau bai genetikoa, sortzez datorkiguna)." (López, 2007: 20).

Eta jakin ere jakin behar dute zer den "Gramatika Unibertsala" kontzeptua: "hizkuntza berezietatik gora dagoen zerbait izango litzatekeena, azken finean, psikologiatik ere oso hurbil dagoen zerbait." (Goenaga, Patxi (2002) HABE aldizk. 325 alea: 25). Edo, beste era batera esateko: "hizkuntza guztietan badira egitura unibertsal batzuk (...) Hori dela eta, hizkuntzen antzekotasunak handiagoak dira beren desberdintasunak baino." (Sudupe, J. *Berria* 2010eko abenduaren 9a: 4)

Euskara eta gaztelaniaren artean bereziki, "...ez dago jendeak uste duen hainbateko alderik (...) fonetikaren aldetik oso antzekoak dira." (Goenaga, Patxi (2002) HABE aldizk. 325 alea: 25)

Horren guztiaren jakinaren gainean egon behar dugu guztiok, berriro ere ez errepikatzeko "euskara zaila da" lelo uxatzaile zoritxarreko hori. Eta jabetzen garenean ez dagoela hizkuntza zail edo errazik, eta onartzen dugunean guztiak berdinak direla, pauso erraldoia egingo dugu motibazioan. Zeren, hizkuntzen kontua "ez da zailtasun kontua, motibazioa baizik. Euskara zaila da. Motibazioaren arabera..." (Moreno Cabrera, J. C. *Administrazioan Euskaraz* aldizkaria, 73.alea: 10)

Beharbada, arestiko azalpenak teoriko samarrak izan daitezke eta ez oso eraginkorrak. Horregatik, oinak lurrean jarri eta azalpen xaloago eta arruntagoak eman beharko genituzke. Eta, hemen ere helduon gaitasunak aipatu eta goraipatu (eta frogatu) beharrean gaude.

Hasteko kontuan izan behar dugu helduok ama-hizkuntza edota beste hizkuntza batzuen ezagupen gramatikalak dituztela, eta hori sekulako abantaila da umeen aldean. Gramatika ez da bakarrik gaitasun unibertsal bat (momentuz nahiko abstraktua) edo hizkuntza baten arau multzo inkonstziente bat, ulertzen eta espresatzen ahalbidetzen duena. Gramatika ere teknika kontziente bat da oso lagungarria izan daitekeena gurea ez den beste hizkuntza bat errazago ikasteko: Adibidez, esaten badiogu ikasle bati euskarazko "-la" eta "-na", erdaraz "que" konpletibo eta "que" erlatiboa dela hurrenez hurren. Eta ikasle horrek baldin badaki bereizten erdaraz, aiseago ikasiko du euskara, gramatika bereiztasun hori ezagutzen ez duenak baino. Beraz, duela zenbait urte hainbat irakasleren artean sortu zen "uholde" antigramatikal hura, baztertu eta ahazteko modukoa begitantzen zaigu, denon kalterako da eta. Gramatika erreminta potente (batzuetan, egia da, traidorea) eta oso lagungarria suerta daiteke.

Gero ere, behin eta berriz (eta maila guztietan) azpimarratu behar da euskal hitzen nolakotasuna (ikus 84. orrialdea), eta errepikatu ere ezin garela izan Aita Santua baino "papistagoak". Alegia, erdarazko *plaza* euskaraz emateko, baldin eta bi izen sinonimo badaude (*plaza* eta *enparantza*) ez dugula beti jo behar "arraroenera" gure errepertorioa osatzeko. Zeren oso ohikoa da oraindik ere garbizalekeria ikasleen artean, eta kaltegarria da oso. Beraz, baztertu dezagun hasiera-hasieratik "mania" hori, eta azaldu *plaza* ere euskal hitza dela eskubide eta duintasun osoz.

Bestalde, euskal aditzaren ustezko zailtasuna, zinetan eta benetan

"antologia" txiki honetako "klasiko" bat da, lau haizeetara aldarrikatua. Eta, egia esan, nahikoa da ikustea "Euskal aditz laguntzailea"ren paradigma, benetan izutu eta zorabiatzeko, bai eta labirinto horretan sartzeko gogoaz errotik kentzeko ere.

Baina ikasleek askotan eta askotan ez dakitena zera da: aditz forma horiek guztiek ez dutela "balio" berbera; ez komunikatibo, ez kuantitatibo edo estatistikoa²²: batzuk behin eta berriro erabiltzekoak dira, eta beste batzuk sekula ez. Eta hori ikasleek jakin egin behar dute. Eta jakin ere aditz horietako askotxo (lehen batean, behintzat) ulertzekoak direla, eta ez gure errepertorioan sartzeko modukoak. Eta horiek ulertzea ere uste baino errazagoa izan daitekeela.

Guk geuk horren harian oso ariketa sinplea egin ohi dugu (ikus 5. eranskina) erdi eta goi mailako ikasleekin: bertan hainbat aditzen baldintza forma sintetiko ematen ditugu, adibidez, *balihoa*, *leudeke*, *baneki*, *letorke*, eta abar. Egitekoa hauxe: aditz trinko horiek identifikatu eta forma perifrastikoan eman.

Hau egin dugun guztietan emaitzak oso positiboak izan dira bi arrazoiengatik. Batetik, ezagutzen ez zituzten aditzak identifikatu dituztelako, analisia erabiliz soilik (testuingururik gabe); eta, bestetik, euren hitzetan, beldurra eta lotsa galdu dizkiotelako euskal aditzaren "mamuari".

²² Gauza bera gertatzen da gaztelaniaz: aditz modu guztiak ez dira berdin baliagarriak. Eta batzuk erabileran iza desagertu dira, nahiz eta "aditz tauletan" egon. Adibidez, inperatibo formak ordeztuak izaten dira gehienetan: "vayamos"-en ordez "vamos". Edo "id" esan beharrean "ir".

Gainera, ikusi ere egiten dute ez direla uste zuten bezain "memoriaren morroi", eta hori liberazioa da eurentzat eta baita irakaslearentzat ere; izan ere, honek ez du aurrerantzean etengabe azaltzen ibili behar izango zer esan nahi ote duen honako edo harako aditz forma "berri" honek edo hark. Ikasleek analizatzeko ohitura hartzen duten neurrian, esanahi ezkutuen bila abiatzen dira jolasa balitz bezala. Hortik aurrera, motibazioak gora egiten du, eta "ezina ekinez egina" egia bilakatzen da.

Euskara zaila den sentsazioa, jeneralean, batera dator gaztelania erraza delako ustearekin. Eta ez azkeneko hau ama-hizkuntza dutelako, ez noski, ezpada berez "sinpleaagoa" delako eta, aukeran, komunikatzeko ere "esaldi laburragoak" darabiltzagulako gaztelaniaz, antza.

Lehen kolpean harrigarria suerta daitekeen arren, uste baino sarriagotan egiten dugu topo sentsazio horrekin, eta subjektiboa denez, arrazionaltasunetik kanpo kokatzen gaitu. Baina ezin etsi eta aurre egin behar diogu kontrako "sentsazioak" plazaratuaz.

Horretarako hona hemen lau ariketa, edo hobeto esateko, lau adibide xume, non argi ikusten den euskara ez dela erdara baino zailagoa, ez ilogikoagoa, ez "luzeagoa".

Pá

1. JENTILIZIOAK

Gaztelaniaz

Euskaraz

Madri-leño

Bilbo-tarra

Bilba-ino

Zegama-rra

Burga-les

Lekeiti-arra

Sevilla-no

Donostia-rra

Valliso-letano

Iruin-darra

Almeri-ense

Lapur-tarra

2. KOLOREAK

Gaztelaniaz

Euskaraz

Roj-izo

Gorri-xka

Blanqu-ezino

Zuri-xka

Azul-ado

Urdin-xka

Verd-oso

Berde-xka

Amarill-ento

Hori-xka

3. ESALDIEN LUZERA

Pá

Gaztelaniaz

Euskaraz

Por debajo de la puerta


Atepetik

4. PARAGRAFOEN SILUETA

Gaztelaniaz



Euskaraz



Beharbada, adibideok ez dira oso "zientifikoak" izango frogatzeko euskararen zailtasun faltsua, baina hemen, berriro diogu, sentsazioen munduan mugitzen gara, eta zin dagigu ikasleen erreakzioa oso positiboa dela ikustean euskararen erregularitasuna eta erdararen irregularitasuna (jentilizio edo koloreetan). Baita haren "moztasuna" ere, uste zutenaren kontra.

Halaber, ikasleek eurek erdaldun "oso" diren irudipena deusezteak ere komenigarria da. Zertarako, baina? Hain zuzen euren helburua delako "gaztelaniaz bezain ondo aritzea euskaraz ere", hau da "primeran". Dena omen dakite erdaraz, eta beste horrenbeste eskatzen diote euskarari: dena jakitea, alegia.

Pá

8.3.1. ZORROTZAK EUSKARAREKIN; LAXOAK GAZTELANIAZ


Eskertzekoa da ikasleak euskaltegira etorri eta euren ahotik hau entzutea: "nik ondo ulertu eta hitz egin nahi dut. Erdaraz bezain ondo". Jarrera eta motibazio aparta erakusten dute hitzok, baina larritzekoa ere izaten da,

zeren, askotan espektatiba horiek izatea sufrimendu iturri ere izan daiteke.

Horregatik, lehenik eta behin kontzientzia hartu behar dute trebetasun guztiak ezin direla maila berean gauzatu inongo hizkuntzatan:

"Ama-hizkuntzan handiagoa izaten da ulermena, idatzizkoarena nahiz ahozkoarena, adierazpena baino. Eta hori normala da, ez baitira berdinak bi prozesuotan ematen diren adimen-ekintzak; bigarrenekoak askoz konplexuagoak dira. Bai ulermenak, bai adierazpenak garapen progresiboa dute, baina beti egongo da asimetria bi prozesuen artean. Aldi berean, ekoizpen-mailako adierazpenak ulermenezkoak baino murrizagoak izango dira, ulermen mailako hainbat elementu maiztasun gutxikoak edo hizkuntzaz baliatzeko beharrezkoak ez direlako. Horrela, ba, xede-hizkuntza ikasterakoan kontuan hartzekoa da aipatu fenomeno hori." (HEOK, 1999: 83)

Kontu hau hobeto ulertu ohi dute azalpentxo hau emanez:



A zirkulua euskara "osoa", hau da, izan dena, dena eta izango dena, dela kontu eginda (euskalkiak, literatura guztia, hitanoa, hiztegiak, lokalismoak, erregistroak, hizkera espezifikoa...), pertsona guztiok (euskaldun zahar zahar eta berri eta euskaldun berri zahar eta berri ez gara hori guztia ulertu, eta are gutxiago espresatzeko gauza. Ulertzen duguna beti da "zirkulu" txikiago bat, hain zuzen, B. Eta B zirkuluan dagoena gure ulermen irispidean dagoena bada, adierazteko kapaz garena, hau da, gure erreperitorio komunikatiboa beti izango da txikiagoa, alegia C. Izan ere, uler dezakegu, adibidez, Atxagak edo Cervantesek idatzi dutena, baina sekula ez gara gai izango eurek legez idazteko.

Eta hori da, guk uste, mundu guztiak bere gain hartu behar duen errealitate faktikoa; bestela, frustazioa garantizatuta dago.

Beraz, dena ez ulertzea edo azaldu ezin izatea gizaki orori gertatzen zaigun zerbait da. Eta, horrenbestez, ezin eskatu euskarari beste edozeini eskatzerik ez dagoena.

Baten batek pentsa lezake arestiko azalpentxo hori *Pernandoren egia* dela, baina oker legoke. Eta horren froga da ikasleak, jeneralean, esker oneko azaltzen direla begibistan dutenean, euren helburua ezin dela izan "superman" izatea, baizik eta zerbait zentzuzko, apal eta lurtarragoa: euskaldunak, batzuetan bikainagoak, bestetan kaskarragoak.

Gainera, zeinen erraza den demostratzea ama-hizkuntzan ere ez direla hain bikainak. Guk geuk urtero egiten dugu proba berbera. Alegia, galdetu ikasleei zer-arraio esan nahi duen zehazki "alevosía" hitzak, edo "pronóstico reservado" esaldiak.

Bigarrena ez hainbeste, baina "alevosía" denek aitortzen dute ulertu eta erabili ere egiten dutela usu. Baina, hara ustekabea! Zenbait abokatuk izan ezik, gainontzeko guztiek sekula ez dute esango zer den: "Hacer algo con maldad" edo "Ensañarse con la víctima" erantzungo dute gehien jota!²³

Pá

Tontakeria dirudi, baina ikasleak oso injustuak izaten dira euren buruarekin: nekez hartuko dute gaztelaniazko hiztegia, eta euskarazkoa,

²³ Aukera hau aprobetxa daiteke jakinarazteko gaztelaniaz (euskaraz edo ingelesez ez bezala) oso hizkera bihurri eta arranditsua darabilgula (Ibon Sarasolak esango luke pedantea), hainbestekoa non askotan ulertezina den jatorrizko hitzunarentzat. Adibidez, hizkera administratibo edo judiziala. Eta esan ere esan dakieke gaztelaniazko esapide asko hobeto ulertzen direla euskaraz. Areago, euskararen bidez ere ikasten dugula gaztelania: razón social---enpresaren izena / reintegro---dirua atera. Eta abar.

ostera, indarrak xahutu arte kontsultatuko dute, gehiegi eta txarto kontsultatu ere.

Era berean, eta ataltxo honi amaiera emateko, aipatu behar dugu bidegabeki jotzen dutela irakurtzerakoan ere.

Ez dakite hizkuntza guztietan lau modu daudela irakurtzeko (eta entzuteko ere bai): gainirakurketa, irakurketa xehea, irakurketa estentsiboa eta intentsiboa.

Eurak era intentsiboan irakurtzen eta entzuten saiatzen dira, helburua edozein dela ere. Eta, horren ondorioz, porrotaren eta euskararen alegiazko zailtasunaren sententzioa areagotzen da eurengan, baita alferrikako sufrimendua ere.

Hortaz, konklusioa argi dago: bi neurri ezberdin dituzte erdara eta euskararekin: harekin permisibo, honekin inkisidore. Erdaraz helburu apalak dituzte, eta euskaraz absurdoak.

8.4. EUSKALDUN OSOAREN MITOA

Pá Bikaintasun erabateko euskalduna izan behar neurotiko hori euskara-ikasle edo ikasi nahiko lukeenaren ideia ez ezik, euskaldun askorena ere bada, zoritxarrez.

Hezkuntza Sailaren web orrian sartuz gero, bertan aurkituko dugu, katixima baten moduan atonduta, EGArean gainean egiten diren gladera-erantzunak:

"Zer da EGA? (...) agiria lortu duen pertsona euskaldun batea dela aitortzen du EGAK."

Baina ez gaitzezen maltxurrak izan. Aurrerago hauxe diote:

"EGA suspenditzeak ez du adierazten azterketariak euskararik ez dakienik, baizik eta C-1 mailako parametroetara ez dela heldu. Besterik ez." Gaitz erdi!

Bide beretik doa HABEren teknikaria den Lourdes Elozegi:

"...Eta hasiera-hasieratik hasi ziren euskaltegiak eta barnetegiak euskaldun osoak sortzen." (Elozegi, L. (2008). Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu. www.erabili.com)

Euskaldun oso, bete...Baina ba ote dago horrelakorik?

Pá

Badirudi Elosegik argi duela:

"Gaitasun komunikatiboa lortzeak esan nahi du hiztuna zerbait egiteko gai dela (...) ahoz zein idatziz (...) eta gauzatu ahal

izateko aukeran dituen baliabiderik egokienak²⁴ estrategikoki gauzatzeko gai dela." (Ibidem: 5)

Guk geuk sentitzen dugu, baina, gure uste apalean, "baliabiderik egokienak" barik, "egokiak" izatearekin konformatu beharko genuke, zeren, bestela ibiliko ginateke zumarrari gari eske, eta hori oso frustragarria da. Izan ere, Txepetxek dioen bezala,

"Es el bilingüe completo o perfecto aquel que conoce los resortes naturales de dos lenguas. Es lo que todos desearían conseguir, y lo que muy contados alcanzan a ser. Es el ideal lingüístico acariciado por muchos, y a veces incluso indecentemente sobado por personas públicas que lo proponen alegremente como objetivo lingüístico de toda la comunidad..."
(Sanchez Carrion, 1991: 161)

Baina ez gaizki ulertu, gero! Ez gara euskaldun kaskarraren apologiarik egiten ari. Aitzitik, zeharo konbentzituta gaude ikastea bizitza osoko eginkizuna izan behar dela guztiontzat, berri zein zahar izan. Eta horixe transmititu beharko genuke, eta ez "EGA dut eta oso-betea eta asebatea naiz"; ondotxo baitakigu zer gertatzen den maiz EGAdunekin: titulua tiraderan sartzeaz batera, euskara ere bertan sartu eta fosildu.

Gainera, a zer-nolako desilusia hartzen duten ustezko euskaldun oso horiek kalera irten eta estropezu egiten dutenean euskalkiekin! Kolpe

²⁴ Azpimarra geurea.

traumatikoa, gero! Euskara erabiltzeko gogoia seko hilda geratzen zaie. Izan ere, batua jakindakoan logikoa deritzote euskalkiak ulertzeari ere. Zelan bestela? Gaztelaniazko dialektoak ere ondo ulertzen dituzte estandarra jakinda. Zergatik ez euskalkiak?

Euskara batua ikasteko "hainbesteko ahalegina" egin ondoren, nola azaldu normala dela, hasiera batean, behintzat, estu eta larri ibiltzea euskaldun zaharrei konprenitzeko.²⁵

Esan bezala, auzi hau behar den moduan konpontzen ez badute, normalean edo erabiltzeari muzin egin edota batuaren gainean direnak eta ez direnak pentsatu eta esango dituzte: artifiziala dela, ortopedikoa, ezgauza... Eta emaitza betikoa: erabili ez eta euskara kamustu (gogoan izan "profezia").

Horregatik behar-beharrezkoa iruditzen zaigu auzi-mauzi hori soluzionatzea, berriro ere beren buruarekin bidegabeki jokatzeko nahi ez badugu. Bada, hemen ere oso injustuak gara euskarari dagokionean.

Hona kontu hau argitze aldera, ikasle baten testigantza:

Pá

"Esteponako autobus-geltokian geundela (andrea eta biok), emaztea altxatu eta autobuseroarengana joan zen zerbait galdetzera. Aldi berean, beste neska batek ere beste zerbait galdetu zion.

Orduan andrea etorri, eta nik:

²⁵ Oso ariketa interesgarria dago Baietz VI esku-liburuan. Hirugarren ikasgaian azaltzen da zer egin behar dugun ulertzen ez dugunean.

-¿Qué te ha dicho?

- No le he entendido ni papa.

- Y a la otra chica, ¿qué le ha dicho?

- La chica como yo: no se ha enterado de nada.

Baina ez pentsatu emakume horiek larritu zirenik ere ez ulertzeagatik, teorian, behintzat, autobuseroa izanda kosmopolitagoa edo, izan zitekeen autobus-gidari andaluziar hori. Ez horixe! Lasai -lasai geratu ziren.

Eta guk, ordea, -jarraitu zuen ikasleak- ganaduaren artetik sekula irten ez den ez dakit zein baserritako euskaldunari ulertu ez, eta aieneka eta *mea culpa*-ka hasi behar!"

Bai. Gure patua hori da: bidegabekeria hirukoitza egitea; batetik, esan bezala, autoflagelatzen gara euskaraz zerbait ulertzen ez dugunean (eta erdaraz berdin digu). Bestetik, bi hizkuntzak egoera berean egongo balira bezala jokatu nahi dugu, hegemoniaren gorabeherak aintzakotzat hartu gabe. Eta, azkenik, oso puristak gara euskaldun garenean, eta zabar-zabarrak erdaraz.

Pá

Horregatik guztiagatik oso tristeak diren, baina gutxiagotasun konplexuak indargabetzeko balio duten "notizia" batzuk helarazi behar dizkiegu ikasle eta ikaslegaiei:

1. Euskara hizkuntza minorizatua da eta, horrenbestez, baditu hainbat aje euskaldun guztiok pairatzen ditugunak. Areago,

"gutxi dira izan ere, mundu zabalean, beren gizarte-bizitza osoko rol-sorta guztia asebetetzen duten hizkuntzak (...) beren espazio soziofuntzionala osorik, alderik alde estaltzen duten hizkuntzak." (Zalbide, M. (2003). Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio? *Iritzi Muinetik*. erabili.com: 28).

Hau da, euskaldun izatea "kontrakultura ekintza bat" da. (Agirre,Lorea, *Berria* 2012ko abenduaren 9a).

2. Tamalgarria ere bada, baina "gutxi dira inguru nagusiki euskalduna izan eta denboraren erdia baino gehiago euskaraz ari direnak." (Amonarriz, Kike; Egaña, Andoni; Garzia, Joserra, 2004: 33).

3. "Kontuan izan behar da gainera, jasan dituen atzerakada historikoa eta funtzio murrizketa direla medio, euskara ez dela garatu hainbat esparru eta funtziotan. Eta, bestalde, batua oraindik ere erabat egonkortu gabe dagoela. Horregatik, esan genezake, une honetan euskal hiztun guztiak garela nolabait euskaldun berri²⁶ eta denok ditugula oinarritzko gabezia linguistikoak."(Amonarriz, K. (2012). 3.2. Gazteen hizkuntza erabilera: hizkuntza kalitatea: 44. HIZNET, Hizkuntza Plangintza

Pá

²⁶

Azpimarra geurea.

Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea)

4. Euskalkiak elkarrengandik oso "urrun" egon arren, batuari esker gero eta hurbilago daude, zeren, askotan pentsatzen dugunaz bestera,

"... Su diferencia fundamental radica en su distinto funcionamiento social, no dependiendo este valor funcional de características del código sino del uso que se haga de cada una de ellas en la sociedad." (Rotaetxe,1990: 23)

5. Ezin gaitezke Aita Santua baino papistagoak izan. Hortaz kontuan izan behar dugu ezen "euskañolik inoiz erabili ez duenak bota dezala lehenego harria" (Amonarriz, K. *Berria* 2013ko otsailaren 20a: 20)

8.4.1 ERROREARI HORRORE!

Gu geu bat gatoz Amonarriz, Garzia eta Egañarekin diotenean argi eta garbi dutela "erabilera dela hizkuntzaren kalitatearen oinarri" (Amonarriz eta alli, 2004: 15). Ados. Baina, era berean, ondotxo ezagutzen dugu ikasleek dioten beldur ikaragarria gramatika erroreari; hainbestekoa non kapaz diren txintik ere ez ateratzeko hankasartzeen beldurraren beldurrez. Eta, ondorioz, betiko gurpil zoroan sartuta gaude berririo: "ez dut euskara erabiliko behar bezain zuzena ez delako, eta nire euskara kaskarra izango da,

besteak beste, erabiltzen ez dudalako." Gramatika arauak haustea beti txarra delako usteak sustrai sakonak ditu gure (in)kontziente kolektiboan. Historikoki XX. Mendeko 80. hamarkadara arte hutsegiteen aurrean hartu izan den jarrera nagusia hauxe izan da: akatsen zuzenketa zigortzailea²⁷. Zorionez, gauzak aldatu dira, baina ez behar bezainbeste.

Euskararen Aholku Batzordeak "Euskararen Kalitatea" txostena argitaratu zuenetik bazirudien argi eta garbi zegoela, euskara dagoen egoeran egonda, zuzentasun, jatoritasun eta egokitasunaren artean, aukeran, azkenekoa zela lehentasuna zeukana. Baina usteak erdi ustell!

Hor jarraitzen dute temati HABEren teknikariek bereari eusten eta zabaltzen zuzentasunarekiko idolatria: "Arauak bete egin behar dira, eta kito!" (Elosegi, L. (2008). Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu. www.erabili.com)

Bai, egokitasuna omen da gaur egun garrantzitsuena, baina, hala ere, HABEren mintzamen-azterketan erabiltzen diren ebaluazio-fitxetan, lehen eta bigarren mailetan "egokitasuna" da gutxien balioesten dena; eta hirugarren mailan arlo guztiek puntuazio bera dute (ikus 7. eranskina). Beraz, esanak esan, zuzentasuna da jaun eta jabe oraindik ere gure artean, horrek dakartzan ondorio tamalgarri guztiekin: batetik, zuzentasunaren nagusitzeak estutu eta zurrundu egiten du erabilera (eta horrenbestez, kalitatea); eta, bestetik, nonahi azaleratzen dira, perretxikoen moduan, euskal "inkisidoreak", fiskalizatzeko adierazpen oro.

²⁷ Komenigarria izan daiteke ikasleei ematea errearen inguruko jarrera historikoa zertan den azaltzen duen taula bat (ikus 6. eranskina). Bertan errearekiko jarrerak nola aldatu diren adierazten da. Eta, gainera, desdramatizatzeko balio du.

Horren harira, hona hemen gure ikasle baten anekdota:

Bera Euskaltelen dabil telefonista erreklamazioak eta, jasotzen eta tramitatzen. Halako batean, ondarrutar batek deitu eta, besteak beste, esan zion sakelakoa erosi zuela "eneron bixan". Gure ikasleak ulertu ez eta, lankide bati kontsultatutakoan, jarraitu zuen: "beno -esan zion- erreklamazio batean jarri dut zure opinioa". Baina Ondarroakoak, antza, euskara garbi-garbia baizik onartu ez eta, zera erantzun zion: "Opinioa ez, iritzia".

Bai. "Taliban" askotxo dabil gure bazterrotan, eta horrek mesede barik, kalte handia eragiten dio erabilerari.

Horregatik euskararen altzora hurbiltzen den orok jakin behar du ezen errorea ez dela soil-soilik ulertu behar "...hizkuntza berriaren sistema barneratzen ari diren adierazpen gisa, eta ez ikaskuntza ezaren adierazle." (HEOK, 1999: 84)

Oso kontuan izan behar dugu gramatika-arauak askotan hautsi egin behar direla geure diskurtsoa egoki, txispagarri, jostagarri edo adierazkorragoa izateko (Amonarrizek esango lukeen bezala, San Ferminetan Euskaltzaindiaren arauak estu-estuki errespetatzen dituenak txarto hitz egiten du).

Gainera, jakitun izan behar dugu honetaz:

"Perpaus barruko kode aldaketa elebidunen arteko komunikazioan oso maiz gertatzen den fenomeno da (...) erabilera horren zergatia, hiztunen euskarazko gaitasun urria baino sakonagoa izango litzateke (konnotazioak, umorea edo ironia) egoera kontestualizatuak azpimarratzeko..." (Amonarriz eta alli, 2004: 41)

Beraz, zenbait agintarik diotena garabehera, "ez dugu ahaztu behar norma eta hizkuntza bizia etsai direla." (Ibidem: 47)

Erroreak (agian hobeto, arau-haustea), beraz, egoki eta are beharrezkoak izan daitezke. Bestela ezinezkoak izango lirateke hitz-joko asko eta asko, jargoak, umorea, jario naturala eta hein batean, baita literatura ere:

"Ezaguna genuen lehendik ere Bernardok euskal prosa ñabarduraz, erregistroz (...) hornitzen egindako ahalegina, hainbat monotonía antzu eta horma estutik ihesi. Gogoratu besterik ez daukagu (...) Old Martinen hizkera bizi eta berezia, ingelesezko hitzez zipristindua." (Esna, 1988: 84)

Pá

Badakigu arauak egoki haustea eta errore hutsa fenomeno desberdinak direla, baina funtsean biak ala biak dira zuzentasunari egindako erasoak. Eta ezin dira, lehen batean, ez errorea demonizatu, ez zuzentasuna sakralizatu, zeren, "zuzentasunari kalte apur bat eginda lortu baitute askok eta askok arrakasta". (Garzia, J. *Berria* 2004ko irailaren 6a: 16)

Ikasleak ere, euskara erabiliko badute, libre sentitu behar dira hutsegiteak egin ahal izateko, "gramatikaren ezpata" gainean eduki gabe. "Erregistro informala behar dute, freskoa, arauak hautsiko dituen, balioko diena" (Azkarate, M., *Berria* 2012ko abenduaren 5a).

Azken batean, ulertu behar dute zerbait zuzena izatea ala ez, ez dela berez zerbait naturala; baizik eta "goitik" ezarritako erabaki kultural bat. Areago:

"Egia esan, berez, hizkuntzetan hutsak ba ote diren galde liteke. Elkarrizketan ari direnek (...) elkarri ulertzen dioten bitartean, hutsik ez dagoela esaten dute Roman Jacobsonek, Noan Chomskyk eta beste goi mailako hizkuntzalariek." (Garate, 2003: 12)

Ezinbestekoa da, beraz, ikasleek neurria hartzea zuzentasun eta erroreari; eta desdramatizatzea, eta ondorioz, indargabetzea hutsak egiteari dioten beldur itxuragabea.

8.5. ENKARTERRIN EZIN OMEN DA EUSKARA ERABILI

Pá

Hamaikatxo aldiz entzun behar izan dugu lelo hori ikasle, ikasle ohi eta, oro har, enkarterritarren ahotik. Eta, tamalez, amore eman beharrean gaude: Enkarterri eskualde erdaldun peto-petoa da. Baina kontu honen inguruan badaude bestelako interpretazio eta ikuspegiak.

EUSTAT-en datuen arabera, adibidez, Balmasedan 2006an euskaldunen kopurua %19,05ekoa izan zen. Eta *Begira* tresnaren estimazioa da 2013an

%37,91 izango direla euskaldun (2019an %68,36).

Halaber, *erabilera isotropikoaren* berri ere ematen digu sistemak; 2006: %2,21; 2013: %9,79 eta 2019: %38,39.

Zinetan eta benetan datuok ez datoz bat guk dugun pertzepzioarekin, ezta gutxiagorik ere. Aitortu behar dugu ez garela adituak estatistika kontuetan, baina gure inpresioa da *Begira* tresna prospektiboak oso kalkulu "kartesianoa" egiten duela. Eta ez duela islatzen errealitate soziolinguistikoak duen aniztasuna. Alegia, ezagutza eta erabilera gora eta gora doazela adieraztea besterik gabe, gauzak larregi sinplifikatzea delakoan gaude; bada, prozesu hauek ez baitira linealak, askoz konplexuagoak baizik.

Dena dela, sistema informatiko hori ez da baikorregia (inozoegia?) den bakarra. Izan ere, duela bi urte gonbidatu genuen gure euskaltegira *Topagune*-ko kide bat erabileraren gaineko zenbait hitzaldi ematera. Eta berak ateratako konklusio nagusia hauxe izan zen:

Kontuan hartuta -esan zuen- Enkarterrin 2006an ezagutza %20koa zela, eta, gainera, eskoletan matrikula gehienak (%80) D eredukoak zirela, ondorioztatu behar dugu etorkizunean eskolakume horiek euskaldunduko dutela eskualdea.

Gure proiektu honen tesi nagusia izan da autobetetzen den profeziaren fenomenoak itzelezko eragina duela errealitatea eraikitzekotan. Areago,

bereziki euskararen erabileran uste dugu eragin hori biderkatu egiten dela.

Esan ere esan dugu gure xedea zela nolabaiteko "kontraprofezia" martxan jartzea. Baina ondo ulertu behar dira gauzak! Edozein inozokeria plazaratzeak ez dauka, berez, indar autoprofetikorik. Hau da, harako hark esaten badu ere 20 urte barru Enkarterri euskaldun izango dela, hala dioelako "orakulu informatikoak"; edo honako honek baieztatzen badu belaunaldi berriek bermatuko dutela euskararen zabalkundea eskualde honetan, zergatik eta D ereduan ikasi dutelako, horrek guztiak, itsu-itsuan sinetsita ere, balio anekdotikoa du gure iritziz, eta ez profetikoa; hain zuzen ere, eguneroko errealitateak, temati, gezurtatzen duelako ameskeria hori. Balio profetikoa du orintxe bertan errealtzat jotzen denak ez beste ezerk.

Gu geu, behintzat, ez gara Axularren ideien jarraitzaile sutuak, baina auzi honetan berarekin ados gaude: ezin gara ibili geroko gerotan: "Datozen belaunaldiek egingo dute...", edo "20 urte barru denok izango gara...", eta era horretako predikzioak egitea daukagu, noski. Baina balizko errotak irinik ez. Beraz, beste bide bat jorratu behar dugula pentsatzen dugu: praktikoagoa eta eraginkorragoa. Arazoa oso sinplea da, eta hasieran aitatu dugu: Enkarterrín ezagutzak aurrera egin bezala, atzera ere egiten du, besteak beste, euskara erabiltzen ez delako. Eta ziur gaude erabilera sustatzeak bi ondorio onuragarri ekarriko lukeela: batetik, ezagutzari eustea; eta, bestetik, darabilgun euskararen kalitatea areagotzea. Hortaz, gure proiektu honetan ahalegin berezia egin dugu erabilerari buruzko mitoak deuseztatzen eta euskara gehiago praktikatu ahal izateko bideak zabaltzen.

8.5.1 IKASLEEN USTEAK

Urtero-urtero egiten dugu eskola berbera ("Euskara enkarterrín") eta beti emaitza berberak jasotzen ditugu.

Hasteko galdetegia (ikus 8. eranskina) ematen diegu ikasleei non, besteak beste, galdetzen zaien zenbat euskaldun ote dauden Enkarterrín euren ustez; halako zenbat ezagutzen duten; euskaltegitik kanpo euskaraz egiten ote duten, eta, hala ez bada, zergatik, eta abar. Hori egindakoa, 2001eko datu estatistikoei erreparatu eta, esan bezala, beti antzeko komentarioak entzuten ditugu:

1. Eurek uste baino euskaldun gehiago daude.
2. Gehienok 10-20 euskaldun inguru ezagutzen dute, bakar-bakarrik.
3. Ez dute euskaraz hitz egiten konfiantzarik ez dutelako, batetik; eta, bestetik, "inork" hitz egiten ez duelako.

Baina, estatistikak datu hotzak besterik ez dira eta oinak lurrean jarri, eta bigarren pausoa egiten dugu: eskatu ohi diegu taldeka jarri eta talde bakoitzak inguruko herri bat aukeratzeko (Balmaseda, Zalla, Gueñes, Karrantza...) Eta zerrendatzeko zenbat leku (denda, bulego, erakunde, taberna, zerbitzu...) ote dauden non euskaraz egitea dagoen. Eta, aurten, esaterako, Zallan 44 toki azaldu dira euskara egiteko aukera ematen dutenak.

Ikasleen erreakzioa, lehengo bera: ezin dute sinetsi hainbeste toki

euskaldun daudela. Ezin sinetsi, baina datuak begibistan dituzte, eta praktikatzeko aukerak ere errealak dira. Beraz, euren "idearioa" kolokan jartzea lortzen dugu: praktikatu ezina ez dago hor "kanpoan"; aitzitik, nork bere barruan daraman zerbait da.

Azkenik, zera proposatzen diegu: udaleko euskara-arduradunak balira, zer neurri hartuko lukete euskararen erabilera sustatzeko? Eta erantzunak askotarikoak izaten dira: euskaltegiaren tasak jaistetik, astebururo bertsolaritza-saioak izatera. Batzuk zentzuzkoagoak, bestetsuk itxuragabeagoak; baina betiere iradokitzaile eta aberasgarriak.

Eskola sinple horrek beti lortzen du duen helburu apala: harrezkero kontzientzia hartzen dute euskara erabiltzea edo ez erabiltzea ezin diotela leporatu inguruari bakarrik. Zerbait pertsonala ere bada, eta espazio, momentu eta pertsona euskaldunak topatzea eurei ere badagokie, eta ez da hasieran sinesten zuten bezain zaila: borondatean dago koxka. Eta konfiantzan. Baina nola sendotu bata eta bestea?

8.5.2 ERABILTZEA HITZ EGITEA OMEN DA SOILIK

Askok uste dute ezagutza edo jakintza bermatuta dagoela, eta orain erabilera landu behar dela, bi prozesu ezberdin balira bezala. Baina,

"ikasketa prozesua eta erabilera guztiz loturik daude; erabilera bera da neurri handi btean ikasteko modurik egokiena, eta baita ezagupena finkatu eta sozializatzeko berme nagusia ere" (Amonarriz eta alli, 2004: 45).

Azken inkesta soziolinguistikoetan nabarmentzen da azken urteetan erabilera ez aurrera ez atzera dagoela, eta "egungo egoeran geratzen bada, honek atzerako bidea besterik ezin du hartu." (Mendizabal, J., *Berria* 2012ko abenduaren 2a: 3).

Baina zer da erabilera?

Askotxok (gure ikasleek ere) argi dute: hitz egitea.

"Euskara bizirik nahi dugun euskaldunok (...) jakin behar dugu euskaraz nonahi eta etengabe hitz egitea dela egin dezakegun euskararen aldeko ekintzarik funtsezkoena, lehendabiziko eta garrantzitsuena." (Arrieta, A., Fernández, I. (2012). 1.6. Komunikazioa euskara sustatzeko: 75. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea).

Badakigu hitz horiek "enfatiko" samarrak (?) direla, baina lehen kolpean badirudike euskaldunok, benetakoak izateko, bihurtu beharko genukeela berbalapiko hutsak. Eta, egia esan, horrelako zerbait imajinatzen dute gure ikasleek, berriro ere, denon kalterako. Zeren, zentzugabeko jomuga hori iritsiezina denez, zertarako lanak hartu erdipurdiko euskalduna izateko?

Ikasleak, ordea, ez dira *erabilera* = *hitz egitea* identifikazioa egiten duten

bakarrak. Guk dakigula, erabilerari buruzko inkesta eta neurketetan horrexeri erreparatzen diote nagusiki, eta ez dute kontuan hartzen erabiltzea haratago doala.

Honen harira eskolan ariketatxo hau²⁸ egin ohi dugu:

Hona hemen geure bizitzan hizketan, entzuten, idazten eta irakurtzen ematen dugun gutxi gorabeherako denbora. Lotu ehunekoak eta jarduerak zeure iritziaaren arabera.

%45	idazten
%16	mintzatzen
%30	entzuten
%9	irakurtzen

Ariketa egin dugun azkeneko aldian erdiek asmatu dute, eta gainerakoek mintzatzeari esleitu diote portzentajerik altuena. Hau da, irudipena dute entzuten baino denbora gehiago ematen dutela berbetan! Baina, jakina, apur bat hausnartu eta gero jabetzen dira burugabekeria galanta dela, zeren, gure denbora, gehien bat, entzuten pasatzen dugu; gero mintzatzen; gero irakurtzen eta, azkenik, idazten²⁹.

Pá

²⁸ Iturria: Baietz VI, Edurne Etxeberria eta alli, 1993: 65

²⁹ Azken datuen arabera, gero eta gehiago irakurtzen eta idazten dugu (eta gutxiago hitz egiten), batez ere, teknologia berrien eraginez eta gizartearen "atomizazioaren" ondorioz.

Horixe da logikoena, eta ez etengabeko berbajarioan ibiltzea. Horregatik ondo etorriko litzaiguke gauzak diren bezala esplikatzea, arazo eta konplexu asko saihesteko.

Eta gauzak diren bezala azaltzea hauxe da: ozen aldarrikatzea, ezen entzutea eta irakurtzea ere euskara erabiltzea dela. Horregatik ez dugu ulertzen zergatik gutxiesten dituzten trebetasun hartzaileak hainbat adituk "pasiboak" deituaz³⁰. Edo zergatik harritzen diren beste zenbait, egiaztatzen denean entzumen eta irakurmen gaitasun-maila beti izaten dela altuxeagoa mintzamen eta idazmenarena baino.

"Sorpresa txikiak jasotzen dira ordea, normalean gaitasun-mailaren aldetik han-hemen agertuz doazen ikerlanetan (...) euskarazko gaitasun pasiboetan trebeago dira gure ikasleak, oro har, aktiboetan baino." (Zalbide, M. (2003). Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?: 26 *Iritzi Muinetik*. erabili.com)

Trebetasun aktibo/pasibo sailkapena engainagarria izateaz gain, zorigaiztoko ondorioak ekarri ohi ditu: denok izan nahi dugu aktibo eta ez pasibo. Orduan zertarako irakurri eta entzun?

Infernuzko dialektika hori urtero sufritzen dugu irakasleok, ikasleek dagokien mailako azterketa idatzia egin ondorengo lehen eskola-egunetik

³⁰ 2012-2013HIZNET graduondokoaren sarrera-ekitaldian horrelaxe definitu zituen Martinez de Lunak.

bertatik: gelan sartu, zerbait irakurtzeko eskatu eta zapla! "Zergatik irakurri behar dugu? -diote- Orain hitz egin behar da ahozko azterketarako."

Ez dute ikusten irakurtzearen eta hobeto hitz egitearen arteko lotura estua. Eta, nekez eta ekinaren ekinez saiatu behar dugu honetaz konbentzitzeko: gure garai honetan, irakurtzen ez duenak, jeneralean, txartoago berba egiten du. Eta kausa-ondorio erlazio hori egia matematikoa da, bai euskaraz, bai edozein hizkuntzatzen. Horren guztiaren ondorioz, erauzi beharko genuke geure diskurtsotik "aktibo/pasibo" dikotomia hori behin betiko.

"Lau trebetasun nagusi horien artean baditugu, bestetik, trebetasun sortzaileak (mintzamena eta idazmena) eta hartzaileak, bestetik (entzumena eta irakurmena). Azken hauei trebetasun pasiboak ere deitu izan zaie. Oker deitu ere; eta oker hori sor daiteke hitz egitea eta idaztea kanpotik behagarriago diren ekintzak izatetik. Halere, entzutea eta irakurtzea trebetasun aktiboak dira, operazio konplexu ugari eskatzen dute, nahiz eta kanpotik behagarriak ez izan. Trebetasun hartzaileetan hizkuntzaren esparru zabalagoa jasotzen da; sortzerakoan, aldiz, ulertzen dena baino gutxiago erabiltzen da." (HEOK, 1999: 39).

Pá

Aipua, aukeran, luzetxoa da, baina merezi du osorik paratzea darabilgun auzi-mauzi horri kittoa emateko. Eta komeni ere komeni da ikasleei hori guztia jakinaraztea hasiera-hasieratik. Hortik dator ikastaro honetan garatu

dugun ondoko plana:

IRAKURKETA EGITASMOA

Ikasle gehienek ez dute gogoko irakurtzea (nahiz eta guztiei gustatuko litzaiekeen irakurtzea gustagarri suertatzea), eta ez dute irakurtzen, non eta ez dauden behartuta. Eta okerrago dena: animatzen diren bakoitzean, txarto planteatzen dute irakurketa: liburu bat ausaz aukeratu eta mesanotxean paratzen dute seko geldirik hainbat hilabetetan, harik eta egun batean hartu, eta euskaltegira eraman arte: "itzuliko dizut hau, ze, irakurri dut pixka bat, eta ez zait gustatu. Eta zaila da."

Gure iritziz, gauza guztietan bezala, hasierak izaten dira gogorragoak; hori dela eta, gogo onez irakurtzen hasi behar izanez gero, hastapenak samurtu egin behar dira eta egoki girotu; osterantzean, kontrako efektua lortu dezakegu.

Horrela, bada, ekintza-andana prestatu dugu irakurtzea ohikoa eta ez traumatikoa bihurtzeko ikasleen artean.

1. Lehen Ekintza: liburuak.

a) Liburutegira joan eta, gainirakurketa eginez, hautatu hiruzpalau liburu (mesanotxean bakarra izateak ez ditu asebetetzen egunean-egunean izaten ditugun apeta ezerdinak).

b) Irakurtzeko ohiturarik izan ezean, hobe ipuin bildumak,

narrazio laburrak edota istorio independenteak biltzen dituzten liburuak. (Kontua da 10-15 minutuko irakurraldia egitea egunero, eta bertan amaitzea dena delako irakurgaia, hasi eta buka.)

- c) Nahiz eta liburua osorik amaitu ez, berehala bueltatu behar da euskaltegira, irakurtzen jarraitzeko gogorik izan ezean. Eta bertan beste bat hartu.
- d) Ikasgelan *Irakurleen Taulan* apuntatu behar da liburuaren izena, generoa, egilea eta iruzkin laburra. Horrela ikaskideek norberak irakurritakoaren berri izan dezakete, eta, hala erabakiz gero, eurek ere aukeratzea dute besteek gomendatutakoa. (Iruzkinak irakurtzetik zuzen-zuzeneko inpresioak konpartitzera igarotzea da xedea.)

2. Ekintza: aldizkariak

Ez da nahikoa liburuen "zirkuitoa" antolatzea. Bestelako irakurgaiak ere berenganatu behar dituzte: aldizkariak, egunkariak, komikiak... Gure kasuan aldizkari bana eman (HABE, Aizu, Argia, Elhuyar...) eta etxean astebete eduki eta gero, berriro klasera eroan eta elkartrukatu behar dira, etengabeko katea osatuz. Gainera, elkarri ematerakoan zer irakurgai egin zaien interesgarria aipatzen dute.

3. Ekintza: eguneroko irakurgaia

Irakasleak handik eta hemendik bildutako irakurgai laburrak (egunkari, liburu, edo aldizkarietakoak) banatu egiten dizkie ikasleei (egun bakoitzean bizpahiru), hurrengo egunean taldetxoka bata besteari kontatzeko eta komentatzeko.

4. Ekintza: internet

Ikastaro hasieran ere hainbat web helbide eskaintzen diegu eurek "saltzeatzeko".

5. Ekintza: IVAP aldizkaria

Hasieran ere doako harpidetza egin ahal izateko informazioa esku-eskura ipintzen diegu.

6. Ekintza: ozenki irakurtzea

Gure iritziz, hizkuntza bat praktikatzeko egon daitekeen ariketarik merkeena eta osoena horixe da: ozenki irakurtzea. Umeek modu naturalean egin ohi dute, baina helduok galdu dugu usadio mesedegarri hori, dela lotsagatik, dela hala inposatu zigutelako eskola-garaian. Hala ere, ohitura hori berreskuratzea, nekeza hasieran, baina oso gomendagarria da. Zeren, lau trebetasunak lantzen dira aldi berean: zuzenean irakurmena, entzumena eta mintzamina. Eta zeharka idazmena ere bai; bada, eredua izatea baita idazteko lehen baldintza.

Baten batek pentsa lezake egundoko kontraesana dela, batetik, esatea irakurtzekotan "hastapenak samurtu" behar direla eta "egoki girotu" behar dela jarduera hori; eta, bestetik, testu zaparrada botatzea ikasleen gainera. Baina ez da horrela.

Gure helburuak honakoak dira:

1. Irakurtzeko aukerak eta materiala ugaltzea.
2. Testuak belarrietatik ere sartzea.
3. Irakaslearen aginduetatik libre (inor ez dago behartuta) elkar motibatzea.
4. Irakurketa konpartitu eta sozializatzea.

Zeren irakurketa,

"Konpartitzen dugun unetik zentzu bat hartzen du irakurketak, eraiki egiten dut irakurketa eta iristen naiz nire burua bera bakarrik iritsi ez den leku batera. Irakurketatik harago doa, ahozko adierazpenak sekulako indarra du, iritziak eman behar ditugu eta mintzamena garatzeko modua da."
(Eizagirre, E., *Argia* 2012ko abenduaren 30a: 10)

Horiek izan dira, eskolaren didaktika eremutik kanpo, irakurmena lantzeko gure proposamenak. Dena dela, eta ikasleek egiten dutena egiten dutela ere,

inportanteena da ondokoez jakitun izatea:

1. Lau modu daudela irakurtzeko, eta laurak praktikatzekoak (ikus 105. orrialdea).
2. Hiztegia kontuz, tentuz eta neurriz baliatu beharra dagoela: hobe zerbait ez ulertzea, irakurraldia etengabe moztea baino, hiztegian begiratzeagatik.
3. Irakurtzeak sei onura edo abantaila ditu:

"... borondatea indartzen du; adimen-gaitasuna hobeto egituratzen du; ordena,metodoa, kontzentrazioa eta diziplina ematen ditu; gauzekiko interesa eta jakin-mina ugaltzen ditu; jarduera ez didaktikoen ezagutza bultzarazten du; ortografia hobetzen du." (Iturralde, 2012: 46).

4. Irakurtzea zerbait magikoa ere bada:

Pá

Bestearen arimaren barru-barruan sartzea ahalbidetzen digu; sekula burutik pasatu ere egingo ez litzaigukeenaz jabetzen gara; bizi ezin ditugun bizitzak eta bizimoduak eskura jartzen dizkigu; gureak ez diren hitzak, ideiak, estiloak geureganatzeko aukera ematen digu; eta, gainera, une batez autoreak bera bilakatzen gara: Atxaga irakurri eta Atxaga bihurtzen naiz.

"Sólo la escritura desliga el lenguaje de la situación concreta y lo vuelve independiente de su contexto inmediato (...) Este es el motivo de que las religiones más evolucionadas (judaísmo, cristianismo, islam) identificaran sentido y escritura (Sagradas Escrituras)" (Schwaritz, 2002: 433)

PLAN PERTSONALA

Pá

Egitasmoaren azken pausoa da orain azalduko dugun plan pertsonal eta integrala.

Agerian geratu denez, egia da trebetasun guztiak "aktiboak" direla; argi dago irakurtzea ere idolatratzen dugula, besteak beste, ezagutza eta konfiantza areagotzen dituelako; halaber, jakina da hizkuntza normalizatzea

zerbait kolektiboa dela; baina ezin ukatuzkoa da ahalegin indibiduala oinarri-oinarrizkoa ere badela.

"Orain gainera ikusi dut arnasmune ez dela hainbeste gune fisiko bat, arnasmune izan gaitezkeela euskaltzale bakoitza, edonon gaudela ere, jarrera aktiboa hartzen badugu euskararen alde" (Irizar, Mikel, *Argia* 2013ko martxoaren 31a: 22)

Edozein modutan ere, ezin dugu jarri gure indar guztia trebetasun bakar batean, plana hankamotz gelditzea nahi ez badugu.

"Hona trebetasunen integrazioaren aldeko zenbait arrazoi: a) ekoizpena eta ulermena txanpon beraren bi aldeak dira, elkarrengandik banandu ezin direnak biak; b) interakzioak esan nahi du mezuak igortzea eta jasotzea; c) ahozko eta idatzizko hizkuntza sarritan (ez beti) elkarloturik daude; d) hizkuntzaz baliatuz egiten denari garrantzia emanez, lau trebetasunen integrazioa bultzatzen da; e) trebetasun batek bestea indartzen du: entzundakoa oinarritzat hartuz moldatzen dugu mintzaira, eta irakurritakoaz idazmena.

Trebetasunak, bada, ez dira elementu diskretoak, elkarrekin konbinatuak baizik. Beraz, ez da komeniko konpartimentu itxi bezala kontsideratzea, eta horrela programatzea. Halere, zilegi eta beharrezko izango da trebetasunen batean, are, azpitrebetasunen batean inziditzea, hala dagokionean." (HEOK,1999: 40)

Beraz, hona azken atazaren nondik norakoak:

Ikasleei proposatzen diegu apur bat pentsatzeko eta eskema batean jasotzeko aurreko astean (egunez egun) eskolatik kanpo zer egin duten euskaraz. Taldeka komentatu ostean, arbelean idazten ditugu egindako jarduerak: batak eta besteak diotena konpartitu egiten dugu. Helbura da elkarren berri izatea eta, ahal bada, eguneroko itsaso erdaldunean gero eta irla euskaldun gehiago (espazio, une, pertsonak) integratzea geure bizitzan.

Hartara, hau da, ideia edo iradokizun gehiago eskuratzeko zenbait euskaldun berriren testigantzak entzuten ditugu³¹. Irakurri ere egiten dugu beste zenbait euskaldun berrik erabili dituzten hainbat trikimailu³² ikasteko eta erabiltzeko. Eta azkenik, irakasleak zerrenda ireki bat ematen die, non trebetasun guztiak gauzatzeko jarduera zenbait agertzen diren (ikus 9. eranskina).

Amaitutakoan nork bere plana egin dezake, hain zuzen, euskaraz egiten ez zituen gauzak, poliki-poliki hurrengo asteetan egiten hasteko; alegia, itsaso erdalduna irla euskaldunez zipriztintzeko. Ikasleak euren buruaren jabe dira: eurek kontrolatzen dute autonomia osoz zer egin eta zer ez. Gero, zer esanik ez, eskolan prozesu eta aurrerapausoen berri ematen dute, eta, elkarren berri izateaz gain, elkarren "akuilu" ere bihurtzen dira.

Pá

Hemen, gauza inportante gehienetan bezala, filosofia hauxe da: "egin dezagun gutxi, egin dezagun beti". Jarduera nimiñoena ere (erosketa-zerrenda euskaraz egitea, kasu) balio handikoa da. Ezin da mespretxatu

³¹ Barrenet 1. ikastunitatea (Euskaldunaren hitza ez da ur gainera bitsa) E ataza: Jalgi hadi plazara, in www.ikasbil.euskadi.net

³² Ikus HABE aldizkarian Hamaika trikimailu atala.

(txotxolokeria galanta litzateke eta) xehetasun txikiena ere: kontua da geroko asteetan aurrekoetan baino zerbait gehiago egitea euskaraz normaltasun osoz. Eta, noski, hori guztia gainerakoekin partekatzea, zeren, "normalizaziorako aurreuposatzen den beste baldintza bat izateko nahia da. Hau pertsonengandik komunitatera eta komunitatetik pertsonengana doa." (Zalbide, M., Erize, X., (2012). 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskupenerako hainbat hurbilpen teoriko: 95 HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea).

9. KONKLUSIOAK ETA EMAITZAK

Pá

Sakontze-egitasmo honen abiapuntuan Enkarterrin planteatzen zaigun problematikari erreparatu diogu: euskara ikasten duten askok gaitasuna galtzen dute, besteak beste, praktikatzen ez dutelako. Eta, gainera, ikasi nahiko luketen beste hainbeste ez dira animatzen hainbat arrazoirengatik.

Egiaztatu ere egin dugu euskaldun izateko asmoa duen jende ugari leporatzen diotela euren porrota edota ezintasuna kausa hauei: 1- "Euskara oso zaila da". 2- "Zaharregia naiz horretarako". 3- "Hemen ezin da praktikatu".

Baina proiektu honetan konprobatu dugu frakasoaren atzean bestelako arrazoi sakonagoak (errealagoak?) daudela:

- 1- Ikasleek helburu absurdoak planteatzen dituzte.
- 2- Ez da irakurtzen behar bezala, ezta entzuten ere (sarritan jarduera horiek gutxien dira).
- 3- Sekulako beldurra diote huts egiteari. Eta dena ez jakiteari. Eta dena ez ulertzeari.
- 4- Irakasleok (eta hizkuntza arduradun batzuek ere) maiz ideia faltsu eta etxekalteak sustatzen ditugu: hutsetik abiatzen dira helduak ikasterakoan. Trebetasun batzuk "pasiboak" dira. Euskaldun "osoa" izatea da xedea. Praktikatzeari hitz egitea da, besterik ez. Ezagutzak ekarriko du erabilera nonbait...
- 5- Oso zorrotzak dira euren buruarekin euskara tartean denean; eta errukitsuegiak erdaraz.

Pá

Eta ikusi dugu oztopo objektiboak gorabehera, oso errealak diren bestelako traba subjektiboak (mito, sineskeria, uste ustelak) eragin autoprofetikoa dutela. Hau da, benetakotzat jotzen dugunak, hala izan zein ez izan, benetako

ondorioak dakartzala: jeneralean ondorio frustragarriak.

Egitasmoaren ibilbidean saiatu ere saiatu gara mito horiek guztiak indargabetzen, hain zuzen ere, ikasleen energia hobeto kudeatu ahal izateko, eta etekin gehiago ateratzeko egiten duten ahaleginari. Eta bai bestelako ikuspuntuak garatzeko ere euskararen auzi honetan.

Abian jarri dugu hainbat teknika ikaskuntza eta erabilera samurtu eta errazteko. Eta orain, labur-labur, emaitzen berri emango dugu:

IKASKUNTZA

Pá

- 1- Ikasle gehienek adierazi dute euskarari, hein batean, beldurra galdu diotela: ez omen da hizkuntza "kriptiko" ulertezina.
- 2- Badakite gauza askoren jabe direla helduak izateagatik beragatik. Eta trebezia horiek aplikatzen dituzte.

- 3- Zenbaitetan "tortura" hutsa zena (ez ulertzea hitz bat, kasu) "jolas" bihurtu da: "detektibe"-lanak egitea dute gustuko.
- 4- Antsietate maila gutxitu eta pentsamendu positiboak gehitu omen dira euren artean: dena ez jakitea normala da, baita euren ama-hizkuntzan ere.
- 5- Jakitun dira, gainerako trebetasunen aldean, mintzamen eta idazmenean denok garela apal, xalo eta "eskasagoak" ezinbestean. Hau da, kontua dela gure errepertorioa osatzea ditugun beharren arabera. Baina ezin direla trebetasun guztiak maila berean garatu.

ERABILERA

Pá

- 1– Denok aitortu dute inoiz baino gehiago irakurri dutela, eta, gainera, nekerik gabe.
- 2– *Irakurketa planak* ikasturte osoan iraun du, eta, batez beste, launa liburu "irentsi" dituzte osorik, eta beste horrenbeste erdizka.

- 3– Irakurgaien berri elkarri ematea oso aberasgarritzat jo dute, eta akuilu gisa funtzionatu omen du.
- 4– Ozenki irakurtzearena ikasle bakan batzuek praktikatu dute azterketara joan aurretik. Baina euren esanetan, "jariotasuna hobetzen du".
- 5– Euren ordenagailuetako "gogokoenak" atalean denek erantsi dituzte *web* euskaldunak.
- 6– Lau ikasle *Berria* egunkaria erosten hasi dira larunbat eta igandeetan.
- 7– Denek aipatu dute euskal aldizkari, artikulua, elkarrizketa, eta abar dutela etxean esku-eskura lehendabiziko aldiz.
- 8– Zenbaitek esan dute hasi direla euskaraz irakurtzen, lehen alboratzen zutena: kartelak, bandoak, publizitate-liburuxkak...
- 9– Bakan batzuek ekin diote eguneroko testu laburrak idazteari: oharrak, erosketa-zerrenda, zenbait mezu elektroniko...
- 10–Guztiek kontsumitzen dute lehen baino gehiago irrati eta telebista euskalduna.
- 11–Hiru ikaslek eman dute izena Enkarterriko *Berbalagun* proiektuan.
- 12– Eskola-talde bateko sei kidek antolatu dute euren *Berbalagun* txiki eta propioa, astean behin elkartzen direlarik euskaltegitik kanpo.

13–Gehienek aipatu dute zertxobait gehiago berba egiten dutela kalean edo etxean (zenbait denda eta tabernatan, txakurrarekin (!)...)

Emaitzak guretzat pozgarriak dira (ez saltoka hasteko modukoak, baina). Hala ere, jakitun gara saio xume bat baizik ez dela izan eta bide luzea dagoela egiteko arlo honetan. Jakin ere badakigu proiektua garatu dugula euskaltegi txiki bateko ikastalde gutxiarekin. Baina gure itxaropena da baliagarria izatea besteren batentzat ere. Edo, gutxienez, iradokitzailea izatea norbaitentzat; zeren, euskaldun izateak (eta ez bakarrik euskaraduna) badauzka, eduki, beste hainbat balio ezkutu azaleratu behar direnak. Adibidez, linguistika kognitiboa gutxi landutako eta oso eremu emankorra izan daiteke euskararen aldeko diskurtsoa indartzeko.

Horretarako, gauza guztien gainetik, gauzarik behinena da behialako profeta batek esan zuena: "creer es crear".

10. AMAIERA

Pá

Euskararen normalizazioaz ari garenean, funtsean komunitate baten porrotaz hitz egiten dugu: Trikili-trakala, aurrera eta atzera doan ahalegin baten ibilbideaz.

- Euskarak ez zituen funtzio eta esparru batzuk bereganatu ditu, baina bereak bakarrik ziren beste batzuk partekatu behar ditu orain

erdararekin.

- Ezagutzak gora egin du, baina erabilera trabatuta.
- Fisika subatomikoaz hau eta hura egin daiteke, baina lagunartean motz geratzen gara.
- Jarrera, oro har, aldekoa da, baina jokabidea ez dator bat borondatearekin.
- Motibazio identitarioari instrumentala gailendu zaio, honek dituen alde on eta txar guztiekin.
- Milaka ekitaldi eta jarduera egiten dira euskara sustatzeko, baina askotan ohartzen gara gurera etorri bezala, joan egiten dela gugandik.
- Hizkuntza koofiziala da, baina beti bigarren mailako.
- Gero eta pertsona gehiagok aitortzen diote balio kultural eskerga, baina beste hainbestek, harribitxi baliotsuen moduan, gotor-kutxan sartu eta bertan fosiltzen uzten dute.

Pá

Eta soluzio-bideak planteatzerakoan ere mutur-muturreko iritziz kontrajarriak topatzen ditugu:

- Batzuek azpimarratzen dute jarrera eta motibazioa direla oinarri funtsezkoena; alegia, aurrera egiteko inplikazio pertsonala dela motorra:

"Hizkuntza batekin lau gauza egin daitezke: hitz egin, irakurri, idatzi edota produktuak erosi eta dastatu. Hori bakoitzak egin behar du, bere bakardadean, bere etxean, bere baitako indar batez." (Aristi, P. *Berria*, 2008ko ekainaren 1a, Euskara salbatzeko dekalogo).

Beste batzuek, oster, diote hizkuntza ez dela erabiltzen motibazio-kontzientzia edukitzeagatik.

"Hizkuntza usuarioa ezin dela kode linguistiko eta psikologiko mugatu autonomoen dinamikapean interpretatu. Bestela esanda: gizarte-ohitura berezi hau gizarte beraren osotasun-agerpen izan ohi dela." (Odriozola, 1998: 25)

- Zenbaiten ustez arnasgune fisikoak dira gakoa. Eta bestetsuen irudiko, berriz, psikologikoak.
- Askok diote eskolak euskaldunduko dituela gure herri eta hiriak. Aitzitik, beste zenbaitek pentsatzen dute euskaldundu barik, gure seme-alabak behin-behineko "euskaradun" direla, goian jota.
- Batzuk neurri koertzitiboen aldekoak dira; eta beste batzuek, aldiz, limurtze-teknikak hobesten dituzte.
- Badaude diotenak esfortzu pertsonala dela giltza; eta, honen kontrakoek sinesten dute independentzia politikoa dela bide bakarra.

- Azkenik apokaliptikoek uste dute globalizazioak hizkuntzen gainbehera ekarriko duela, eta, horrenbestez, alferrikakoa dela hizkuntza aniztasunaren alde ezer egitea. Baikorrenek, oster, inperio globalaren aurkako erreakzioan dituzte ipinita euren esperantzak. Nahi dutena da globalizazioak balio izatea uniformizatzeko barik, mundu honetan dauden "beste mundu anitz horiek" geureganatu ahal izateko.

Antza denez, ezin gara libratu dialektika manikeo hauetatik: aktibo vs pasiboa; objektiboa vs subjektiboa; ongia vs gaizkia... Beraz, agian garaia da elkarren aurkako omen diren ikuspegi kontrajarriek pixka bat bat egin eta ulertzeko egia eta gezurra (oso kontzeptu erlatibo eta aldakorrak beroriek) zer den jakitea gutxienezkoa dela. Benetan axola duena da eraiki nahi dugun errealitatea behar bezala izendatzen hastea, zeren, izena duen oro bada.

11. BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, Kike; Egaña, Andoni; Garzia, Joserra (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza
- Amonarriz, K. (2012). *3.2. Gazteen hizkuntza erabilera: hizkuntza kalitatea*: 44. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea

- Amorrortu, Esti; Barreña, Andoni; Idiazabal, Itziar eta Ortega, Ane (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Unesco Etxea
- Arejita, A., Manterola, A., Oar-Arteta, S. (2007). *Euskararen geografia historikoa*. Vitoria-Gasteiz: Labayru Ikastegia
- Arrieta, A., Fernández, I. (2012). 1.6. *Komunikazioa euskara sustatzeko*: 59. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Arrieta-Urtizberea, Agustín (2010). *Sinesmenak eta usteak*. Irun: Alberdania
- Berger, Peter L. eta Luckmann, Thomas (2001). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu editores.
- Ellis, John (1988). *Teoría de la crítica literaria, Análisis lógico*. Taurus.
- Elozegi, L. (2008). *Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu*. www.erabili.com

- Esnal, Pello (1988). *Obabakoak. Zutabe 18*. Donostia: HABE.
- Etxaburu, Urrate (2010) *Motibazioaren garrantzia hizkuntza ohituren aldaketan*. Hiznet 09-10eko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).
- Etxaniz, Xabier (2007). *Literatura eta ideologia*. Utriusque Vasconiae.
- Garate, Gotzon (2003). *Euskarazko tradizioa eta molde berriak*. Bilbo: Gero.
- Hartsuaga, Juan Inazio (2010) *Euskararen egoerari irizten*. Hiria.
- Helduen euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (1999) Donostia. HABE
- Iturralde, Joxemari (2012). *Kaleidoskopia*. Pamiela.

Pá

- Klein, Naomi (2007). *La doctrina del shock: El auge del capitalismo del desastre*. Editorial Paidós.
- López, Janire (2007). *Euskara ikasleen autoirudia eta motibazioa*, Hiznet 06-07ko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).

- Martínez, Z., Berri-Otxoa, K., Altuna, O., Jausoro, N. (2012).
2.1. Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. 14.
HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Merton, R.K. (1964). *Teoría y estructura sociales*. México: FCE.
- Odriozola, Jose Manuel (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*.
- Perales, Josu (2003). Hizkuntzak ikasteari buruzko usteak: gaia zertan den, *Hizpide* 54.
- Perales, Josu (2004). Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta, *Uztaro* 50
- Perales, Josu (2012). *Hizpide* 79.
- Rotaetxe, Karmele (1990). *Sociolingüística*.
- Sánchez Carrión, José María (1991): *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, 2.ª ed. San Sebastián: Adorez eta Atseginez Mintegia, Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo".
- Sánchez Carrión, José María (1999): *Aplicación sociolingüística*

de la territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara: sistemas modélicos de interpretación, modelos sistémicos de actuación. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao.

- Schwaritz, Dietrich (2002). *La Cultura*. Taurus ediciones.
- Zalbide, M. (2003). Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio? *Iritzi Muinetik*. erabili.com)
- Zalbide, M., Erize, X., (2012). *1.3. Hizkuntza gutxituen berreskupenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zumalde, Elias (2007) *Erdaldunak eta euskara planak*, Hiznet 06-07ko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).

Pá

12. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

LEHEN KLASERAKO GALDEKETA

IZEN-DEITURAK:

IKASKETAK:

ADINA:

1-Zergatik ikasten duzu euskara?

2-Non eta zer ikasi duzu orain arte (euskaraz gain)?

3- Zein da orain duzun maila?

4-Zein da zure helburua ikasturte honetan? HABE, IRALE...mailaren bat lortzea? Zein?

4- Zure ustez zelan ikasten da hizkuntza bat?

5- Zer egiten duzu euskaraz zure eguneroko bizimoduan?

Pá

6- Zer gustatzen zaizu euskaratik?

7-Eta zer ez zaizu gustatzen?

8-Etxean baduzu?

- Euskal gramatikarik.
- Hizteirik
- Euskarazko liburu, komiki, aldizkari..
- besterik

9- Ikasturterako proposamenik baduzu?

2. ERANSKINA

Pá

Ikastearen gaitasunak

1 = Ez nago batere ados.

2 = Ez nago ados.

3 = Ez ados ez aurka.

4 = Ados nago.

5 = Guztiz ados nago.

1	Errazago ikasten dute H ₂ haurrek helduek baino.	1	2	3	4	5
2	Batzuek halako dohain berezia dute hizkuntzak ikas- teko.	1	2	3	4	5
3	Ikasten ari naizen hizkuntza oso zaila da.	1	2	3	4	5
4	Oso garrantzizkoa da H ₂ bikain ahoskatzea.	1	2	3	4	5
5	H ₂ z hitz egiteko H ₂ ren jatorrizko hiztunen kultura ezagutzea beharrezkoa da.	1	2	3	4	5
6	Ez da H ₂ z ezer esan behar zuzen esateko gai izan arte.	1	2	3	4	5
7	H ₂ bat dakienak errazago ikasiko du H ₃ .	1	2	3	4	5
8	Hobe da H ₂ erabiltzen den lurraldean bertan ikastea.	1	2	3	4	5
9	H ₂ ikastea hitz bat ulertzen ez baduzu irtenbide ego- kia da esanahia asmatzea.	1	2	3	4	5
10	Egunero ordubetez ikasiz zenbat denbora behar da hizkuntza era onargarrian ikasteko? 1 = urtebete baino gutxiago; 2 1-2 urte; 3 = 3-5 urte; 4 = 5-10 urte; 5 = ezinezkoa da egunero ordubetez jardunda maila onargarria eskuratzea.	1	2	3	4	5
11	Oso garrantzizkoa da errepikatzea eta praktika ugari egitea.	1	2	3	4	5
12	Erroreak hasiera-hasieratik zuzendu ezean, oso zaila izango da gero xede-hizkuntza zuzen erabiltzea.	1	2	3	4	5
13	Emakumezkoak hizkuntza ikasle hobeak dira gizo- nezkoak baino.	1	2	3	4	5
14	Errazagoa da H ₂ z hitz egitea entzunez ulertzea baino.	1	2	3	4	5
15	H ₂ ikastea eta beste ikasgaiak ikastea (matematika edo natur zientziak, esaterako) zeharo bestelakoak dira.	1	2	3	4	5
16	H ₂ ikastea H ₁ etik H ₂ ra itzultzea da.	1	2	3	4	5
17	Hizkuntza bat baino gehiago dakitenak adimen handi- koak izaten dira, oro har.	1	2	3	4	5
18	Edozeinek ikas dezake H ₂ z hitz egiten.	1	2	3	4	5
19	Xede-hizkuntza ikastea arau gramatikalak ikastea da.	1	2	3	4	5
20	H ₂ ikastea hitzak ikastea da hein handi batean.	1	2	3	4	5
21	60 urtetik aurrera ezinezkoa da hizkuntza ikastea.	1	2	3	4	5
22	Trebea naiz H ₂ ikasten.	1	2	3	4	5

Hizkuntzak ikasteari buruzko usteak: gaia zertan den

37

Helduak hizkuntza bat ikasteko hutsetik ez garela abiatzen frogatzeko ariketa:

HITZAK

Demokrazia	Psikologia	Musika
Diktadura	Delinkuentzia	Telefona
Tirania	Mundua	Komunikazioa
Kriminala	Presoa	Ekonomia
Pertsona	Epaitegia	Medikua
Laranja	Abokatua	Medikuntza
Limoia	Kartzela	Justizia
Tigrea	Administrazioa	Delitua
Elefantea	Legea	Moralitatea

SINTAGMAK

Lege organikoa
Lege naturala
Ministerio publikoa
Ertzain etxea
Erreabilitatzeko tratamendua
Atentatuaren biktima
Delituaren gorputza

ESALDIAK

Estatu Batuetan kondenatuak aulki elektrikoan hiltzen dituzte.

Pá Perurena harrijasotzailea da; 300 kilo jasotzen ditu.

Indurainek 5 tour irabazi zituen.

Parrandan ibili eta katarroa harrapatu dut.

Kastrazio kimikoa Frantzian jarri nahi du presidenteak.

Demokrazia Grezian jaio zen.

W. Allenek film bat egin du Bartzelonan.

Italiako gobernu demokratikoa da.

Limoia eta laranja zitrikoak dira.

Sexologia oso inportantea da jendearentzat.

Hitler diktadore kriminala izan zen.

Pá

4. ERANSKINA



Berrogei kiloko zapoa salgai

Iruña. Gezurra dirudien arren, benetako da irudian ageri den arraina. Iruñeako arraindegij batean aler alako argazkia da. Zapo horrek 40 kilo baino gehiago pisatzen du, eta 1,65 metroko luzera du. Atzo

harrapatu zuten arrantzaleek Ipar Atlantikoko uretan. Kontuan eduki behar da, normalean zapoek ez ditela bi kilo baino gehiagoko pisua izaten. Hala, arrainaren tamaina ikaragarria dela eta, jendearen

tzat ikusgai jarri zuten atzoko egunez, eta gaur, salgai jarriko dute. Familia osoaren tzako afaria egiteko aukera ederra izan daiteke. Hori bai, bere prezioa zein izango den ezin jakin. JESUS DIGES/ETE


ZAPOA

1. De qué pescado se trata? Cómo se dice en euskara?
 2. En qué ciudad está a la venta? En qué sitio concretamente? Cómo se dice en euskara?
 3. Dónde lo han pescado? Quienes?
 4. Cuánto pesa? (cómo se dice en euskara?)
 5. Cuánto mide? (cómo se dice en euskara?)
 6. Cual es su precio? (cómo se dice precio en euskara?)
-

HITZAK ETA ESALDIAK ITZULI

1. Zapoa
2. arrantzalea
3. arrandegia
4. kiloa
5. familia
6. prezioa
7. normalean
8. berrogei kilo pisatzen du
9. arrapatu zuten arrantzaleek Ipar Atlantikoko uretan
10. arrainaren tamaina ikaragarria da
11. 1,65 metroko luzera du

Identificas alguna palabra o frase más?



Alanbrezko eta irudimenezko **autoak**

Hegosfrika. Metalezko hariekia i autoak egitea atsegin du Justice Malahlele. 13 urte ditu, eta Hegosfrikari bizi da. Ez du jostailuak erosteko nahiko diru, bere lagu-

rek bezalaxe. Baina horregatik ez diote josteari utzi. Irudimena eta alanbre bat nahikoa dute euren jostailuak sortzeko. Alanbrezko autoak egiten pasatzen dute


denbora. Autoari gurpilak ezartzen dituzte, eta autoa gidatzeko modua ere aurkitu dute: makila batekin mugitzen dituzte autoaren aurreko gurpilak. www.101.com

BILATU HITZAK TESTUAN

1. Ruedas delanteras
2. Con hilos de alambre
3. Juguetes
4. Pasan el tiempo
5. Le gusta hacer cohes
6. Con un palo

GALDEREEI ERANTZUN

1. Non bizi da Justice?
2. Zenbat urte ditu?
3. Zerezoak dira autoak?
4. Zerekin mugitzen dituzte gurpilak?
5. Nolakoa da Justice?



Hogei arrazatako **140 katu** Irunen

Irun. Katuen Nazioarteko II. Azoka egiten ari dira egunotan Irungo Ficoba erakustazokan. Guztira, hogei arraza desberdinetako 140 katu baino gehiago bildu dituzte, animalia horietako asko eta asko arraza

exotikoetakoak. Katua animalia kurtuna du jende askok, eta agerikoa izan zen hori azokako bisitarien begiradetan. Azoka ireki zuten erakusketa, baina ikusi nahi duenak gaur ere badu horretarako aukera. Ficoba


belko atoka 10.000etik 18.000 arte ireki-ko dituzte. Hilduak 5 eurotan dute salneurria, 3 eurotan, 7 eta 12 urte bitartekoak, eta dozen 7 urteik beharriko haurrek, sarri. MAIZ/VEG/PTES

GALDEREI ERANTZUN

1. Zer egiten ari dira egunotan?
2. Non da azoka?
3. Zenbat katu arraza bildu dituzte?
4. Zenbat animalia daude?
5. Noiz ireki dute erakusketa?
6. Zein da azokaren orudategia?
7. Zeintzuk dira prezioak?

HITZEGIA

- Feria de muestras
- Raza
- Gratis
- Visitante
- Adulto
- Mirada
- Niños menores de 7 años.



Donostiako pintxoak, Ameriketean

AEB. Patxi Bergara sukaldari donostiarra Ameriketako Estatu Batuetara joan da Donostiako pintxoak ezagutaraztera. Izan ere, Donostiako pintxoaren inguruko Pintxo Festivala jaiak ospatzen ari dira hiri-

Lurte honetan AEBetan, eta ora hamira ona izan dute prestatutako pintxoek, Bergarak pintxo taberna bat du Donostiako Gros auzoan. Hala, Blanca Arretxoi (emaztea) eta tabernako langileekin bate-

ra joan da leku berri jaiak. Inklusa egunehi 300 gonbidatutarako 5.000 pintxo egin dituzten Jose Andres Asturiasko (Espainia) sukaldariak gonbidatuta joan da Bergara pintxo jaiak, 2008.

ESAN ONDOKOAK ZUZEN ALA OKER DAUDEN

1. Argazkiko sukaldari horiek Donostian daude.
2. Sukaldari horiek amerikarrak dira.
3. Patxi Bergaran du bere taberna.
4. Patxiaren emaztea Blanca da.
5. Jose Andres sukaldaria ere Bergarakoa da.
6. 5000 gonbidatu egon dira jaialdian.

NOLA ESATEN DA EUSKARAZ:

1. USA
2. El cocinero donostiarra
3. Invitado
4. Fiesta del pincho
5. Estan celebrando la fiesta

1. Nortzuk dira lider irudiko lider erlijioso horiek?
2. Nongoak dira?
3. Non bizi dira?
4. Nolakoak dira?
5. Non daude estatuak?
6. Zein artistak egin ditu?
7. Zergatik egin ditu?



Lider erlijiosoen bilera

Italia. Erlijio nagusietako buruak bilduko dira igande honetan Napolin; bakearen aldeko kongresua egin behar dute. Ekitaldi hori aitazkiztat hartuta, munduko hain-

bat lider erlijiosoren estatua bakiak sortu ditu Lenny Virgilio artistak, eta denak batera elkartu ditu Napoliko Plebiscito plazan. Besteak beste, Benedikto XVI.a aita

santua, Bartolome I.a Konstantinopleko lidia irudikaria eta Kiriilosostomos II.a Ziperko eliza greko-ortodoxoko artzapezpikua izango dira kongresuaren oronagatzaileak.

BILATU HITZAK TESTUAN

1. Este domingo
2. Reunion de los lideres religiosos
3. Congreso a favor de la paz
4. Iglesia
5. Arzobispo



Tuning zaleen topaketa

Hemialde Katalanak. Autoei dituzte zaletasun, autoei apaintzen eta zaintzen denbora pasa eta dirua gastatzen dute. Halen autoa bakarra izendatzen, pertsona-

lari egiten dituzte ibilgailuek. Tuning zaleak dira. Bartzelonan elkartu dira egun hauetan Tuning zaleak. Guztira 300 auto bildu dituzte Barcelona Tuning Show to-

paketa. Zein hain zehin bitxiagoa da New Yorkeko taxiaren iburua duenik ere bada. Igandera arte izango da zabalik, eta ordu berarekin.

- 1.- Zenbat kotxe bildu dituzte?
- 2.- Zertan pasatzen dute denbora?
- 3.- Non elkartu dira?
- 4.- Noiz arte izango da topaketa?
- 5.- Zer egiten dute ibilgailuekin?
- 6.- Nola du izena zaletasun honek?
- 7.- Zure ustez, garestia al da?
- 8.- Gustatzen zaizu zaletasun hau?

5. ERANSKINA

Eman itzazu ondoko aditz trinkoak forma perifrastikoan:

LIRAUKE BANENGO BALIHOA GINDOAZKE ZIHOAZKEEN
LIHOAKE BALEGO BALETOR BAGENBILTZA BAZENTOZTE
LEBILKE LEUDEKE LETOZKE BALEBIL DAZAGUT DAGIZU
BALEBILTZA LEUZKAKE NENTZUKE GEUNDEKE BALEKITE
BANEKAR BAZENTOZ ZENERAMAKE NEKIKE LETORKE
BALEKI LEGOKE BAZENEKI NIHARDUKE BALERITZO

6. ERANSKINA

CAUSA Y VALOR DEL ERROR

METODOLOGÍA	CAUSA DEL ERROR	LA GRAMÁTICA	ACQUISICIÓN	PRODUCCIÓN	EVALUACIÓN	Algunas variaciones específicas sobre el error.	
Metodología tradicional	Estudio insuficiente	Gramática explícita (modelo de las lenguas clásicas)	Memorización de reglas gramaticales Traducción	Aplicación de las reglas	Corrección sancionadora		
Desde finales del S.XIX en adelante	Interferencia. Transferir negativo Correspondencias incorrectas entre palabra y objeto. Utilización de la L1	Gramática implícita	-Ejercicios de nominalización y descripción de la realidad. -Centros de interés. -Rechazo de la traducción y de la utilización de la L1.	Práctica intensiva de la lengua oral en situaciones de uso "natural" de la L2	Corrección sancionadora		
Años 50 y 60	Metodología audio-oral y audiovisual	No adquisición de nativistas.	Gramática implícita	Memorización de diálogos	Repetición de estructuras Progresión gramatical	Corrección sancionadora	
Años 50 y 60 y <i>Andalucía contrastiva</i>	<i>Transferencia de L1 a L2</i>	Gramática explícita	Traducción "Paux omis"	Trabajar sobre la diferencia	Corrección sancionadora	1971. CARLOS. <i>análisis contrastivo.</i>	
Años 60 y 70 (Dlex. de fre-audiolingual eutecias y (SGAV). Enfoque situacional. Fon-damentad)	Metodología global por falta de una secuenciación adecuada.	Gramática implícita. Progresión gramatical en la presentación de estructuras	-Explicación -Repetición -"Exploitation" -Resumen de estructuras	-Repetición de estructuras. -Deducción de patrones gramaticales.	Corrección sancionadora	1967 S.P. CORDER. <i>Interferencia</i>	

Rosaura Serra Escrivá

ENFOQUES		COMUNICATIVOS					
Años 1975.							1976. A. LAMT: las <i>erreurs des apprenants</i> (Afectual, etc.)
Niveles Umbriel (Ibervu, Seoul, Threshold Level, [J]iblar)	Enfoque notional-funcional	La nula enseñanza por no tener en cuenta la motivación y las "necesidades" de "autenticidad" de las situaciones comunicativas.	Gramática implícita. Progresión gramatical latente en la presentación de "actes de parole" (situation de notions y estructuras)	Memorización de actos de habla en situaciones de comunicación	-Diversificación de las situaciones de comunicación. -Ejercicios más o menos directivos. -Simulaciones	-¿Corregir todos los errores? -¿Solo los que impidan la comunicación? -¿Corrección sancionadora?	
Años 80	Approches Communicative Approach	-Input insuficiente -[Unevenness]	-Gramática implícita -[Progresión?]	Comprensión y reutilización de "tareas de actos de habla"	-Creatividad y diversificación de tareas	-¿Corrección de estructuras? -¿Valoración de la creatividad?	1977. R. POMQUER: <i>Système Intermédiaire</i>
Años 90	Enfoque psicopragmático: <i>dimensión cognitiva del enfoque comunicativo</i>	Manifestación de la interlengua	-De la "gramática" espontánea o intuitiva a la gramática reflexiva. -Gramática de los textos y de los discursos. -Progresión negociada. El aprendizaje: proceso y construcción.	-Diversidad de tareas sobre textos y discursos. -Estrategias de comprensión y de producción	-Autonomía -Observación y reflexión -Sistemización y conceptualización y Generalización. -Experimentación. -Diversidad de estrategias	-La corrección como diagnóstico. -Autocorrección. Reflexión -Autonomización	

7. ERANSKINA

HABE

EBALUAZIO-FITXA

Deialdia

NAN

Ikaslea

Maila

1

Mintzamena

gehienez 30-gainditzeko 15

Kalifikazio-irizpideak

Baremazioa: E, oso eskasa; D, eskasa; C, nahikoa; B, ona; A oso ona

Egokitasuna (%10)

Lotzen zaie testua eskatutako gaiari, solaskideari eta xedeari? Lotzen zaie tonua solaskideen harreman-motari eta xedeari? Badaki lexikoa modalizatzen?

Koherentzia eta Kohesioa (%20)

Idea nagusiek eta lagungarriek era logikoan eusten diote elkarri? Diskurtsoaren egitura eta horren garapena era logikoan daude eginda? Ideia horiek osotasun jakin bati erantzuten diote? Badaki elkarriketak hasten, gaiak aldatzen, hizketa-txandak hartzen eta errespetatzen, mezua negoziatzen?

Jarriotasuna (%25)

Orekatuak dira darabiltzan tempusa, erritmoa eta abiadura?

Aberastasuna (%20)

Hizkuntz baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu? Esaldi landuak eta horien baliokideak baliatzen ditu? Baliabide du ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia...)?

Zuzentasuna (%25)

Gramatikaren arauak errespetatzen ditu (deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia)? Gaiari loturiko lexikoa menperatzen du? Intonazio eta azentu onargarriak erabiltzen ditu?

OHARRAK

PUNTUAZIOA (%)	Oso eskasa (E)	Eskasa (D)	Nahikoa (C)	Ona (B)	Oso ona (A)
Egokitasuna (%10)	0	1	1,5	2,2	3
Koherentzia eta Kohesioa (%20)	0	1,5	3	4,5	6
Jarriotasuna (%25)	0	2	3,8	5,6	7,5
Aberastasuna (%20)	0	1,5	3	4,5	6
Zuzentasuna (%25)	0	2	3,8	5,6	7,5

(*) Atalez ataleko batuketaren dezimalak biribildu egiten dira: 0,1etik 0,4ra = 0; 0,5etik 0,9ra = 1

HADE

EBALUAZIO-FITXA

Deialdia


NAN

Ikaslea

Maila

2

Mintzamena



gehenez 30-gainditzeko 15

Kalifikazio-irizpideak

Baremazioa: E, oso eskasa; D, eskasa; C, nahikoa; B, ona; A oso ona

Egokitasuna (%10)

Lotzen zaie testua eskatutako gaiari, solaskideari eta xedeari? Lotzen zaie tonua solaskideen harreman-motari eta xedeari? Badaki lexikoa modalizatzen?

Koherentzia eta Kohesioa (%20)

Idea nagusiek eta lagungarriek era logikoan eusten diote elkarri? Diskurtsoaren egitura eta horren garapena era logikoan daude eginda? Ideia horiek osotasun jakin bati erantzuten diote? Badaki elkarrizketak hasten, gaiak aldatzen, hizketa-bxandak hartzen eta errespetatzen, mezua negoziatzen?

Jarriotasuna (%25)

Orekatuak dira darabiltzan tempusa, erritmoa eta abiadura?

Aberastasuna %20)

Hizkuntz baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu? Esaldi landuak eta horien baliokideak baliatzen ditu? Baliabide du ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia...)?

Zuzentasuna (%25)

Gramatikaren arauak errespetatzen ditu (deklinatibea, aditza, morfologia, sintaxia)? Gaiari loturiko lexikoa menperatzen du? Intonazio eta azentu onargarriak erabiltzen ditu?

OHARRAK

PUNTUAZIOA (%)

	Oso eskasa (E)	Eskasa (D)	Nahikoa (C)	Ona (B)	Oso ona (A)
Egokitasuna (%10)	0	1	1,5	2,2	3
Koherentzia eta Kohesioa (%20)	0	1,5	3	4,5	6
Jarriotasuna (%25)	0	2	3,8	5,6	7,5
Aberastasuna %20)	0	1,5	3	4,5	6
Zuzentasuna (%25)	0	2	3,8	5,6	7,5

(*) Atalez ataleko batuketaren dezimalak biribildu egiten dira: 0,1etik 0,4ra = 0; 0,5etik 0,9ra = 1

HADE

EBALUAZIO-FITXA

Deialdia

NAN

Ikaslea

Maila

3

Mintzamena

gehienez 30-gaunditzeko 15

Kalifikazio-irizpideak

Baremazioa: E, oso eskasa; D, eskasa; C, nahikoa; B, ona; A oso ona

Egokitasuna (%20)

Lotzen zaie testua eskatutako gaiari, solaskideari eta xedeari? Lotzen zaie tonua solaskideen harreman-motari eta xedeari? Badaki lexikoa modalizatzen?

Koherentzia eta Kohesioa (%20)

Idea nagusiek eta lagungarriek era logikoan eusten diote elkarri? Diskurtsoaren egitura eta horren garapena era logikoan daude eginda? Idea horiek osotasun jakin bati erantzuten diote? Badaki elkarrizketak hasten, galak aldatzen, hizketa-bxandak hartzen eta errespetatzen, mezua negoziatzen?

Jarriotasuna (%20)

Orekatuak dira darabiltzan tempusa, erritmoa eta abiadura?

Aberastasuna %20)

Hizkuntz baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu? Esaldi landuak eta horien balokideak balliatzen ditu? Baliabide du ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia...)?

Zuzentasuna (%20)

Gramatikaren arauak errespetatzen ditu (deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia)? Gaiari loturiko lexikoa menperatzen du? Intonazio eta azentu onargariak erabiltzen ditu?

OHARRAK

PUNUAZIOA (%)	Oso eskasa(E)	Eskasa (D)	Nahikoa (C)	Ona (B)	Oso ona (A)
Egokitasuna (%20)	0	1,5	3	4,5	6
Koherentzia eta Kohesioa (%20)	0	1,5	3	4,5	6
Jarriotasuna (%20)	0	1,5	3	4,5	6
Aberastasuna %20)	0	1,5	3	4,5	6
Zuzentasuna (%20)	0	1,5	3	4,5	6

(*) Atalez ataleko batuketaren dezimalak biribildu egiten dira: 0,1etik 0,4ra = 0; 0,5etik 0,9ra = 1

8. ERANSKINA

1. galdetegia

Enkarterrin 29.700 biztanle inguru bizi dira, horietatik zenbat euskaldun daude?

- 2.000 baino gutxiago
- 2.000 – 2.500 artean
- 2.500 – 3.000 artean
- 3000 baino gehiago

Zuk zenbat pertsona euskaldun ezagutzen duzu?

- 10 - 20 bitartean
- 20 - 50 bitartean
- 50 - 100 bitartean
- 100 baino gehiago

Normalean euskaltegitik kanpo euskaraz egiten duzu?

- Beti
- Askotan
- Guxitan
- Inoiz ez

Euskaltegitik kanpo hitz egiten ez baduzu, azalduko diguzu arrazoia?


- Ez dudalako euskaraz dakien beste inor ezagutzen.
- Konfiantzarik ez dudalako. Ez naiz eroso sentitzen.
- Lotsa ematen didalako.
- Ez zaidalako gustatzen.
- Besterik:

1. mailatik hasita zenbat denbora behar da euskara ikasteko?


- 2 urte
- 2 - 4 artean
- 4 - 6 artean
- 6 baino gehiago

Zure kasuan, euskaltegia uzteko, zenbat urte beharko duzu?


Udalerriaren izen ofiziala:	Lanestosa
Biztanle kopurua:	281
Herritar euskaldunen kopurua:	%2,1
Euskaldun hartzailleen kopurua:	%9,6




Udalerriaren izen ofiziala:	Sopuerta
Biztanle kopurua:	2.209
Herritar euskaldunen kopurua:	%14,1
Euskaldun hartzailleen kopurua:	%19,1




Udalerriaren izen ofiziala:	Trucios-Turtzioz
Biztanle kopurua:	512
Herritar euskaldunen kopurua:	%4,3
Euskaldun hartzailleen kopurua:	%21,3



Udalerriaren izen ofiziala:	Zalla
Biztanle kopurua:	7.706
Herritar euskaldunen kopurua:	%14,6
Euskaldun hartzailleen kopurua:	%24,6



Udalerriaren izen ofiziala:	Balmaseda
Biztanle kopurua:	7.226
Herritar euskaldunen kopurua:	% 13,5
Euskaldun hartzailleen kopurua:	%23



Enkarterriko datuak:
Biztanle kopurua (2001): 29.663

Euskararen kale erabilera:
Euskaraz: % 2,14
Erdaraz: % 97,86

Euskararen Ezagutza
Erdaldunak: % 73.66 = 21.850
Euskaldunak: % 9.41 = 2.791
Ia euskaldunak: % 16.92 = 5.019

9. ERANSKINA

IRAKURRI: egunkaria, aldizkariak, kartelak, foiletoak, hitz-gurutzatuak, internet, liburuak (saiakerak, ipuinak, narrazioak, eleberriak), komikiak, gutunak (banketxekoak...)

ENTZUN: irratia, internet, musika telebista (bideoa,DVD), lagunak, ikaskideak/lankideak, senideak

IDATZI: erosketa zerrenda, oharrak liburuetan, internet, postalak, gutunak

MINTZATU: lagunekin/familiarekin, irakurri ozenki, Berbalagun taldea, txakurrarekin, ikaskideekin/lankideekin, telefonoz